



**ANTONIO ZAVALA**

**ESAERA ZAARREN  
BILDUMA BERRIA (I)**

ANTONIO ZAVALA

AUSPOA LIBURUTEGIA

184

---

**Auspoa Liburutegia**  
**EDITORIAL AUSPOA**

**Plaza Santa María, 2 – Tolosa, Gipuzkoa**  
**Tfno.: (943) 67 12 82**

**ANTONIO ZAVALA**

**ESAERA ZAARREN  
BILDUMA BERRIA**

**I**

**(A - G)**

**AUSPOA LIBURUTEGIA  
1985**

© Auspoa Liburutegia (Tolosa-Guipuzkoa)  
Fotokonposatzalle: Lente-Estella  
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)  
ISBN: 84-7158-130-2 (Tomo I)  
ISBN: 84-7158-129-9 (Obra completa)  
Depósito Legal: NA.: 1.409-1985

## ITZAURREA

Orain urte batzuk, Joakin Berasategi adiskidearekin izketan ari nintzala, onela esan zidan:

– Ondo ari aiz gure erri-literatura biltzen ta argitaratzen. Baiña utsune aundi bat badek.

– Zer utsune? –galdetu nion.

– Esaera zaarrekin ez dek oraindaño libururik atera.

Egia esan, orrelako lanik egiterik etzizaidan sekulan bururatu ere egin. Orregatik, puska batean zer erantzun ez nekiala gelditu nintzan. Ondoren, onela esan nion:

– Bein bear eta, arrazoi osoa dek. Baiña utsune ori beteko diat.

Egun artan emandako itza, gaur betetzen det.

\* \* \*

*Esaera* itza, bi eratan artu diteke.

Bata, esateko modua. Erderazko *modismo*, alegia. Adibidez: «bereak eta bost entzun», «pikutara joan», «eltzetik babak atera», ta abar ta abar. Olakoak itzez-itz erderara itzuli ezkerero, xelebrequeri ederrik entzungo degu.

Berdin gertatuko litzake, alderantziz egin ezkerero. Alegia, erderazko esateko moduak -izkuntza bakoitzak bereak baititu- euskerrara itzez-itz aldatuta. Gure belarriak ez luteke gozotasunik asko artuko.

Esateko moduak, *modismo* oiek alegia, Aita Justo Mari Mokoroa'k pillaka bilduak ditu. Arrigarrizko lan ori, laister argitara aterako dala uste degu. Orregatik, era ortako esaerik ez degu emen sartu. Besteren alorrean gure atxurrik sartu gabe, bada euskal baratzen nun lan egin.

*Esaera* itzaren bigarren esan-naia adierazteko, itz asko ditu euskerak: *zaar-it*z, *zuhurhitz*, *atsotitz*, *errefrau*... Geienetan, ordea, Gipuzkoa aldean beintzat bai, *esaera zaarra* esan oi zaio. Erderaz, berriz, *refrán* esaten zaio.

Esaera auek dira, liburu ontan biltzen alegindu geranak.

\* \* \*

Esaera zaar oiek erri-literatura dirala, adierazi bearririk ez dagoala uste det. Iñork ez

du ori zalantzan jarriko. Zugaitz beraren beste adar bat degu noski. Erri-poesiarekin senidetatsun osoa duana.

Bertsolaritzaren bidez argi ta garbi ikusi genezake ori. Bein baiño geiagotan, izan ere, esaera zaar oietaz baliatu izan dira bertsolariak bertsoa osatzeko. Batean, adibidez, bertso-bukaera onela kantatu zion Txirritak Artzai-Txikiari:

Aizak, aurriak erakusten dik  
nola dantzatu atzia.

Ta ori, aspalditik euskal aotan dabillen esaera da.

Bestetan, duda egin diteke bertsolariak diona esaera zaarren bat dan ala ez. Adibidez, Txirritak bertso-sail batean onela esaten du:

Au da txoriyak gari tartian  
gosiak egon biarra.

Makiña bat aldiz entzuten da esaldi ori eguneroko izketan. Zer da, beraz: Txirritak sail ori jartzerakoan asmatua, ala leenagotik zetorrena? Nik, beintzat, ezin esan.

Berdin esan bearko genduke Txirritaren beste esaldi onekin:

Artzai tontuak dian mendian  
ondo bizi da otsua.



Au esatera ez naiz bildurtzen, beraz: esaera zaar asko leengo bertsolari zaarrak asma-  
tuak izango dirala; edo, ori geiegi esatea bada,  
bertsolari-sena berekin bear zutela olako  
esaerik asmatu zutenak.

Ni, beintzat, bertsoak eta esaera zaarrak al-  
karrekin duten senidetasun orrek bultzatu  
nau geien-bat bilduma aù prestatzera.

\* \* \*

Esaera zaarrak biltzeko itza eman ondo-  
ren, burutapen bat gogoratu zitzaidan: leena-  
gotik badaudela, euskeraz ere, esaera-  
bildumak. Ta bilduma oiek dituzten esaerak  
ez nintzala berriz argitaratzen asiko. Ori al-  
perrikako lana litzakela. Orrela etzala aurre-  
ra pausorik ematen. Orain arteko bildumetan  
sartu ez diranak bear nituala. Esaera zaar be-  
rriak, alegia...

Ori ala izanik, euskeraz ditugun esaera-  
-bildumak eskuratu nituan. Alegia:

1596 urtean, Iruñe'n, biltzallearen izenik  
gabeko bilduma eder bat agertu zan: *Refranes  
y Sentencias comunes en Bascuence, declara-  
das en romance...*

1657'an, Paris'en, Oihenart'en bilduma  
agertu zan: *Les Proverbes Basques recueillis  
par le Sr. d'Oihenart...*

1936'an, Baiona'ko *Gure Herria* aldizkarian, Jean Elissalde edo *Zerbitzari* zanak bere bilduma agertu zuan.

1945'an, Madrid'en, R.M.Azkue'k, bere *Euskalerraren Yakintza*'ren irugarren alean, *Atsotitzak* izenburuarekin, bilduma mardula argitaratu zuan.

Bilduma ontan, itzaurrean esaten danez, Garibay, Mogel, Lope de Isasti, Uriarte, Bela, Salguis, Dartayet, Duvoisin, Elizanburu, Intxauspe, Landerretxe ta beste askok bildu zituztenak sartu zituan Azkue'k.

1974'an, Iruñe'n, Aita Damaso Intza'k, *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak* izenekoa atera zuan.

1981'an, Donostia'n, J. Ormazabal'ek, *Esaera zaharrak eta txiste berriak* izeneko liburua publikatu zuan.

1982'an, Zarautz'en, Jose Lasa Apalategui'k, *Florilegio de proverbios y refranes antiguos* eman zigun.

Ta azkenik, 1984'ean, Baiona'n, *Bertsularien lagunak* elkarteak, J. L. Laka, E. Alkat., F. Mihura, I. Etxeandi ta M. Lekuona lankide zirala, *Zahar hitz, zuhur hitz* izenekoa agertu zuan.

Esan bezela, bilduma oietan dauden esatera zaarrak etziran gure ontan sartu bear. Dauden lekuan ondo daude.

Orretarako, bilduma oietako esaera baikoitzarentzat fitxa bana egin nuan, orritxo ba-

tean idatzi alegia, eta alfabeto-ordenean ezarri.

Ondoren, andik edo emendik esaeren bat jasotakoan, fitxa oietan begiratzen nuan. An bazegoan, etzuan neretzat balio. Ez bazegoan, nere bilduma ontako ateak zabaltzen nizkion.

Ala ere, beste bilduma oietako esaerik sartuko zan nere ontan ere. Ta bat baiño geiago ziur asko, naiz-eta gure aldetik alegin guztiak egin. Kontrabandorik pasako ez dan mugarik ez baita.

Kontrabando ori nola sartu ote dan? Era askotara noski. Batzutan, itzak tokiz aldatuta daudelako... Bestetan, itzak berak aldatu diralako, euskeraz ere sinonimo asko baitago. Adibidez: itzegin, mintzatu, berba egin, elekatu... Nekatu, akitu, unatu... Ta abar ta abar.

Ta bestetan, baita ere, buruaren nekez-edo, bear ainbat arreta jarri ez degulako. Utsegin ori barka dezaigula, arren, irakurleak. Ori ez baita gure naia izan, gure ezin iritxia baizik.

\* \* \*

Lan bat asi aurretik, on izaten da lan ori bera bestek nola egin duten ikustea. Nundik nora ibilli bear dezun erakutsiko dizute.

Ala, erderazko esaera-bildumak aztertzen

asi nintzan. Ta, bereala, esaera-biltzaille tre-be baten berri ikasi nuan.

Frantzisko Rodríguez Marín jauna, bera. Andaluzia'n jaio zan, Osuna errian, 1855-I-27'an. Olerkari, literetura kondairalari, erri-kanta biltzaille ta abar ta abar izan zan. Baita esaera-jasozale ere.

Ikasle zalarik, amabost bat urterekin, gai-xotu egin zan. Medikiak ala aginduta, gura-soak mendi-etxe batera bialdu zuten. Iru bat urte pasa zituan an. Orduantxe egin zan erri-izkeraren maitale. Berak onela dio:

*«...allí, conversando con hombres rústicos de sano espíritu e imaginación fresca y lozana, me fui engolosinando día tras día con el hablar y sentir del pueblo.»*

Ta ondoren:

*«...y muy señaladamente me enamoré del inexhausto venero poético popular y del copiosísimo caudal de añejos refranes».*

Bertan, inguruko jendearen aotik, seireun edo zortzireun bat esaera bildu omen zituan.

Ta biltzeari etzion utzi, arnasa izan zuan arte, naiz-eta mundu-aldi luzea ezagutu, 1943 urtean il baitzan.

Ala, esaera zaarrez osatutako lau liburu eder argitara eman zituan. Bilduma oietan etzituan sartu, leenagoko Gonzalo Correas esaera-biltzalleak argitaratu zituanak. Berak onela dio: *«No contenidos en la copiosa colección del Maestro Gonzalo Correas.»*

Ala ere, berrogei millatik gora publikatu zituan.

Etzituan oiek danak berak bakarrik bildu. Artarako, laguntzalleak billatu zituan an da emen España'n zear. Ta oiek, erriaren aotik jaso ta bialtzen zizkiotenak, berak bere bilduma oietan sartu. Erreka txiki askok ibai zabalagiten duten bezela, alegia.

Ortaz gaiñera, gaztelerazko literatura oso ezaguna baitzuan, klasikoen liburuetan arkitutako esaerak ere bere bilduma mardul ortara pasa zituan.

Onela zion berak 1926'an, esaera zaarrekin osatutako lenengo liburuaren azalean: *«Allególos de la tradición oral y de sus lecturas durante más de medio siglo (1871-1926) Francisco Rodríguez Marín.»*

\* \* \*

Bi bide oiek artu bearrak ziran, beraz, biltzen asteko: laguntzalleak billatu eta liburu zaarrak aztertu.

Laguntzalleak bi alderdi bear zituzten: batetik, euskaldun jator-jatorrak izatea; bestetik, kulturaz pixka bat jantziak, esaera zaarra zein zan ezagutzeko eta idazteko.

Orrela, bi alderdi oien jabe ziran adiskideei nere asmoen berri ematen asi nintzan, laguntza eskatuz. Jaunari eskerrak, bertso-

biltzea dala-ta, olako ezagun asko ditut Euskal-erri guztian.

Oi dan bezela, batzuek etzidaten ezertxo ere bialdu. Beste batzuen eskutik, berriz, uzta ugaria jaso nuan. Oien artean: Uztapide zana, Jose Ramon Erauskin Txirritaren illoba zana, Juan Jose Irazusta, Agustin Zubikarai, Aita Santi Onaindia, Agustin Zinkunegi, Aita Julian Alustiza, Txomin Garmendia, Joxe Mari Lertxundi, Ataño, Joakin ta Jesus Berasategi, Luzio Gabiria, Inozentzio Olea, Pedro Artetxe, Juan Mari Lekuona, Basarri, Sebastian Salaberria, Pedro Berrondo, Mariano Izeta, Mariano Ostolaiz, Iñaki Arbelaitz, Mariano Garaialde, Jose Mari Satrustegi, Juan San Martin, Manu Oñatibia, Martin Ugarte, ta abar ta abar.

Gure erri-literatura ezagutzen dute-nentzat, izen-abizen oiek asko esan nai dute. Adiskide oiei zor die bilduma onek bere puskarik baliotsuena.

Liburu-azterketan ere asi nintzan. Liburuak ez-ezik, aldizkariak ere bai. Batean bat ere ez, bestean bi, bestean iru, bestean bost, bestean ogei, irurogei, eun...

Esaera oiek danak, leen adierazi detan bezela, banaka artu ta esaera-bildumetan argitaratuta ote zeuden begiratzan nuan. Argitaratuta bazegoan, bazterrera. Ez bazegoan, musu eman eta etxerako...

\* \* \*

Biltze-lanean ez-ezik, bildutako esaerak ordenatzen ere, Rodríguez Marin jaunaren antzera jokatu det.

Alfabeto-ordenean eratu zituan arek. Gaztelera-ko esaerak bestela sailkatzeko lana, P. Martínez Kleiser'ek egingo zuan andik urteetara, *Refranero general ideológico español* (Madrid, 1953) argitara emanaz.

Gu ere, esan bezela, Rodríguez Marín'en bidetik abiatu gera. Alfabetoz ordenatu ditugu esaerak. Eskuratu-alean, alfabetoz tokatzen zitzaizen lekuan sartu ta segi aurrera.

\* \* \*

Esaerak alfabetoz eratzeko jokabide onek beste zailtasun bat ekarri du, ordea.

Esaerak, erriaren aotik sortuak izanik, ango edo emengo euskalkiaz loretzen dira. Eta erri-literatura dagoan-dagoanean jaso bear baita, errespeto guztia zor baitzaio, bi-degabekeri aundia litzake ezertxo ere aldatzea.

Ta, euskalkien erak errespetatuz, alfabetoz nola ordenatu *artu* ta *hartu*, *ori* ta *hori*, *hau* ta *au*, *egina* ta *egiña*, *apirila* ta *apirilla* ta abar ta abar?.

Lan ontan asi nintzanean, etzitzaidan gogoratu ere egin, olako korapillorik arkituko nuanik. Nola askatu detan?.

Hatxe letra idatzi egin det noski, euskalkiak ala eskatzen zuanean. Bañan alfabeto-ordenean ez da kontuan artzen. Ez balitz bezela ordenatu. R.M.Azkue'k ere, bere iztegian, ain zuzen orain berriro Euskaltzaindiak atera duan arrigarrizko lan ortan, orrelaxe egin zuan.

J ta I letrak, bat bakarra balitz bezela artzen dira, biak I balira bezela. Ontan ere, Azkue'ren bidea artzen degu. *jauna, iauna* balitz bazela, alegia.

N eta Ñ letrak ere berdin egiten degu. *Egiña* ta *egina* toki berean ezartzen dira, beraz.

Baita L eta Ll: *ixila* ta *ixilla, apirilla* ta *apirila*.

Arau auek ondo gogoan artu bearko ditu irakurleak, gure alfabeto-ordena ulertuko badu.

Badakit ordenatze au irakurle danen gustokoa ez dala izango. Baiña bestela egingo banu ere ez. Esaera zaarrak diona, alegia: Danen gustoko euririk sekula ere ez.

\* \* \*

Bearbada, esaera-bilduma baten itzaurre-rako, esaera zaarrei buruzko lan sakon ta jakintsu bat naiko luteke batek baiño geiagok.



Gai ederra da ori noski. Ugaria ere bai. Itzaurre bat ez-ezik, liburu mardul bat osatzeko modukoa.

Baiña denbora asko artu digu, bestela ere, lan onek. Ta bildur izan naiz, beste itzaurre mamitsuago bat egin naiean asi ezkeru, berriz ere denbora erruz joango zitzaidala.

Gaiñera, nere iritzirako beintzat, bi lan oso ezberdiñak dira oiek. Bata, bilduma; orain irakurleari eskeintzen dioguna. Bestea, berriz, azterketa.

Berdin gertatzen da bertso zaarrekin ere. Leenengo lana, bertsoak bildu eta irakurlearen eskuetan jartzea da. Dauden materialak azaldu, alegia. Orixe da, ain zuzen. *Auspoa* liburutegi au aspalditik egiten ari dana. Ta bigarren lana litzake, bertsolaritza aztertu, sakondu, konparatu, komentatu...

\* \* \*

Esaerai, zenbaki bana ezarri diegu aurretik. Ortara, guztiak zenbat diran badakigu: 3.133.

Baiña beste intentzio batekin egin da ori. Atzean beste zenbaki bana baitute esaerak. Ta bi zenbakiak, aurrekoa eta atzekoa uztartuta daude.

Atzeko zenbakiak, esaera ori nork emana dan edo nundik artua degun adierazten du.

Orretarako, liburuaren bukaeran atal berezi bat ezarri degu, *Iturriak* izenarekin, esaera emaleak nortzuk diran esanez: 1, 2, 3...

Emale bakoitzaren izenaren ondoren, beste zenbaki batzuk ikusiko ditu irakurleak: 235, 478, 1597...

Zenbaki aukeratuak, esaeren aurreko zenbakiak dira. Emale bakoitzak eman dizkigun esaerak zein diran adierazten digute. Orrela, nork zer eman duan, argi ta garbi dago, guk uste.

Izan ere, gauzak nundik artuak diran, esan bearreko gauza da beti. Bestela, gurasorik gabe utziko genituzke. Ta umezurtza, gauza tristea da benetan...

Esaera bakoitzaren ondotik ori esatea, aspergarri eta luzegi egingo litzake. Orregatik asmatu degu era ori.

\* \* \*

Beste lan bat ere balegoke emen, iñork egin nai balu: Zenbateraiñoko jatortasuna duten bildu ditugun esaera aukeratuak... Euskalerrian sortuak al diran... Gure erriak asmatu ote dituan...

Emengo esaera batzuk atzerrian jaioko dira. Ar dezagun, adibidez, «esaidak norekin abillen, esando diat nor aizen» esaera. Danok dakigunez, erdal esaera baten itzulpena da: *Dime con quién andas y*

*te diré quién eres.* Olako asko dago bilduma ontan.

– Nork nori eman ote dio? –galdetuko du norbaitek–. Erderak euskerari, ala euskerak erderari?

Itzekin gertatzen dana gertatuko da esaera zaarrekin ere. Euskal iztegian, erderatik artutako itz geiago da, azkotzaz ere, erdal iztegian euskeratik paseak baiño. Era berean, erdal esaera geiago euskeratuko zan, euskal esaerak erderatu baiño.

Nai badegu ta naiz ez badegu, gauzak orrela oi dira beti. Indartsuak aulari eragiten dio, ta aberatsak pobreari... Bertso zaar batek diona: Gogorrena juez. Edo-ta beste esaera zaar batek: Goien dagoanak jotzen du kukurruku.

Baiña gauza batez oartu bear genduke: itzulpenetan asita, zer itzulpen ederrak egiten dituan erriak. Itzulpen-eskoletakoak eredutzat artzeko modukoak, nere iritzirako. Itzez-itz itzuli bearrean, esan-naiari jarraituko dio, esaeraren mamia ondo gordez eta aditzallearentzat ulert-errezagoa egíñez.

Erdal esaera au ar dezagun: «*En tierra de ciegos el tuerto es rey*». *Lur eta errege* nai ta nai-ezkoak ziran, itzez-itz itzuli ezkeru. Baiña beste onela euskeratu zuan erriak: Itxuen errian begi-okerra alkate.

\* \* \*

Beste esaera batzuk erriaren aotik sortuak ote diran, duda egin diteke.

Euskaltzale asko jardun izan da aspalditik, euskal esaerak ugariagotu naiean-edo, erderazkoak euskerara itzultzen. Eliz-gizonak bide ori ere artu izan dute erriari aolku ederrrik eman bearrez.

Gure iritzirako, ortarako lenengo pausoa zera zan: ara ta onera ibilliz, erriaren aotik jaso. Baiña lan au zaillagoa izan...

Esaera batzuk erderatik itzuliak dirala, gauza nabarmena da. Ez baita errez erriak ematen dion gatzta ta piperra ematen. Nabarmen oiek ez ditugu emen sartu. Dudazkoak ziranak bai, ordea. Erdal usairik artzen dien, irakurleak berak ikusiko du.

\* \* \*

Zer esanik ez dago, bilduma au argitara emanagatik, euskal esaera jator asko bildu gabe geldituko zirala.

Baiña bein biltzen asi ezkerro, aurretzean ere segitu bearko degu. Emendik urte batzutara, beste esaera-bilduma berri bat argitaratu nai genduke. Gure eredutzat artu degun Rodríguez Marín jaunak ere, etzituan berak bildutakoak, danak batera bildu ta argitaratu. Lau liburutan agertu zituan: leenengoa 1926 urtean; bigarrena 1930'an; irugarrena 1934'an; eta laugarrena 1941'an.

Bera ez-ezik, an eta emen zituan laguntzalleak ere gogotik saiatu zirala esan nai du.

Eskari ori egingo nuke, beraz, orain bertatik: iñori esaera zaarren bat edo beste gogoratzen bazaio, edo entzuten badu, idazteko eta bialtzeko arren... Naiz asko izan, naiz gutxi izan, ondo artuak izango dira beti. Ta eskerrik asko aldez aurretik...

\* \* \*

Itzaurre luze au bukatu baiño leen, azaleko argazkiaz bi itz esan nai nituzke.

Tolosa'ko Jesus Elosegi zanak egiña da, orain ia berrogei ta amar urte, Aia'ko Pagoeta mendian, bertako gurutzea bedeinkatu zan egunean, 1936 urteko Garagarrillaren 21'an.

Olako gizonen aotan loretu oi dira betidanik, bai euskera eta bai euskal esaerak ere.

Euskerarik gabeko Euskalerririk ezin litekela esan oi da. Euskerarik ere ez, nere iritzian beintzat, euskal esaerarik gabe...

A.Z.

(Xabier, 1985, Abuztuak 19.)

## A

1. Ahalaz, edaleari errozu segretu guti.<sup>145</sup>
2. Aarik moztu nai badituzu, San Gregoriotan egin zazu.<sup>87</sup>  
*San Gregorio: maiatza, 25.*
3. Ahamena ezin irets mastekatu gabe.<sup>146</sup>
4. Ahantzi nahi duena oroit da.<sup>142</sup>  
*Antzeko: «Zahar hitz, zuhur hitz», 10 orri-aldean.*
5. Abarrik badago zurriñean, pertza gargar su-gaiñean.<sup>189</sup>
6. Abendoa heze eta hotz, etxeko nausia udan botz.<sup>130</sup>
7. Abendoan, elurra altzeiruz; Urtarrilan, burdinez; Otsailan, zurez; Martxoan, lurrez; Apirilan, urez; Maiatzean, hegalez.<sup>77</sup>  
*Bestetan baiño osoago.*
8. Abendo beroak ez du laborarien moltsarik berotzen.<sup>153</sup>

9. Abendo hotzak bozturik ezartzen labo-  
raria.<sup>137</sup>

10. Abenduan laien, Martxoan laien,  
Maiatzean laien, eta orduan jaien.

*Nafarroa aldetik Uharte-Arakilgo Mikaela  
Uharte amatxi zaharrak ematen zuen arren-  
kura.*

*Ez baitzen lana bukatzen maiatza arterai-  
ño.*<sup>174</sup>

11. Abenduko eguzki txuriakin eta ostatu-  
ko neskatx ederrakin ez piatu.

*Andoain.*<sup>11</sup>

12. Abenduko elurrak ortz luzeak ditu.<sup>11</sup>

13. Abenduko izarrarekin eta ostatuko nes-  
katxa ederrarekin, ez fiatu geiegi.<sup>33</sup>

14. Abenduko lainoek hegua edo elurra.<sup>174</sup>

*Antzeko bat: Refranes y sentencias, 1596  
liburuan.*

15. Abendu laiño lanbrutsuak sagar asko  
ekartzen du.<sup>11</sup>

16. Abendu legorra, urte ugaritsua.<sup>11</sup>

17. Aberatsak ere hil mihise bakarra  
aski.<sup>148</sup>

18. Aberatsaren zurubia, labana da.<sup>184</sup>

19. Habil, habil! Habilen bideak lehertuko  
dik.<sup>195</sup>

20. Abilena, bide xuxena.<sup>138</sup>

21. Abogaduaren emaztearen otoitza: Jau-  
na, ezetzari eta baietzari eman indarra.<sup>54</sup>

22. Aboztua udatiartsu, omore ona badu-  
zu.<sup>133</sup>

23. Adar igarrak guztiok ditugu.

*Akatsik gabekorik iñor bai ote...?*<sup>123</sup>

24. Adiñ onean netorren, baña ezer ez ne-  
karren.<sup>67</sup>

25. Adar ukaldirik emaitekotan, adarduna-  
ri emok.<sup>164</sup>

26. Adimendua eta zentzua elgarrekin uz-  
tar balite!<sup>145</sup>

27. Adiñeko mirabe prestu, edozertarako  
gertu.<sup>189</sup>

28. Aditzaile onari hitz guti.<sup>114</sup>

29. Aditzalle onari, izketak urri.<sup>7</sup>

30. Aditzen baduzu ortzia urtarrilean, bo-  
tazkitzu barrika guziak ungarri metaren gai-  
nerat.<sup>137</sup>

31. Adiskidetuko da gatza loratu orduko.<sup>182</sup>

*Gauza andirik ardura eztauskunen bat  
asarratzen danian erabiltzen da esakun  
ori.*<sup>182</sup>

32. Adixkidea eta arnoa: zaharrago eta  
hobe.<sup>166</sup>



33. Adixkideak aiseago konda ditazke ardiak baino.<sup>137</sup>

34. Adixkidea noiz nola haurridea baino hurbilago.<sup>167</sup>

35. Agindua, eman arte zor.<sup>22</sup>

*Antzeko: J.Elissalde, Gure Herria, 1936.*

36. Agorrila dena besta, moltsari ongi gosta.<sup>143</sup>

37. Agorrila dena pesta, ostaleren lehen uzta.<sup>133</sup>

38. Agorrila lantsu, selaurua betetsu.<sup>134</sup>

39. Agorrilean bidez bahoia, ereman hirekin ekitakoa.<sup>129</sup>

40. Agorrilean loa labur ala urtea xuhur.<sup>131</sup>

41. Agorri-erdiko uri, kalte gaitza hurreri.<sup>130</sup>

42. Agoztuko lenengo eguna nolako, hiltza halako.<sup>174</sup>

43. Agure makurtua, neketan urtua.<sup>189</sup>

44. Aguztuaren erditik aurrera eguna moztu, eta elbiak zorroztu.

*Gabiria'tik.*<sup>174</sup>

45. Ai Maria! Ortzik ez dunak ogi-mamia.

*Saldias, N.*<sup>197</sup>

46. Ai, Martxo, Martxo, ne(re) ardiyak etzioztek oso txartxo!<sup>198</sup>

47. Ainarak mehe, tropan dabilzala-  
kotch.<sup>146</sup>

48. Ainitzek bertzen garizumaz beren  
ihautiriak egiten.<sup>155</sup>

49. Hainitz mintzatzea baino zuhurrago da  
xuxen mintzatzea.<sup>148</sup>

50. Ajolik gabeak, etxez-etxeke mira-  
beak.<sup>189</sup>

51. Airean ttu egiten duenak, ttua biltzen  
du sudurretan.<sup>195</sup>

52. Aiseago da diru xahutzea ezen ez ira-  
baztea.<sup>148</sup>

53. Aita alperraren umik, (Aita alperraren  
umeak), ogi gutxi eta griña asko.<sup>198</sup>

54. Aita-amen estimua beti beranxka zaiku  
jiten.<sup>147</sup>

55. Aita guria zeruetan, ama guria gorue-  
tan, bihar ez dan orduetan.<sup>177</sup>

*Antzeko: Azkue 212.*

56. Aita kanpotik danian, gogorrena nagosi  
etxian.<sup>15</sup>

57. Aitak (Attak), ortzak eroi (erori) ta be-  
rriz ateriyak ttu (atereak ditu).<sup>199</sup>

58. Aitak partillia ta amak giltza.<sup>105</sup>

59. Aita langilea zuena.

*Alferra, alegia.*<sup>195</sup>

60. Aita lenago erori uan, i baño.<sup>12</sup>
61. Aitaren hitzak amaren zartak baino larderia gehiago.<sup>165</sup>
62. Aita San Frantzisko, liñoa orri biko.  
*Aita Julian Alustiza'ren amak, Aztirian.*<sup>174</sup>  
*San Frantzisko eguna: Urria, 4*
63. Aitatu zan eta agertu zan.<sup>25</sup>
64. Haitzak hausten ditu emaitzak.<sup>114</sup>
65. Aitzakia eske dabilanak beti atxemaiten.<sup>117</sup>
66. Haixia otza eta denbora monua, ixilik gotea obe gu bezelakua.  
*Barriketa larregi eiten dunagaitik esatenda. Bergara, G.*<sup>197</sup>
67. Aixu, Juaniko, au da munduba: sardinburua baño, obe da ollua.<sup>182</sup>
68. Aizeak, urak eta suak bromarik ez dute.<sup>7</sup>
69. Aizeari egin tuak bisaia zikintzen.<sup>146</sup>
70. Haize beltz, haize xuri, nork ikusi dio kolorerik haizeari?<sup>153</sup>
71. Aize-hegoak, dena zain, eror arazten gaztain.<sup>140</sup>
72. Aizkoraz egin eta aizkoraz galtzen da zugaitza.  
*Itxaso.*<sup>11</sup>
73. Akabatu dira orren zer esanak.<sup>9</sup>

74. Akerrak, adarrak okerrak.

*Gogo gaiztua edo argala daunarengandik,  
gaiztakeria ta argalkeria besierik ezin itxaro  
daikela esan nai dau.*<sup>180</sup>

75. Akerrak baratzen, auzokoak dantzatan.<sup>189</sup>

76. Akerraren adarra baino gogorrago.<sup>195</sup>  
*Errukirik ez duena.*

77. Akilla'ko intxaurrak zarata asko,  
Antxubixa'kuak nausi.<sup>105</sup>

78. Akulua orratzari anaia.<sup>139</sup>

79. Alaba bakar-azia, etxerako gerra bizia.<sup>189</sup>

80. Alaba bakarra eta gaztaiña bakarra galdu eitten ei die.<sup>110</sup>

81. Ala bada, sar dedilla kalabazan; eta, ala ez bada, agertu dedilla Bitori'ko plazan.  
*Eztabaida buka dedin esan oi da.*<sup>54</sup>

82. Hala-beharra beti denen nausi dago.<sup>120</sup>

83. Alargun ala alarguntsa, teitalu gabeko egoitza.<sup>151</sup>

84. Alarguna, teitalu gabeko etxe bat da.<sup>146</sup>

85. Aldaizearen etorrerea, kolore arrea.  
*Euri kolorea zuela adierazi nahi zen, noski.*

*Gabiria aldetik.*<sup>174</sup>

86. Aldeko arkumea ohea da urrutiko ardia baiño.<sup>9</sup>

87. Aldibengo negarra, ogia bezain bearra.<sup>189</sup>

88. Aldi ona ez itzultzen.<sup>152</sup>

89. Al duanak al duana, munduko legea.<sup>38</sup>

90. Al dunak al duna egiten du.<sup>72</sup>

91. Alegrantzia sanao, bertute.<sup>138</sup>

92. Alerik ez duan sagarrari, arririk ez.<sup>11</sup>

93. Alfer egoteko, alfer izan behar.<sup>185</sup>

94. Alferkeriak akitzen, pausuak pixkolatzen.<sup>153</sup>

95. Alferrak, bi lan.<sup>45</sup>

96. Alferraren leloa, geroa.<sup>114</sup>

97. Al izateak baiño, nai izateak geiago egiten du.<sup>70</sup>

98. Allegatuko zaio bere San Martin.<sup>9</sup>

99. Alpargatak urratuta zapatarik ez, eta oiñutsik ibiltzeko gauza ez.<sup>123</sup>

100. Alper da Maria makillatu, ezta berdin zentzatu.<sup>14</sup>

*Antzeko: Azkue 125, Inza 155.*

101. Alperkerija, negar askoren ama.

*Alperkeritik, kalte andijak sortu oi dirala adirazoten dausku.<sup>180</sup>*

102. Alper langille, galeraingille.<sup>9</sup>

103. Alperra, beti nekatua; mozkorra, beti egarriak.<sup>10</sup>

104. Alperraren atxurra erdoiak jan.<sup>52</sup>

105. Alperraren indarrak, aularen enpeñoak eta pobrearen arrazoiak, bearreneko garraian kale.<sup>52</sup>

106. Alperraren pekatua, lan egin gabe nekatua.<sup>16</sup>

107. Alperrik Marija makillatu; berez biar dauz bere kondiziñuak.<sup>25</sup>

*Antzeko: Azkue 125, Inza 155.*

108. Alper, sekula ez alber.<sup>105</sup>

109. Altxatzen den gauza, urre biurtzen da.<sup>198</sup>

110. Alua ta putia, amaren ultza ta kurutzia.<sup>105</sup>

111. Amabiak! Atera eltzetik aragiak!<sup>64</sup>

112. Amabiak! Eltzearen agoniak!<sup>64</sup>

113. Amabiyak! Plateran bi begiyak! Amabiyak! Bota beste biak! Amabiyak! Orra plateran lau begiyak!<sup>198</sup>

*Bota beste bi zion; biak idatzi degu guk, ala bear dualakoan.*

114. Ama Birjiña Abenduko, argitu orduko illunduko.<sup>24</sup>

*Antzeko: Azkue, 1635; Inza, 1097, 1715; Ormazabal 14.*

115. Ama Birjina, girixtinoen Erregina.<sup>136</sup>

116. «Ama Birjina Martxoko lora, larrabehia mendian gora» esaten omen zuen nagusiak. Larrabehiak, ordea, eskarmentu izaki, honela erantzun omen zion: «San Markos noiz da? Artean ere goiz da».

*Matxinbenta aldetik.*<sup>174</sup>

117. Hamabortzeko euriak hurrak suntsitzen.<sup>137</sup>

118. Amaika amaika modutako baziok mundu onetan.<sup>13</sup>

*Baita ere: Amaika amaika modutako bagaituk mundu onetan.*<sup>12</sup>

119. Hamarrak, katuaren maramarrak! Hamaikak, zakurraren lukainkak! Hamabiak, platerean begi biak!<sup>197</sup>

120. Ama itzontzi, alaba putzontzi.<sup>189</sup>

121. Amaizuna, urrezkoa bada ere, ez duk ona.<sup>80</sup>

*Antzeko: Oihenart, 24.*

122. Amalaura ezkerro, erdia zazpi.<sup>183</sup>

123. Amar kilo gatz jan behar da elgarreki-lako, itzulikoen ongi ezagutzeko.<sup>155</sup>

124. Amatik Bazkoz semetxiari marrukua.<sup>139</sup>

125. Amentsetarik aintzurtzen ari denak eztu hezurrik hautsiko.<sup>157</sup>

126. Ametsa gogoaren igande.<sup>151</sup>

127. Ametsek askotan gure griñen kolorea dute.<sup>145</sup>

128. Ametsetan jausten danak, eztau azurrik austen.

*Ames-bidez lan andijak egin eta irabazi andijak lortuten dauzanak, eztaula ezetaiko onurarik eskuratzen.*<sup>180</sup>

129. Ametsetan pentsatzen dana, geienetan gezurra.<sup>12</sup>

130. Amiltzean harria ez da gorolditzen.<sup>120</sup>

131. Amodio zintzorik ez da errespeturik gabe.<sup>141</sup>

132. Amonak daka oaiñ e kierretik zar-taia.<sup>199</sup>

133. Amorantearen arima gorputz arrotzean bizi da.<sup>142</sup>

134. Amorosaren zinak iduri du ostalerarena: berme txarra du.<sup>142</sup>

135. Amorroina, kilikatuz biltzen da.<sup>142</sup>

136. Anbotok txanua jazten badau, eurixa laster.

*Arantzazu aldetik.*<sup>174</sup>

137. Andi bezin asto.



*Norbait soñez andija ixan arren jakituri gitxikoa edo astakilla samarra danian, ordu-bantxe esan oi da esakun ori.*<sup>179</sup>

138. Handikeria noiz edo noiz lilitzen. Baiñan sekulan ez bihitzen.<sup>116</sup>

*Antzeko: Oihenart, 619.*

139. Andiz putzitu ta gosez urketu batzuk egiten dira.<sup>13</sup>

140. Andra Maixa Martiko, ordurarte udia taktiko, eta handik aurrera betiko.

*«Andra Maixa Martiko» Martxoaren 25a da. Ordurarte udia «taktiko» dala diño. Aldi-ka bai eta aldika ez, esan nahi dau.*<sup>110</sup>

141. Andra urenak etxia laujatugiño daroa betatu.

*Edo: Andra zinduak (piñak) etxia tellaturaiño betetan dau.*<sup>92</sup>

142. Andreak ezkontzean kuidado bat uzten du; milla artu.

*Lasarte,*<sup>11</sup>

143. Andrea, sua ta itxasua, iru galbide.<sup>179</sup>

*Antzeko: Refranes y sentencias, 1596, 135.*

144. Andrea ta arbi-azia, goitik ekarri.<sup>39</sup>

145. Andra Mari Martikoz agertu zan kuku; San Pedro Bagillekoz martxau egin jaku.<sup>92</sup>

146. Andre askori lanjerra leihotik.<sup>148</sup>

147. «Andre-dena Mari Martxoko, gure behia larrean aseko». Idiak ikuillu baztarretik erantzun: «Muuu! Gero duk Erramu».

*J.M. Satrustegi'k bildua.*<sup>174</sup>

*Antzeko: Azkue 9, Inza 2420, 2421.*

148. Andre ona, itxeko ixpillu.<sup>198</sup>

149. Andre otza, etxerako lotsa; andre be-roa, zerbaiten esperoa izan leike gero(r)a.<sup>39</sup>

150. An ere izango dituk galtzak bete ipur-di.<sup>52</sup>

151. Anjelus... Senarrik ez duena maluros; eta duena ez beti uros.<sup>185</sup>

152. Anakak ariñak, burua ariñago, zer gerta zai nago.<sup>123</sup>

153. *!Antes, antes!* Lehen guti eta orai batez.

*Zer egin batera berandu iritxi.*<sup>195</sup>

154. Antxoarik ez da ganoraz agertzen, santuak kalez kale ibili baiño len.

*Aste Santuko prozesiñoak baiño len, alegia.*<sup>104</sup>

155. Antxume bakarti, tegian negarti.<sup>189</sup>

156. Antzar elbarria, arrautz-jale garbia.<sup>189</sup>

157. Ahoa bero eta sabela huts.<sup>195</sup>

158. Ahoa mintzatzen da bihotzaren betetik.<sup>154</sup>

159. Aho batetik jalia mila mihitan erabilia.<sup>146</sup>

160. Aho hetsian ez da nehoiz fitsik sartu.<sup>120</sup>

*Antzeko: Azkue 318, Inza 2417, Ref. 1596 123.*

161. Ao itxiin ezta elbirik sartzen.<sup>11</sup>

162. Aotik igarri, biotzean zer duen egarri.<sup>58</sup>

163. Apaingarri ederrak jarri arren, astua beti asto.<sup>182</sup>

164. Apaizak egiten dutena egin, ez esaten dutena; eta medikuak esaten dutena egin, ez egiten dutena.<sup>86</sup>

165. Apaiza ta lurra, eman gabe ez dira engañatzen.<sup>37</sup>

166. Aparra ta bitsa, anai-arrebak.<sup>105</sup>

167. Apirilla aizetsubak nekazaria poz-tutzen du.<sup>191</sup>

168. Apirila fan eta maiatza gero, agoztegian agotza bego.<sup>196</sup>

169. Apirilak bere hotz uztarra bai; jauntzi arina oraino etsai.<sup>131</sup>

170. Apirila on ikusi nahi duenak, ehun urtez behar du bizi.<sup>129</sup>

171. Apirila hotz, miseria ogi-artoz.<sup>140</sup>

172. Apiril biribil, urdea txerri-tokian il.

*Apirillak badakiela egualdi txarrak egiten eta mixeria ekartzen; eta txerria goseak il zala, zer emanik etzutelako.*<sup>23</sup>

*Antzeko: Inza, 105, 194; Elissalde, Gure Herria, 1936.*

173. Apirilean ihinzte, ogi-urte.<sup>131</sup>

174. Apirillean iñusturia (trumoia) jotzen badu, berri ona da.<sup>191</sup>

175. Apirileko euriak balio du ardi-arkina hoberena.<sup>137</sup>

176. Apirileko lorea, piru bati dago.<sup>137</sup>

177. Apirileko zizea, urrea baiño hobe.

*Gabiria, G.*<sup>197</sup>

178. Apiril hotxpil, gero ogi bil.<sup>133</sup>

179. Apo haundiak, apo txikia irentsi.<sup>185</sup>

180. Arakiñaren etxean okela, mariñelaren maian berdela.<sup>104</sup>

181. Aralarrek tokilla jantzi dik eta euria izango diagu laister.

*Aztiria aldetik.*<sup>174</sup>

182. Arantza zuria loran dago, arto egiten giro dago.

*Gabiriako Aztirian ziotena.*<sup>174</sup>

183. Araotz, garirik ez eta galaots.<sup>45</sup>

*Galaots, gariaren buruko lastoa da. Araotz, berriz, Oñati'ko ballara bat.*

*Antzeko: Azkue, 1628.*

184. Arbaso hilak eraile, gu uzten biltzale.<sup>143</sup>

185. Arbi-loreak irten, zekorrak (txalak) saltzeko sasoi egokia.<sup>123</sup>

*«Txekorra saldu» Pazkoakoa egin aurreko konfesioari esan oi zitzaion; arbi-lorea atera oi dan garaiko egitekoa, alegia.*

186. Arbi-loreak, Pazkoazkoa egiteko garaia.<sup>39</sup>

187. Arbiloreko, aal bada geroko.<sup>189</sup>

188. Arbola fruitutik dugu ezagutzen.<sup>120</sup>

189. Arbola lurraren jauntzia: kasu lur gaxoa buluz, oihanak suntsituz.<sup>148</sup>

190. Arbola txikijari, edozein umek orrija kendu.<sup>15</sup>

191. Arbolik bajuenean egurra egiten da.<sup>9</sup>

192. Ardiak izan kulpa, eta bildotsak paga.<sup>9</sup>

193. Ardiak marraka egitean ahamena galtzen.<sup>153</sup>

194. Ardiak urruti nai duen barruti.<sup>16</sup>

195. Ardi antzua, beti bildots.<sup>9</sup>

196. Ardi antzu mengela, artalderako pardela.<sup>189</sup>

197. Ardiaren utsak, pagau bildotsak.<sup>18</sup>

*Antzeko: Azkue, 341.*

198. Ardia zintzarri-jole barrenean, atarian elurra biaramonean.<sup>189</sup>

199. Ardi baten atzetik, beste ardi asko.<sup>123</sup>

200. Ardien pekatubak bildotsak pagau.<sup>25</sup>

*Aldateka bat egin degu: ordaindu zetorren, garbizalekeriz itza trukatuta dudarik gabe, eta pagau idatzi degu.*

201. Ardi galdua atxeman ditake; aldi galdua ez.<sup>116</sup>

202. Ardita beti ardit.<sup>9</sup>

203. Arditka, arditka, egiten da ontzakoa.<sup>9</sup>

204. Ardi txikia bildots gisan, naiz zarra izan.<sup>16</sup>

205. Ardi-urte, atun-urte.<sup>105</sup>

*Ardi: bizkaitarrez, arkakoso.*

206. Ardi zaragardunak artalde guzia funditzen.<sup>153</sup>

207. Ardoak mugituko ez dunik ez dek.<sup>22</sup>

208. Ardo onak apar gutxi, eta entenditzen eztuanak itz gutxi.<sup>6</sup>

209. Ardo txarrik ez; bat baiño bestea ohea bai.<sup>39</sup>

210. Arek lumatutako olloa jango neuke, lumetxa bildur baga.<sup>13</sup>

*Lumetxa, lumatxa:* primera pluma de las aves, *Azkue'ren iztegian.*

211. Argia itsuaren ondotik.<sup>137</sup>

212. Argi orrekin ori ez dek konpesatzen.<sup>52</sup>

213. Arian arian zetzen da burnia.<sup>201</sup>

214. Aria nolako, arilla alako.<sup>7</sup>

215. Ari bikutza, eteten gaitza.<sup>189</sup>

216. Harilketari, nekeketari.<sup>177</sup>

217. Harilketie ez dok olgetie; zerretie dok olgetie.<sup>177</sup>

*Antzeko: Azkue, 1944.*

218. Ari megatx, eten errax.<sup>189</sup>

219. Aritzak azala ametzak bezela; zarrak eziñ gazteak bezela.<sup>9</sup>

220. Aritzaren zuztarretik pagorik ez.<sup>54</sup>

221. Arkamelu urte, sagar urte.<sup>155</sup>

222. Armiamak bistan dabiltzanean, euria seguro.<sup>39</sup>

223. Armiarma paretean korrika, euria ondotika.<sup>64</sup>

224. Arnoa gizonaren baitan denean, zuhurtzia flaskoaren barnean.<sup>152</sup>

225. Arnoa ontuz doa urtetik urtera.<sup>120</sup>

226. Arotza, argiñen korotza.<sup>13</sup>
227. Arpegira begiratu zer izan litekean.<sup>9</sup>
228. Arraina bil-errexago amoina baino.<sup>137</sup>
229. Arrainak ttipiegiz uzten dituen amia-  
mokoak bareak jan beharko.<sup>153</sup>
230. Arraiña ta barritxuba, aotik galtzen  
dira.<sup>181</sup>
231. Arraiña uretan, txorija aidian, emazte  
zurra etxian.<sup>180</sup>
232. Arrantza gure astoak, erantzun auzo-  
koak.<sup>189</sup>
233. Arratia'n erdera ta Gorbeia'n ireak  
urten ezkerro, mundua galdata jagok.<sup>92</sup>
234. Arratsean besti, ta goizean biluzi.  
*Nafarro aldetik. Gauean, lotarakoan,  
hautspilaren azpian gordetako prasa, bizirik  
egoten zen goizaldera ere, gehienetan; su-  
hazia deitzen zitzaion, eta liho-arbazta zer-  
bait ematea nahikoa zuketzen sua piztu eta  
indartzeko.*<sup>177</sup>
235. Arrazoia, arma soilla.<sup>9</sup>
236. Arrazoina ttipiago, orroa handiago.<sup>150</sup>
237. Arrazoin ez duenak, oihua handi.<sup>142</sup>
238. Arresteluaren ondotik heldu da sar-  
dea.<sup>153</sup>
239. Arret zarret, gure etxea gora dek.<sup>14</sup>



240. Harria heldu duk, tresna gaiztoa duk!  
*Harri erasoagatik, Nafarroako Nabarte herrian.*<sup>174</sup>

241. Arria tira eta eskua gorde.<sup>9</sup>

242. Arriaz buruba jo, naiz burubaz arrija,  
beti buruban zaurija.

*On-ustez naiz txar-ustez, augaitik edo bes-  
tiagaitik oker egiten dan gauzea, oker beti;  
orixe esan nai dau.*<sup>181</sup>

*Antzeko bat: J. Elissalde: Atsotitz, zuhur-  
hitz eta erran zahar, Gure Herria, 1936, IX-  
XII.*

243. Arri bako kamiñoa eta maitasun bako  
ezkontzea, ortxe-ortxe.<sup>176</sup>

244. Arriz pitxarra jo edo pitxarraz arria,  
berdin.<sup>22</sup>

*Antzeko: Inza, 567.*

245. Arroltzeak eta zinak hauts-errexak  
dira.<sup>151</sup>

246. Arroltze bat deus ez, biga ongi, hiru  
aski, lau sobera.<sup>148</sup>

247. Arronkak aundiak, eta egintzak txi-  
kiak.<sup>9</sup>

248. Arrosa den pollitenak azkenean ipur-  
dian hatz.<sup>146</sup>

249. Arrosak, bertze izen bat balu ere,  
usain on bera larioke.<sup>145</sup>

250. Arro utsa, apan utsa.<sup>16</sup>

251. Artalde bakoitzean bildots beltza bada.<sup>64</sup>

252. Artoa, Donienetan zozo; San Pedroetan bela.<sup>13</sup>

253. Artoak, ona izango bada, San Juanetan belea tapatu bear du, eta Santioetan zezena.

*Orduan egoten baita alturarik aundie-nean.*<sup>175</sup>

254. Artoak San Juanetarako zozoa estali behar du. Eta San Pedrotarako belea.

*Matxinbeta aldean honela zioten. «Eta Santiagotarako zezena» esaten omen zuten hor nonbait, kosta aldetik.*<sup>174</sup>

*Antzeko: Inza, 1792.*

255. Artoak tenple bat bera bihar dau beti: ereiten berotan, aziten berotan, jaten be berotan.

*Arantzazuko Sorandietako Pedro Urzelai zaharrak zioena.*<sup>174</sup>

256. Arto-landareak San Juanetan zozua, ta San Pedruetan ollua estaltzen badauz, artua ixango da.<sup>181</sup>

257. Artorik merezi ez luken amaikak, ogia jaten dik.<sup>52</sup>

258. Artu zak izen ona ta egizak lo.<sup>201</sup>

259. Hartza, ez badute estekatzen, ez da dantzatzen.<sup>155</sup>

260. Artzaiak Amezqueta'n ondo bizi dituk.<sup>9</sup>

261. Artzaiak aserratu, gaztak merkatu.<sup>9</sup>

262. Artzaiak elkarrekin burrukan zebiltzan bitartean, otsoa indartu zen mendian.<sup>174</sup>

263. Artzaille bizkor, emalle koxkor.<sup>16</sup>

264. Artzairik bear (Artzayik ber) ezpalitz, ardiyak Donostiko Bulebarrin izango zin.<sup>199</sup>

265. Artzai ta zakur iaioak, ardien ondoan jaioak.<sup>116</sup>

266. Artzai txarrak, ardi erren asko.<sup>52</sup>

267. Artzale baño emole obe.<sup>184</sup>

268. Artzeko poz, emateko otz.<sup>9</sup>

*Antzekoa: Ormazabal 48 or.*

269. Hartzekorik ez bada, esku garbia.<sup>195</sup>

*Antzeko: Azkue 1039; Euskal-Erria aldizkaria, «Euskal Esangiak», 1893.*

270. Artzeko txarra ohea da, zor ona baño.<sup>9</sup>

271. Artzeko ustez egazti andia, ez itxi galtzen eskuko txoria.<sup>18</sup>

272. Ar zak eguneko aragia, atzoko ogia ta

urteko ardoa; ta bigal zak sendakiña kanpo-  
(r)a.<sup>71</sup>

273. Asarre dagoenak, adiskidetzen lana.<sup>63</sup>

274. Asarre ibiltzeak adiskidetu bearraren  
ondorioa du.<sup>123</sup>

275. Aseran lagun asko, luzarorako ka-  
ko.<sup>189</sup>

276. Asetzeko pozez dagoana gosez.<sup>16</sup>

277. Asiak erdi egiña dirudi; baiña «diru-  
di» nork ase? <sup>123</sup>

*Antzeko: Azkue 1968; Inza 1120.*

278. Asiera onak aunitz balio du.<sup>9</sup>

279. Hasi ezkerro neurritzen bidea, akabo  
da jendea.<sup>195</sup>

280. Asko duenak, geiago nai.<sup>64</sup>

281. Asko egin nai, gutxi egin bai.<sup>7</sup>

282. Asko esaten duenak, gutxi egin.<sup>64</sup>

283. Asko jakin nai dubenak, gutxi esan.<sup>9</sup>

284. Asko ikasi nun, asko ikasi nun, danen  
bearra izan nun.<sup>37</sup>

285. Asko ikasteko, gutxi jan.<sup>39</sup>

286. Asko ikusia, asko ikasia.<sup>70</sup>

287. Asko itzegin eta gutxi esan.<sup>9</sup>

288. Asko itz egiten duena, bere aotik  
galtzen da.<sup>64</sup>

289. Asko izan eta geiago nai, ez ote daki norbait badaukala zai? <sup>123</sup>

290. Asko nai dezuna, beti urruti. <sup>64</sup>

291. Asko naiz gutxi jan, iru aldiz edan. <sup>123</sup>

292. Askoren fedea ta abarka zarrakin egindako edea, berdiñak dira. <sup>52</sup>

293. Askoren gaitza burugabekoen atsegiña. <sup>76</sup>

294. Asko santu gisan, baña gutxi izan. <sup>16</sup>

295. Askotan, egunsentiko ederra gaberako ekaitz biurtzen da. <sup>123</sup>

296. Astegun guztiak balira jai! Alperrak ori nai. <sup>109</sup>

297. Aste guztian mañantzika ta igandean aidean dijoa Pantxika. <sup>123</sup>

298. Asterrika'n guzurra esan orduko, Gorozika'ra eldu ta sinistuta. <sup>105</sup>

299. Astoa bere txalmak etzuan erre.

*Andoain.* <sup>11</sup>

300. Astean maiz eder, jaiean kakatsu. <sup>22</sup>

301. Aste guziz bada ostiral bat. <sup>185</sup>

302. Astia (denbora) izan ezkerro, pipiak ere ebaki egiten du egurra.

*Aizkolari txarrentzat iseka.* <sup>52</sup>

303. Astigarraga'ko sagar-jotzalliak bazekitek elkarren berri. <sup>55</sup>

304. Astoa, bide-gidari onena.<sup>53</sup>

305. Astoa illa denean, garagarra buzta-  
nean.<sup>7</sup>

306. Astoak bere majara ezagutzen du, eta  
gizonak askotan ez bere Jaungoikoa.

*Ez da berez esaera zaarra, Bibliakoa bai-  
zik, Isaias'en leendabiziko kapitulukoa,  
Oiartzun'go katekesian apaizak maiz erre-  
pikatzen ziguna. Baina geroztik askotan esan  
oi dana.*<sup>63</sup>

307. Astoak biraoa? Bat, eta bera ostikoa.<sup>64</sup>

308. Astoak eun duket egiteko trazea  
bear.<sup>4</sup>

309. Astoak gatuari: Beharri luze.<sup>155</sup>

310. Astoak on dik artoa, idiak arto-las-  
toa.<sup>189</sup>

311. Astoa makillarengana bezela jarria  
dago.<sup>52</sup>

312. Astoaren aorako ez eztia, baiña bai  
belar bustia.<sup>189</sup>

313. Astoaren arrantza mingabea.<sup>9</sup>

314. Astoaren (Astuan) umeak, astaku-  
meak.<sup>56</sup>

315. Astoari aurrera tiratzen dionak, bera-  
ren antza izango du.<sup>64</sup>

316. Astoari (Astuai) beti arre.<sup>198</sup>

317. Astoari emok kantu ederra, harek egi-  
nen dauk fanfarra.<sup>153</sup>

318. Astoari ezin, arbaldari ekin.<sup>9</sup>

319. Astoa ezta arkakosoa.

*Etxean, astoa galdu ta nausia eske abitu  
danian, etxekoandreak esana. (Azkarate.  
1966).*<sup>171</sup>

320. Astoa saldu eta potxo erosi.<sup>63</sup>

*Antzekoa: Inza 2426.*

321. Astoa zaldiz jantzi arren be, beti  
asto.<sup>62</sup>

322. Asto baten burua garbitzean salboina  
galtzen duzu.<sup>153</sup>

323. Asto gogorrari, akulo gogor.<sup>153</sup>

324. Asto ttipian nor-nahi igaile.<sup>146</sup>

325. Asto zaarrak indarra urri; indarra urri  
ta putza sarri.<sup>189</sup>

326. Asunek jan bier dira lenengo, lasunek  
gero jateko.

*Lasuna, itxas-arrai bat da, kai-inguruetan  
izaten dana, ta jateko aintzat artzen ez dana.*<sup>13</sup>

327. Atariko atea baiño lotsagabeagoa da.<sup>52</sup>

328. Ataritik bota eta leihotik sar.<sup>195</sup>

329. Ateen ateen dendea, kamioak gu-  
rutzauta ta labeen iraurketea, munduun aka-  
berrea.

*Ataun aldetik.*<sup>174</sup>

330. Atia urerako, umea urerako.<sup>9</sup>

331. Atsoa ta agurea asarratu dira, alkarrenak dira eta konponduko dira.

*Ixan be, ezta egoki-egokija senar-emaztien asarrekuntzetan nastutia. Urten lei batek lepobetegaz.*<sup>181</sup>

*Bearbada, esaera zaarra ez, baiña koplarren bat izango da.*

332. Atuste matuste, fotezko torrada barik mai utse.<sup>105</sup>

333. Atxurrak eta palak mudatuko naute.<sup>63</sup>

*Ikus: Auspoa, 114, 115 or.*

334. Atzamarra emon eta besoa artu.<sup>105</sup>

*Antzeko: Inza 1300.*

335. Atzeko anakakaz aurrekoak arrapau ezinda, gure astoa txarto dabil.<sup>15</sup>

336. Atzo atxurra, gaur kirtena.<sup>123</sup>

337. Atzoko gertakariak argi detzagutela biharko bideak.<sup>148</sup>

338. Au da lorra: atso bat euki ta bera gorra!<sup>182</sup>

339. Au ez dek azaren azken orria izango.

*Amak semeari askotan esan oi diona. Azaren azken orria bota egiten baita. Erdikoak balio dute.*<sup>22</sup>



340. Aukerak ugari, egokierak urri.<sup>123</sup>

341. Aundi(y)a aundixko, ttikiya ttikixko ta erdikua ezin.<sup>198</sup>

342. Aundiak beti legez, txikiak beñerez.<sup>16</sup>

343. Aundiak, lan aundiak; txikiak, lan txikiak.<sup>22</sup>

344. Aundiak nai dutena, txikiak al deza-ketena.<sup>98</sup>

345. Haundie banintzen, txikie banintzen, maiatzean buru nintzen; berrogeigarren egunerako oramahien nintzen.<sup>174</sup>

*Aztiria aldetik. Bestetan baño osoago.*

346. Aundi naiz txiki, erortzen dan arria lurrean gelditzen da.<sup>123</sup>

347. Auntza, arri gaiñean jaio eta arri gaiñean bizi.

*Alperrik erriberarik ederrenean jarriko dezu lotuta. Urrengo andik askatzen danean, an dijoa arkaitzetara.<sup>12</sup>*

348. Ahuntza baino lehen joalea.<sup>195</sup>

*Antzeko: Azkue 407.*

349. Auntza dabillen baratza ta andreak gobernatzen dun etxea, berdiñak.<sup>39</sup>

350. Auntzak akarra dirudi.<sup>78</sup>

351. Auntzak bi ume, ta bat amaren iguala.<sup>39</sup>

352. Ahuntzak jan eta jan, estekatu duten lekuan.<sup>148</sup>
353. Ahuntzak iragan diren tokietan, hatzak ageri.<sup>156</sup>
354. Auntzak utzi balegio, akerrak utzi lekio.<sup>9</sup>
355. Auntza larrera.<sup>204</sup>
356. Auntzik ainbat ardi.  
*Berdintasuna adierazteko.*<sup>52</sup>
357. Au pareta: karakola ta bareta.<sup>70</sup>
358. Haurra, egizak nigar, ukaiteko xingar.<sup>146</sup>
359. Haurrak aita-ameri dagotzi beti so.<sup>120</sup>
360. Haurrak eskolara abiatu, bakea etxean sartu.<sup>132</sup>
361. Aurrak eta eroak esaten dituzte egiak.<sup>9</sup>  
*Antzekoa: Azkue 1999.*
362. Aurrak ikasia, etxean ikusia.<sup>189</sup>
363. Haurrak ikusia egiten.<sup>138</sup>
364. Aurra ohea, txotxa baño, laguntzat.<sup>9</sup>
365. Aurrari geldirik egoteko esatea, laro-gei urteko amonari laisterka egiteko esatea bezela da.<sup>50</sup>

366. Hurrek eta zozoek egiak tapalaha-  
rra.<sup>146</sup>

*Antzeko: Azkue, 1999.*

367. Aurrekoak nolakoak, ondorengoak  
alakoak.

*Aurrekuk nolakuk, ondonguk alakuk.*<sup>198</sup>

368. Aurreko iriya atzeko karruk seitzen  
du.<sup>199</sup>

369. Haurren eskolatzea, ongi; heien  
altxatzea, hobe.<sup>144</sup>

370. Aurrerakoa, ikuskizuna.

*Andoain.*<sup>11</sup>

371. Aurrerazka ezean, atzerazka bear.<sup>189</sup>

372. Haurrer hitzemanan, kontratuz errana.

*Bete behar.*<sup>185</sup>

373. Aurretik ongi itzegin, eta atzetik sal-  
du.<sup>9</sup>

374. Auts-eguna, lapak jateko eguna.<sup>105</sup>

375. Hautsek sua iraungitzen, jelosiak  
amodioa hiltzen.<sup>137</sup>

376. Ausarkian mintzo denak irriskatzen  
du ziliporten biltzea.<sup>155</sup>

377. Auzako kaskoan bertza, bier denbora  
beltza.<sup>88</sup>

*Auza, Baztan'go mendi bat da.*

378. Auza'ko kaskoan lano, bier denbora bano.<sup>88</sup>

379. Auziaren ondorenean, galtzen duana larru gorrian eta irabazten duana alkandora utsean.<sup>54</sup>

*Antzeko: Azkue 2008.*

380. Auzi luzea baño, oker txikia obe.<sup>201</sup>

381. Auzoan danak ondo; etxean gaizki.<sup>39</sup>

382. Auzokoaren agiñeko miñagatik, errex jan.<sup>10</sup>

383. Auzoko ogia beti gozoagoa izaten da.<sup>175</sup>

384. Auzoko umeak bereala azitzen dira.

*Usurbil'ko Urdaiagalde'ko Portu'tar Joxe Joakiñi entzuna, 1930 aldean.*<sup>125</sup>

385. Axeriar kobesatzen dena, laster urrikituko da bere aitormenaz.<sup>117</sup>

386. Axeria sermoiketari denean ari, gogo emak ire oilloari.<sup>68</sup>

387. Axeri zaarra beti goiztar, goiztar eta oiñak azkar.<sup>189</sup>

388. Aza, berdin tripan edo bizkarrean.<sup>64</sup>

389. Aza-burua loretu? Zerri-puxkak urritu.<sup>189</sup>

390. Azak berea kirtena, eta aritzak bere arikoa ezpala.<sup>9</sup>

391. Azak ura du, patatak lurra du, gaztai-  
ñek zure du,  oietatik nahikoa janda ere,  
baru du.

*Nafarroan Dorrao aldetik.*<sup>174</sup>

392. Azala, Jainkoak bedeinka dezala.

*Umeak ogi-azala eskatzen dutenean esan  
ohi da, eta ez eman. Gabiria, G.*<sup>197</sup>

393. Azariari illea joan, ba a gri arrik ez.<sup>10</sup>

*Antzeko: Azkue 391.*

394. Azariak esan zuna: Euria atertu ezke-  
ro, arbol azpitik alde.<sup>39</sup>

395. Azaroa, Azaro, egin eta itxaro.

*Saldias aldetik. Garia ereiteko garaia Aza-  
roan baita.*<sup>174</sup>

396. Hazaroan ortzia, urte onaren mentu-  
ra.<sup>137</sup>

397. Azentziyo eguneko ebiya, edena (be-  
nenoa) bezelakoa da.<sup>192</sup>

398. Azeria abilla da, emazte maitalia abi-  
llago.<sup>182</sup>

399. Azeria eta otsoa dira ballera bate-  
koak.<sup>14</sup>

400. Azeriari ez fida.<sup>148</sup>

401. Azeria, uliak juanda be azeri.<sup>25</sup>

402. Azeri azartubak ollua darua.<sup>25</sup>

403. Azia katilluka, uzta imi aka.<sup>189</sup>

404. Azia ezpada ereiten, landarea ezta sortzen.<sup>45</sup>
405. Azi da lolloa, nola belar gaiztoa.<sup>14</sup>
406. Hazilean oroit hilez eta heien kontseiluez.<sup>131</sup>
407. Hazileko otoitzak, hiler buruz bihotzak.<sup>134</sup>
408. Hazitik bihia, zotzetik ziria eta askotan haurren ahotik egia.<sup>117</sup>
409. Azitik dator landara.<sup>2</sup>
410. Azitik ozie, Karmengo glorie.  
*Erraten da aur bat minbresa delarik, milindre. Etxeko amatxi, aitetxi edo etxeko zaharren batek erraten dio hori aurrari, hunen ama aur-denboran berdin-berdiña zelakotz. Esaera hunek badu bere mamia: alegia, azitik datorrela ozie (germen), eta holaxe aurra ama bezala. «Karmengo glorie» deus ezta, baiñan esaera osatzeko da, bertsoan eginez.<sup>89</sup>*
411. Azitik uzta, ereintzak ez gasta.<sup>140</sup>
412. Azi txarrak ez diro eman uzta ederrik gero.<sup>135</sup>
413. Azkar eldu nai badok, astiro juan.<sup>184</sup>
414. Azkarren arrazoina da beti hobea.<sup>120</sup>
415. Azken datorrenak, ar beza.<sup>9</sup>

416. Azkenengo esan bearrekoa lenbiziko esan.<sup>54</sup>

417. Azkor datorrena, senidetan gazteena.<sup>189</sup>

418. Azkue'ko idiarena: era bat jan, era bat edan.<sup>64</sup>

419. Azkurririk jan gabeko zerria, gailuuts erdia.<sup>189</sup>

## B

420. Bada iguzki-aldi txarrik ere.<sup>141</sup>
421. Badaki zein egunetan zein soineko jantzi.<sup>195</sup>
422. Bahe ederrenak ez du urik atxikitzen.<sup>150</sup>
423. Bagendu zerekin, badakigu nola.<sup>54</sup>
424. Bagoazke oatzera, goizean jeikiko ardatzera. Gauden oatzean, astia degu arratsean.<sup>189</sup>
425. Bai hasi eta bai ase.<sup>195</sup>
426. Baigorri'ko Txantxalan, etxean jan eta kanpoan lan.<sup>9</sup>
427. Baiño, euria danean laiño.<sup>59</sup>
428. Bai tokau be astuai polaiñak.  
*Basarritarra izan eta pajaritiakin ikusten bazaittue, hoixe esango dotsue.*<sup>110</sup>
429. Bakarrik ezin danean, laguntza eskatzea ez da lotsa.<sup>123</sup>



430. Bakea, erosi beharrik ez, zer gauza ona!<sup>145</sup>
431. Bakea, zaharren esnea.<sup>151</sup>
432. Bakoitza bere era danok bizi gera.<sup>16</sup>
433. Bakoitzak bere pentzeari ur ematen dio.<sup>185</sup>
434. Bakotxak berea bear dau.<sup>200</sup>
435. Bakotxak bere bergaz bertzeak neur-tzen ditu.<sup>9</sup>
436. Bakotxak bere zortia karreiatzen du.<sup>124</sup>
437. Bakotxari berea ta Kristori arimea.<sup>3</sup>  
*Azkue'k 1526 eta 2057'an baiño osoago.*
438. Baleoko errotan iriñik ez, agiñak amostu beldurrik ez.<sup>189</sup>
439. Baleo ta balitza, elkarrekin da-biltza.<sup>189</sup>  
*Antzeko: Azkue 2048.*
440. Balitz eta bazan, biak alkarren ka-zan.<sup>104</sup>
441. Balitzko esneakin ezin gosaldu.<sup>45</sup>
442. Baltsio-tokiya, emakume amorratuen periya.<sup>26</sup>
443. Bapo jan-edan ondorengo bidea askoz luzeagoa da.<sup>123</sup>

444. Baratzako etsairik aundienak, etxeko oilloa ta auzoko mutilla.<sup>35</sup>

445. Bargan hostoa erditik gorri hasten de-  
nean, hiru egunez denbora txarra.<sup>196</sup>

*Barga, Urbasa mendiko ipar aldeko hegala-  
lari esaten zaio.*

446. Barikuko trumoiak, bederatziurrena.<sup>3</sup>

447. Barrandaria muku biltzale.<sup>117</sup>

448. Barri guztijak eder dira.

*Edozer gauza, barritan eder iduritzen ja-  
kula, naiz-eta geruago txar-erexi.*<sup>180</sup>

449. Barrikaren arabera uztaiak.<sup>189</sup>

450. Barrika txarretik, ardo on gitxi.

*Notizi gaizto batengandik, gauz onik ezin  
daikela itxaro, adirazoten dausku esakun  
onek.*<sup>179</sup>

451. Barritan, galbaian be ura; zarretan,  
barriz, galdaran b'ez.<sup>15</sup>

452. Barrutiko zaldiek zintzarri ixilla, gero  
eta lodiago elurraren mailla.<sup>189</sup>

453. Barur egonez norbait noiz zaitzu  
arraildu?<sup>120</sup>

454. Basa-porruak loratzera, artantzuak la-  
rratzera.<sup>189</sup>

455. Basarri txarrak, errota urruti.<sup>9</sup>

456. Basa-txitoak basora larra-bide.<sup>189</sup>

457. Baserritarrak, lau golpetatik hiru alperrik; ta laugarrena, erdia beñepein besteentzat.

*Arantzazu, G.*<sup>197</sup>

458. Baserritarrak oiloa hazten, hiritarrak jaten.<sup>137</sup>

459. Baserritarra tirri-tarra, jo popan da erre kara.<sup>104</sup>

460. Basoko egurra gaur nerea; biar edozeiñena.<sup>64</sup>

461. Bata bestearnak esanez konfesio onak.<sup>35</sup>

462. Batasunari darraiko indarra.<sup>48</sup>

463. Bat, bi, iru, lau, txakurrak buztana altza dau. Bost, sei, zazpi, zortzi, katuak ezpanak igortzi.<sup>104</sup>

464. Bat (Ume bat) dunak, pena bat; ta asko ditunak, pena asko.<sup>198</sup>

465. Batean erori, bestean jeiki, bitartean ez dabil gaizki.<sup>189</sup>

466. Batek aida ta besteak esti, orrela nola irabazi?<sup>123</sup>

467. Batek arrosaren kolorea maite, bertzeak usaina.<sup>148</sup>

468. Batek balio litzake milla; bai ere millak baterez.<sup>57</sup>

469. Batek eztuana, besteak bear du.<sup>9</sup>
470. Batek nai ezpadu, bi ez dira aserretuko.<sup>12</sup>
471. Batekoz beste, kukua euri eske.<sup>189</sup>
472. Baterez baño obe dira ogei milla duro.<sup>12</sup>
473. Bat esan eta bestea egin, nola asmatu orrelakoekin?<sup>123</sup>
474. Bat ona oba da bi txarrak baiño.<sup>2</sup>
475. Batutzallia, geienetan banatzalle.<sup>25</sup>
476. Bat zenbat eta ohea, arentzako pisurik aundiena.<sup>64</sup>
477. Batzuek azaro, besteak uzta oro.<sup>9</sup>
478. Batzuek fama eta besteak izana.<sup>9</sup>
479. Batzuk egiten dabe eskoiegaz emon da ezkerragaz batu.<sup>13</sup>
480. Batzutan asarre, beste batzutan bake, azkenean denok adiskide.  
*Urdiain, N.*<sup>197</sup>
481. Bazkalondoan kafea ona da bazkari onaren dijiritzeko eta txarraren erremediatzeko.<sup>89</sup>
482. Bazko, zer boketa arimendako!<sup>136</sup>
483. Bazterrera begira izketan ari denak, ez zaitu maite.<sup>64</sup>

484. Bear-bearrean ikasten da oñez.<sup>31</sup>
485. Bear ditu urte-mordoak lagun onak eta ardoak.<sup>16</sup>
486. Bear ez dan lekuan gauza.<sup>39</sup>
487. Bearko egon, ezin da ibilli ta.<sup>52</sup>
488. Beharra ez dago denbora ederraren haiduru.<sup>152</sup>
489. Bearrak asko laguntzen du.<sup>64</sup>
490. Beharrak atxoa ere kurri-arazten lasterka.<sup>148</sup>
491. Bearrak bakartu, bearrak elkartu.<sup>189</sup>
492. Bearrak begiak gorri.<sup>169</sup>
493. Beharrak legerik eztu.<sup>152</sup>
494. Bearrena falta.<sup>70</sup>
- Bidasoa'z ipar aldean: Beharrena eskas.*
495. Beharrik gabe erosia beti karioegi.<sup>152</sup>
496. Beharri luzeak beharriak motzak dauzka.<sup>146</sup>
497. Beartsubarekin errukitzia ondo da, laguntzia obeto.<sup>180</sup>
498. Beartsu bizi baaiz, aberats ilko aiz.<sup>16</sup>
499. Beartsuen ugaritasuna baño, aberatsen urritasuna geiago.<sup>15</sup>

500. Bear zaitut eta geldi zaite, bear etzaitut eta ken zaite.<sup>61</sup>

501. Beatza ikusi eta arra kontatu.<sup>9</sup>

*Antzekoa: Inza, 1300.*

502. Begietan bada izpiritu, arima eta gorputz.<sup>151</sup>

503. Begietatik urruti, biotzetik urruti.<sup>64</sup>

*Antzeko: Azkue 1010, 2150.*

504. Begiitsuak negarrik ez; ao itxira elbirik ez.<sup>189</sup>

505. Begirauzu bero-ustez erre.<sup>148</sup>

506. Begitarte ederra, ixilikako gezurra.<sup>137</sup>

507. Begitik urrun, biotzetik urrunago.<sup>182</sup>

*Antzeko: Azkue 1010, 2150.*

508. Beiak: Amabirjine Martxoko, beia larrean aseko. Idiak: Nik beiteiko zokotik Erramuei beldur.

*Baita ere: Idiak beiteiko zokotik: Nik Apirilei beldur, ez ote inen zizerkora ta elur.*<sup>88</sup>

*Inza 2112 baiño osoago.*

509. Behiak erran omen zuen: «Ama Birjina Martxoko, behia larrean aseko». Idiak, ordea, ikuilu zokotik erantzun: «Nik Apirilei beldur, ez ote duen inen zizerkora (txingorra) eta elur».

*Baztan aldetik.*<sup>174</sup>

*Antzeko: Azkue 9, Inza 2420, 2421.*

510. Behiak ez daki zer balio duen buzta-  
nak, galdu-ta baizik.<sup>153</sup>

511. Behiak ixil-ixilik badaude, laister egu-  
raldi txarra.<sup>109</sup>

512. Behi beltzak esne xuria.<sup>137</sup>

513. Beien atzetik gurdia.<sup>11</sup>

514. Bei biren esnea, pazia betea.<sup>9</sup>

515. Bein asten danean, jarraitu egiten du  
gaitzak.<sup>38</sup>

516. Bein bai, baño berriz ez; ardo onak  
urik ez.<sup>11</sup>

*Antzeko: Azkue, 1290.*

517. Bein ere ez jolastu mandoaren  
atzean.<sup>64</sup>

518. Beira tellatua badezu, auzoari arrika  
eztegiozu.<sup>7</sup>

519. Bekokiadunak hiriak beretzen.<sup>116</sup>

*Antzeko: Refranes y Sentencias 1596, 66.*

520. Belar berri, aratxearen goxagarri.<sup>153</sup>

521. Belar egiteak gantza urtzen, andereak  
edertzen.<sup>132</sup>

522. Belar gaiztoak zazpi aien, bat-  
bestearen gailen.<sup>189</sup>

523. Belarrak emanago, bertze uztek gutia-  
go.<sup>134</sup>

524. Belarria besteri kilikatzea, da bide txarrean jartzea eta gaitz egitea.<sup>7</sup>

525. Belarri batetik sartzen ta bestetik ir-tetzen.<sup>14</sup>

526. Belar-urte, ez da maiz sos-urte.<sup>131</sup>

*Antzeko: Azkue 1670, 2111.*

527. Belar-zelaientzat, simor-errañu bat baño, elur egin-aldi bat obia.<sup>11</sup>

528. Belatxak, hartua delarik, ez zalapartarik.<sup>153</sup>

529. Beldur denaren ezpatak punta motz.<sup>158</sup>

530. Beldurtiarentzat uli guziak lespada.<sup>153</sup>

531. Belea etxen haz azu, begiak errotik eginen dauzkitzu.<sup>153</sup>

*Antzeko: Inza 1835.*

532. Beleak ez balu egiten karrankarik, hili-likia beretako luke osorik.<sup>168</sup>

533. Belea polliki altxa zazu, begiak errotik eginen dizkitzu.<sup>168</sup>

*Antzeko: Inza 1835.*

534. Belearen arrautzak usakumerik ez.<sup>70</sup>

535. Belearen kumea, belea beti.

*Luzaide N.<sup>197</sup>*

*Antzeko: Inza 2003.*



536. Beleari ere eder zaio bere boza.<sup>137</sup>
537. Beltz guziak ez dira beleak.<sup>9</sup>
538. Belu dabillenak, maipian bazkarija.<sup>179</sup>
539. Behorra barrukitik joan-eta, berantegi da atearen zerratzeko.<sup>154</sup>
540. Beorrak kumeari ostiko, ez dio kalterik egingo.<sup>7</sup>  
*Antzeko: Oihenart 76, Azkue 414, 423.*
541. Beorrak ume bat urtean; sarriago kaltean.<sup>16</sup>
542. Beorraren ostikadak ez du zaldirik iltzen.<sup>12</sup>
543. Beorretan eta erleetan diru asko ez jarri.<sup>54</sup>  
*Onela ere bai: Erleekin eta beorrekin, interes dena ez arriskuan jarri.<sup>126</sup>*
544. Benta ohea, gauza bañon.<sup>9</sup>
545. Berak esan eta berak barre, arinaren seinale.<sup>195</sup>
546. Berak guratako gatxik, iñok eztau.<sup>182</sup>
547. Berak jan eta berak lan.<sup>7</sup>
548. Berak lotsik ez ta besteri eman.<sup>82</sup>
549. Berak saka eta berak errefera.<sup>185</sup>  
*Berak sakea eta berak errestoa.*

550. Berandu jeikitzen bazera, egunaz lanak atzera.<sup>189</sup>

551. Berbeak dakar berbea.<sup>200</sup>

552. Bere arrazako lehena izaitea hobe azkena baino.<sup>137</sup>

553. Bere burua abiltzat daukana enganaerrea da.<sup>146</sup>

554. Bereen antza duenari, on degiola ari.<sup>14</sup>

555. Bere jotzeko makila berak eman.<sup>154</sup>

556. Bere kaiola sustengatzen duen xori bakarra, arima da.<sup>146</sup>

557. Berek pozoindatu duten herriaz, «galdua dela» pleini direnak ere badira.<sup>148</sup>

558. Beren buruari «zu» erraiten diotenak badira.<sup>148</sup>

*Antzeko: Zahar hitz, zuhur hitz liburuan, 9'gn orri-aldean.*

559. Bere neurritik atera ezkerro, persona galdu egiten da.<sup>169</sup>

560. Bere pekatuen ispillua, lotsa.<sup>9</sup>

561. Berezko joera, arraia urera eta satorra lurpera.<sup>16</sup>

562. Berez on dana, gañera irtetzen da.<sup>201</sup>

563. Beroan buzkantza, beroan ezkontza.<sup>189</sup>

564. Berritsuak mingaiña luze.<sup>64</sup>
565. Berrogei ta amar urte artean bizi ez dana, gero ez da biziko.<sup>12</sup>
566. Berro ttipian atxeman daite erbi handirik.<sup>155</sup>
567. Berro zailari aihotz zorrotza, eta eritasun handiari erremedioa doblezka.<sup>114</sup>
568. Bertzek xantza, zuhaurk merezimendu.<sup>148</sup>
569. Bertzen erranez axolarik ez izan.<sup>195</sup>
570. Bertzen kukusoeri ohartzen eta gure zorriak ez ikusten.<sup>155</sup>
571. Bertzen larrua beti zaila.<sup>117</sup>
572. Bertzen minak atx guti.<sup>128</sup>
573. Bertzeri manatu aintzin, dugun ikas gure buruaren jabe egoiten.<sup>148</sup>
574. Bertzez baliatzea, amodio faltsu.<sup>138</sup>
575. Besteen mina, begian loa.<sup>177</sup>
576. Besteentzat gaizki esaka dabillanak, entzun legikez bere obenak.<sup>180</sup>
577. Bestek gutaz zerbait erraitea baino beldurgarriagorik bada: hitzik ez erraitea.<sup>148</sup>
578. Besteren akatsak ikusteko ez da betaurreko bearrik.<sup>123</sup>
579. Besterenak zai, eta zeretzat ez gai.<sup>14</sup>

580. Besteren buztanarekin euliak kendu nai.<sup>9</sup>

581. Besteren esana beti ez ontzat artu.<sup>64</sup>

582. Besteren esanarekin asko piatzen dena, oker biziko da.<sup>64</sup>

583. Besteren etxea gobernatzea errex; be-  
rea ezin.<sup>53</sup>

584. Besteren etxeko atea ez konpondu.<sup>22</sup>

585. Besteren kontura danean, jale txarrik ez.<sup>39</sup>

586. Besteren (Bestin) partzak ikusten ta  
norbianak (norberarenak) ez.<sup>198</sup>

587. Besteren poltsako diruarekin, ez kon-  
tatu.<sup>10</sup>

588. Besterik ezean, ogi gogorra ere ogi.<sup>123</sup>

589. Beti asarre itxuran, baiña batek ostu  
ta danak jan.

*Ijitoen jokabidea batez ere; baiña beste  
geiagok ere egiten dute.*<sup>52</sup>

590. Beti badiagu zerbait: aita ez dala  
etxean edo ama dala kanpoan.<sup>52</sup>

591. Beti badugu guk mezaren luzagarria.<sup>75</sup>

592. Beti ezta izaten Pazko.<sup>13</sup>

593. Beti jaten da beti japparri (jan barri).<sup>13</sup>

594. Betiko arrangura mina.<sup>150</sup>

595. Betiko leloa: erein gabe, zer itxaro?<sup>123</sup>

596. Beti manatzen usatua denak eztauka kopeta aztalean.<sup>158</sup>

597. Beti santu gisan, arekin kontu izan.<sup>16</sup>

598. Beti zorrotzak, azeriak ortzak.<sup>9</sup>

599. Biaje batez bi mandatu ez da pekatu.<sup>22</sup>

600. Biaje batez bi mandatu: meza entzun eta astoa perratu.

*Garai batean, dendak eta lantegi txiki asko jaiean irikiak egoten ziran; eta jende askok, batez ere baserritarrak, oitura izaten zuten enkargu eta sal-erosketa asko jaiean egiteko. Orregatik esaten zan esaera zar au.*<sup>10</sup>

601. Biak alkar galtzia oba, biak bana galtzia baño.<sup>15</sup>

602. Biak ere ez ote dira bata zu ta bestea ni?<sup>52</sup>

603. Biak ezin bestelakoak: sukaldean emazte gaiztua eta ofera itasura.<sup>195</sup>

604. Bi anairen arte, mugak ondo daude.<sup>71</sup>

605. Biar be eguna zabalduko yok.

*Txarto naiz ondo, guztija egun baten amaitu-gura dabenari esaten yako ori.*<sup>179</sup>

606. Biarko uzten danak, etzi ere urbil du.<sup>123</sup>

607. Bi begi baino hobe dauzkagu bi beso.<sup>120</sup>

608. Biboa uste ta baboa izan.<sup>52</sup>

609. Bidasoa bruman, aizia itsasoan.<sup>84</sup>

610. Bidean presa ta iturrian lasa.<sup>22</sup>

611. Bide itzaltsu, ixtiltsu.<sup>139</sup>

612. Bide txigorra, bide gogorra.<sup>7</sup>

613. Bi eduki eta iru gastatzen duena, nai ez eta ere lapurra.<sup>58</sup>

614. Bi etxeoandreko sukaldia, gatzez betetako eltzia.<sup>198</sup>

615. Bi ezkeru, iru seguru.<sup>22</sup>

616. Bigaintoak zezenaren kantua ematen du.<sup>153</sup>

617. Bi jaberren zakurrak ganbela urruti.<sup>67</sup>

618. Bila berria, ez berrikeria.<sup>138</sup>

619. Bildots ago gozoak, ama biyen esniak edaten ditu.<sup>13</sup>

620. Bildu negarrez, gastatzeko farrez.<sup>9</sup>

621. Bildur bat da aberetan ta asko gizontan.<sup>68</sup>

622. Bildurtiaren ezpateak, puntea motz.

*Bildurtijak, atxaki asko ixaten daula arerijuarekin burrukatzeko.*<sup>179</sup>

623. Bildu-ta, xinaurriek lehoina garrait dezakete.<sup>153</sup>

624. Biligarroa kantuz aditu-ta, habil egurketa.<sup>154</sup>

625. Biligarruen astien jaiua.

*Buru argia dena.*<sup>187</sup>

626. Biotz batera ez da indarrez irixten.<sup>64</sup>

627. Biotz betea, aotik dario.<sup>48</sup>

628. Biotz ona, alegera.<sup>141</sup>

629. Biraoa etxean, zoritxarra atean.<sup>91</sup>

630. Birigarroak lizarrean, kaka zure bizkarrean.<sup>12</sup>

631. Birtutetsuak badu edertasun aski.<sup>198</sup>

632. Bisita estakuru, egin ditake tratu.<sup>146</sup>

633. Bitan batek izaten du suertea.<sup>31</sup>

634. Bits-ponpilla aize uts.<sup>189</sup>

635. Bi txarrak baño, bat ona obia.

*Oñati.*<sup>11</sup>

636. Bi uretako arraina.<sup>195</sup>

*Bi arpegi dituena.*

637. Bizarrak ez du gizona ez ontzen, ez gaixtatzen.<sup>144</sup>

638. Bizia labur, bainan penek luzatzen dute.<sup>151</sup>

639. Bizi alferra, heriotze goixtiarra.<sup>142</sup>

640. Bizi dana agertu egiten da.<sup>50</sup>

*Antzeko: Inza, 1007.*

641. Bizi luzeari nausi zaio bizi zuzena.<sup>147</sup>

642. Bizioz artu, pobrezaz utzi.

*Erretzalleak-eta, bizioz artzen dutela oitura, ta ezin iritxiz uzten.<sup>22</sup>*

643. Bizi trixte huntan, proosionean bezala, kurutzea lehen.<sup>146</sup>

644. Bizitza beti aker, zuzen ez danean oker.<sup>189</sup>

645. Bizitza onen ondoren beste obiago bat baldin badogu, zorionekua jua dana, zorigaiztokua geldi dana.

*Gaubela ta obiratzetan erabiltzen da eskun ori.<sup>183</sup>*

646. Bizitzaren ardatzean, gazi-gezak gelatzean.<sup>189</sup>

647. Bizitzea, beti nolazpait gudukatzea.<sup>148</sup>

648. Bizkai'ko berbea eta txakurren berbea, berdin.<sup>32</sup>

*Giputxak diotena da au. Ikusi bizkaitarrak giputxengatik diotena, 1321 garren esaeran.*

649. Bizkor eta ondo usuak egaz.<sup>25</sup>

*Antzeko: Ormazabal, 34.*

650. Bolo-bolo dabillena, etxetik irtena.<sup>189</sup>



651. Bortian bezain ezagun hegoa sukaltian: emaztekiek pazientzia laburxko eta hola.

*Zubero aldetik.*<sup>174</sup>

652. Bortxaz emanak eskerrik ez.<sup>148</sup>

653. Bortz zangotako zaldiak ezin kurri.<sup>148</sup>

654. Bost ajola zioak orri, berea egin ezkerro.<sup>12</sup>

655. Bost errealean erosi ta peztan saldu, ta halare ez galdu!

*Esneari ura ematen diolako. Gabiria, G.*<sup>197</sup>

656. Botatzen zaizkon bi ogi-bihitarik, bato hartzen du eta bertzetik Jainkoak buruxka bat egiten.<sup>142</sup>

657. Burnigile zikoitzak, zotzezko kanibetak.<sup>9</sup>

658. Buruba garbi ta txarrija lapikuan.<sup>15</sup>

659. Burua leenago nekatu bear da, besoak baiño.<sup>54</sup>

660. Buru-eman diogun lantxoa, egin-gogodugun asmo bikaiña baiño obe.<sup>173</sup>

661. Buru gabearen oñak pagatzen dute.<sup>9</sup>

662. Buruilak uda ez hiltzen, bainan nequaz oroitzen.<sup>131</sup>

663. Buruila, larrazkeneko maiatza.<sup>137</sup>

664. Buruil amosta xortatsu, zortzi egunez irrisku.<sup>130</sup>

665. Buruilaren uri goxoak barrikak betetzen.<sup>131</sup>

666. Buruil hasteko uria, mahastiaren edaria.<sup>132</sup>

667. Buruila, udaren buztana eta neguaren hastapena.<sup>134</sup>

668. Buruil azkeneko uria, arno xahugarria.<sup>132</sup>

669. Buruileko izar nasaiek arnoa deitzen nasaiki.<sup>133</sup>

670. Buruileko uriek mahastia ontzen.<sup>134</sup>

671. Burutik behera jantzi behar lukeena.

*Andre-gixon direnak.*<sup>195</sup>

672. Buruxkak buruxketariari.<sup>114</sup>

673. Busti nahi ez dena urean ez sartzen.<sup>120</sup>

674. Buztana bati kendu ta bestiari ezarri.

*Gauza bat apaintzeko beste bat itxusitzen dabenagaitik esaten da ori.*<sup>184</sup>

## D

675. Dabillan arriari, etzaika goroldiorik lotzen.<sup>11</sup>

676. Dabillena ibilli, oztopo gabekorik iñor ez.<sup>123</sup>

677. Dabillanak beti dakar zerbait.<sup>105</sup>

*Antzeko: Inza 1145.*

678. Dabillen bideak arrapatuko du.<sup>12</sup>

679. Dabillen-dabillen, Pedro elduko da lemakania artzen.<sup>105</sup>

680. Dadoen onena ez jokatzea da.<sup>14</sup>

681. Dagoanean bon-bon, eztagoanean son-son.<sup>33</sup>

*Antzeko: Azkue 2169, Ormazabal, 27.*

682. Dagoanean par-par, ez dagoanean negar.

*(Altza).*<sup>11</sup>

683. Dakianak ez dakianari erakustea ona da, onerako bada.<sup>123</sup>

684. Dakitenen artean ibiltzeaz bakarrik, ez da iñor jakitun.<sup>123</sup>

685. Damurik ez, parkamenik be ez.<sup>105</sup>

686. Danagaz, dan beste.<sup>25</sup>

687. Danean dana, abenduen arbijek.<sup>13</sup>

688. Danean eguzki, zapiak ixeki.<sup>9</sup>

689. Danen gustora beiñere euririk ez.<sup>10</sup>

690. Danontzat dago neurriko zapata.<sup>39</sup>

691. Dar-dar buruagaz, geiago ez da esaten berba garratzagaz.<sup>105</sup>

692. Datorrena artu bear.<sup>72</sup>

693. Daukadana badakit, daukakedana ez.<sup>201</sup>

694. Da(u)kanai ez eskatu, matte zattunai baizik.<sup>198</sup>

695. Daukanak baulean, dakianak miiñean (mingaiñean).<sup>190</sup>

696. Deabruak ezin dauna, emakumiak egiten dau.

*Sarritan, gixona, deabruak baño len galdu daikela emakume batek.*<sup>180</sup>

697. Deabruak ume bat izandu zuen, eta miaztu eta miaztu, jan egin zuen azkenerako.<sup>177</sup>

698. Deabruarekin iraulden ari denak, akilua luze behar.<sup>157</sup>

699. Debrua adintsu, hortako ere jakintsu.<sup>142</sup>

700. Debruaren irina dena zahi.<sup>137</sup>

701. Degunarekin goaz, ez genuenekoaz.<sup>189</sup>

702. Delarik bonbon, eta eztelarik gabe egon.<sup>185</sup>

*Antzeko: Azkue 2169, Ormazabal 27.*

703. Dela zarra eta dela gaztea, beti bearko du Jaungoikoak nai duen artea.<sup>9</sup>

704. Denbora bakotxako gauza gozoa, arbi errea Abendukoa.<sup>9</sup>

705. Denbora gutxiko gustoa eta luzaroko desgustoa.

*Emakumeren bat aurdun dagola ikustean esan oi dana.*<sup>54</sup>

706. Denborak ontzen eta txartzen.<sup>138</sup>

707. Denborak oro argitaratzen.<sup>139</sup>

708. Denbora luzara denen salatzale.<sup>146</sup>

709. Denbora onean karameloak.<sup>9</sup>

710. Denbora salatzale.<sup>151</sup>

711. Denda badezu, zuk zaitu bear dezu, ezperen galduko dezu.<sup>7</sup>

712. Denek badugu guhaun partida.

*Cada cual tiene su enemigo.*<sup>185</sup>

713. Denek gure ilargialdiak izanki.<sup>153</sup>

714. Denek larrua atorra baino hurbilago.<sup>146</sup>

715. Dener barreatzen duenak bihotza, ez daki zer den adixkidantza.<sup>148</sup>

716. Denetarik munduan: pizu ta arin.<sup>155</sup>

717. Den organista haundiena, xixtulari txar izaiten ahal.<sup>165</sup>

718. Denporak zelan aldiz, zapataria zaldiz.<sup>18</sup>

*Azkue 1639, 1884 ta Inza 1362 baiño osoago.*

719. Den zaldi hoberena noizean behin behastoputzen da.<sup>158</sup>

720. Den zintzitoil ederrena, beldar bat.<sup>155</sup>

721. Derrigorrekoa eriotzea da.<sup>3</sup>

722. Deusek eztu akitzen gizona, nola egiaren erraiteak.<sup>117</sup>

723. Dirua, borta guzietako gakoa.<sup>148</sup>

724. Dirua, egiten baiño, jagoten gatxago.<sup>4</sup>

725. Dirua jujen eta abokaten beldur da.<sup>155</sup>

726. Diruak ez du zahartzen.<sup>151</sup>

727. Diruak txakurrei be dantzan eragitten ei dotse.

*Aintzinako txakur haundixak, txakur bat dantzan zeharten.*<sup>110</sup>

728. Diruak urean ere egin dezake bide.<sup>137</sup>

729. Dirua nekez jiten, aise joaiten.<sup>159</sup>

730. Diru-apanak, gutxi daukanak.<sup>16</sup>

731. Diruaren irabazten ari denak ez du haren xahutzeko astirik.<sup>142</sup>

732. Diruaren korritua beti jaten, zorria bezela.<sup>12</sup>

733. Diruaren narrua otsoarena baiño si-kuago da.<sup>105</sup>

734. Dirua sehi ona, bainan nagusi tzarra.<sup>137</sup>

735. Diru asko mingaiñez, poltsan sosik ez.<sup>53</sup>

736. Dirua ta eztula ez dago disimulatzerik.<sup>22</sup>

737. Dirurik ez duena ez da ohoinen beldur.<sup>153</sup>

738. Diru xuria egun beltzentzat.<sup>146</sup>

739. Domuru santurutan, arima pielak kandela argitan.<sup>105</sup>

740. Donibane, Parise ttiki; Baiona, haren barroki.<sup>114</sup>

741. Dsat berak, baita nik zast.<sup>105</sup>

742. Duban dabillanari, debaldean esan eta kittu.<sup>105</sup>

743. Dudako gauza bada, isillik iduki.<sup>9</sup>

744. Duenak duenari: astoak ere pixa urari.<sup>63</sup>

745. Duenak kolkorako, ez duenak gerorako.<sup>189</sup>

746. Dupa nolako, arnoa halako.<sup>149</sup>

747. Duroko gazta obea bireako, iru duroko ollaskoa baño.

*Baraibar'ko Txikito'k, 1945.*<sup>171</sup>



## E

748. Ebizen-ebizen, lortu eben.<sup>105</sup>

749. Edade batera ezkerro, disgusto gutxi, lana neurritz eta mokadu goxo-goxoa sarri-sarri.<sup>36</sup>

750. Eder edo itxusi, zein begik ikusi.<sup>16</sup>

751. Edo gizona gizon, edo lasta zaku egon.<sup>67</sup>

752. Edozein da arrantzale, arraiña goserik dabillanean.<sup>105</sup>

753. Edozein ulek bere gerixa.<sup>92</sup>

754. Edozoin zaparrek bere itzala.<sup>155</sup>

755. Egan egin baneza, zeruan entzungo nuke meza.<sup>123</sup>

756. Egariak edan-arazten, edanak egarritzen.<sup>144</sup>

757. Egari denari edozoin ur atsegingarri.<sup>145</sup>

758. Egazti mokodunakin ez da nagusia aberastuko.<sup>64</sup>

759. Hegaztinak jasaiten tu lurrean bere hegalak, eta airean hegalek dute jasaiten hegaztina.<sup>160</sup>

760. Egaztirik ez ariñago, zenbaten burua baiño.<sup>189</sup>

761. Egia, argi igeskorra lano lodien artetik.<sup>146</sup>

762. Egia belauniko, gezurra zutik, lapur guztiak askatuta.<sup>70</sup>

763. Egia da abilezia handiena.<sup>141</sup>

764. Egia ez da beti erran-errexha, ez erran-beharra.<sup>148</sup>

765. Egiak, arrosak bezala xixtatzen.<sup>151</sup>

766. Egiak ez du beti kanore handirik.<sup>139</sup>

767. Egia me, ez ordea ze.

*Erderaz: La verdad adelgaza, pero no quiebra.*<sup>7</sup>

768. Egiaren indarrari eutsiko dionik ez.<sup>64</sup>

769. Egiari egia zor.<sup>148</sup>

770. Egiazko aizkolaria buruz nausitzen da, indarrez baino gehiago.<sup>142</sup>

771. Egiazko amodioak manatzen du errespetua.<sup>148</sup>

772. Egiazko negua San Martinez hasten.<sup>137</sup>

773. Egiaz maite deguna, aaztuko etzaiguna.<sup>189</sup>

774. Egi guztijak eztira on esateko.

*Onek esan gura dau, badirala egijak, egi ixan arren, iñori arpegira esan biar etxakazanak.*<sup>180</sup>

775. Egile baino, hobe jasaile.

*Txarkeria haundiak egitean.*<sup>195</sup>

776. Egiñalak egin, beti gelditzen da zer egin.<sup>123</sup>

777. Egin-arazlea bera da egile.<sup>164</sup>

778. Egiñari eutsi.<sup>22</sup>

779. Egin arren dizdira, danak urreak ez dira.<sup>16</sup>

780. Egiña, urre uts; lqa, makarre uts.<sup>22</sup>

781. Egin banu, etorri banintz, joango ba... Bazoazke, bai!<sup>123</sup>

782. Egiñetik zerbait, ez egiñetik ezer ez.<sup>22</sup>

783. Egin naia, patu onaren gaia.<sup>7</sup>

784. Egintzak ez badeutsee berbai jarraitzen, oneik ez dabe balio ezetarako.<sup>109</sup>

785. Egin zak lo ta jango dek me, izan arren bi neskame.<sup>123</sup>

786. Egin zak zirt edo zart.<sup>9</sup>

787. Egiok laguntza debruari, emanen dauk ifernua lagunt-sari.<sup>146</sup>

788. Egiteek ez dute beti egiazko xederik salatzen.<sup>154</sup>

789. Egiten ahal duzuna, eginbide beharre-na.<sup>153</sup>

790. Egi hutsa be, gauza sikua ei da.

*Noizian behin gizurtxo batzuk sartzia be komeni da.*<sup>110</sup>

791. Egizu behar dena, ez egiten dena.<sup>151</sup>

792. Hego haizea, emakumeen haizea; harraizea, gizonena.

*Gabiria aldetik.*<sup>174</sup>

*Azkue 1142 baiño osoago.*

793. Egoatik, elur eruak (aundik, maluak) egiten ditu.

*(Andoain)*<sup>11</sup>

794. Egon hadi Jainkoarekin. Jainkoa dukek hirekin.<sup>116</sup>

*Antzeko: Inza 2141.*

795. Egon ai, egon ai mutil zahar, eta gero ilobak aulkiz joka supekarrera bidalduko die.

*Uharte-Arakilen jaso.*<sup>174</sup>

796. Egonaren nekeak ez du aitzekirik.<sup>123</sup>

797. Eguarrietan eguzkia; Pazkoetan elurra.<sup>11</sup>
798. Eguarri ondorengo lenbiziko sei egunak nolako, urrengo urteko lenbiziko sei illabeteak alako.<sup>100</sup>
799. Eguberri argi, lastotsu ogi.<sup>134</sup>
800. Eguberri argitsu, ogia gero lastotsu.<sup>131</sup>
801. Eguberri, arimak ere berri.<sup>136</sup>
802. Eguberri berri, nik atorra berri; maugarik ez, ajolik ez.<sup>119</sup>
803. Eguberri, eroak igerri; Urteberri oiloaren arrabete.  
*Eguna luzatzen asia dala.*<sup>23</sup>
804. Eguberri eruek igerri, zohiek (*cuerdos*) ere larri.<sup>196</sup>
805. Eguberri illunetan (illargirik gabekoe-tan) soroetan gari asko.<sup>11</sup>
806. Eguberriko aro beroak, Bazkokoz histen.<sup>134</sup>
807. Eguberrirainoko larrazkena, Pazko arteko neguaren ama.<sup>131</sup>
808. Eguberriz itzalketa dabilanak bilatuko du Pazkoz supazterra.<sup>137</sup>
809. Eguberriz ulitzak... kasu! Ikusiko dituzu Pazkoz horma ziriak.<sup>137</sup>
810. Eguna moztu ta elbiak zorroztu.

*Agoztuaren erditik aurrera esaten da. El-  
biak ezagutzen dute akabera datorkiela. Az-  
tiria, G.*<sup>197</sup>

811. Egun argitze lausoan, urretxindorra  
kantuan.<sup>189</sup>

812. Egun bateko negarra, eta betiko farra.<sup>9</sup>

813. Egunen batean egingo degun usteak,  
iru laurden ustel.<sup>70</sup>

814. Egun erdia zelataka ta beste erdia ao  
zabalka.<sup>123</sup>

815. Egunero dabillen txarrua, aguro  
autsi.<sup>10</sup>

816. Eguneroko ogia, kostata irabazten  
da.<sup>12</sup>

817. Egunik luzeena, San Juanena; geurik  
luzeena, Santa Luziena.<sup>4</sup>

818. Egun irriz, bihar nigarrez; egun ongi,  
bihar hilak.<sup>154</sup>

819. Egun kopeta gora, bihar burua apal.<sup>142</sup>

820. Egun onean xilkoa moztua.<sup>195</sup>

821. Egunsentian gorri, arratsean euri.<sup>9</sup>

822. Eguraldi ona eta beorra mendian bee-  
ra, urrengo egunean elurra.<sup>53</sup>

823. Eguraldi txarrari ez dago beetik ezer  
egiterik.<sup>54</sup>

824. Egur eskarmentadua, sugarri ona.<sup>4</sup>

825. Egurra, bi aldiz neurtu ta bein moztu.

*Arotzen esaera da au. Izan ere, burnia gaizki neurtzen badezu, gero soldeatuko dezu; baiñan egurrarekin ez dago ori egite-rik.*<sup>39</sup>

826. Egurra nolako, ezpala alako.<sup>189</sup>

827. Eguteran gerizak, ospelean masustak.<sup>189</sup>

828. Eguzkia ertzean, esnea pertzean, neskatxa etxean.

*Eguzkiaren sarreran, beiak jetzi eta esneak pertzean egon bear duala. Neskatxak, berriz, garai onez erretiratuta. Abe-Marietarako etxera, alegia.*<sup>40</sup>

*Azkue 1408 baiño osoago.*

829. Eguzkia eta euria, azeriaren bodak.<sup>64</sup>

830. Eguzkia euritan, azariak eztaitan.<sup>52</sup>

831. Eguzkiak San Juanetan dantza.<sup>39</sup>

832. Eguzkia nora, keriza bere ondora.<sup>105</sup>

833. Eguzkiaren etzaneraz, izarrak ñirñiraz.<sup>189</sup>

834. Eguzkitan erretako ogirik, iñon eztago.<sup>9</sup>

*Antzekoa: Azkue 1155.*

835. Eguzki txuriaren ondoren, eraso.<sup>39</sup>

836. Eihera berriak, irina xuri.<sup>117</sup>
837. Ekatzari uzkur akijo.  
*Edo: Aldi txarrari makurtu akijo.*<sup>92</sup>
838. Eibar'ko txitia, Berga(ra)'ko oillua.  
*Eibartarrak farol fama euki izan dabe.*<sup>110</sup>
839. Heinean loak pausatzen, gero  
akitzen.<sup>139</sup>
840. Eiztariak gezurra samurra du.<sup>12</sup>
841. Eiztari eztira mendira igoten diran  
guziak; batzuk eperrak eizatzen dituzte, Eba'-  
ren alabak bestiak.<sup>184</sup>
842. Eiztari ona, maiean dagona.<sup>9</sup>
843. Ekaina bustitsu, gure nausia kexu.<sup>134</sup>
844. Ekaina eder, uda halaber.<sup>140</sup>
845. Ekainean ortzia, lasto ta belarrez nai-  
koa.<sup>137</sup>
846. Ekaineko lur busti, gure aita nigar-  
ti.<sup>131</sup>
847. Ekaitz ostean barealdi.<sup>189</sup>
848. Ekiñaren indarra ekiñaz neurtzen  
da.<sup>123</sup>
849. Ekin da ekin, laxter izan zuan bere-  
kin.<sup>123</sup>
850. Elaiak lur inguru, euria gitxi barru.<sup>91</sup>



851. Heldu denean neguila, ken sagar ondoari mihula.<sup>135</sup>

852. Eldutakuan maiatza, astuak arrantzatza.<sup>25</sup>

853. Ele ederra ez da beti gezurra.<sup>141</sup>

854. Ele onak ez du mihia larrutzen.<sup>148</sup>

855. Eliza-dorreak behar du herriaren erdian.<sup>146</sup>

856. Eliz-txorien jokaera, artoa dagon sa-paera.<sup>189</sup>

857. Elkar arteko ar-eman ixillak esan-nai gozoa dute.<sup>123</sup>

858. Elkarterik gabe, indarrik ez da.<sup>201</sup>

859. Elorriak ere goizik dauka zorrotz mo-koa.<sup>154</sup>

860. Elorria loretan, artaldeak goietan.<sup>53</sup>

861. Elorria lorez txuri, ta osto aiña txo-ri.<sup>189</sup>

862. Elorria hosta-giro, liho beratxa erein-giro; elorria lora-giro, maiza erein-giro.

*J.M.Satrustegi'k Madoz aldetik jasoa.*<sup>174</sup>

863. Elorri beltzak lora, beiak lau ankaz gora; elorri zuriak lora, beiak larrean gora.

*Elorri beltza otsaillean, udaberria baiño leen alegia, loratzen da, beiak ukulluan obeto daudela. Elorri zuria loratzean, berriz, uda-*

*berria bete-betean dago, larreak belar berriaz jantziak dirala eta beiak beren gozamina bertan dutela.*<sup>23</sup>

864. Elorri beltza lora zabal, arto-lurraz arazabal.

*Lurrak prestatu egin bear dirala, azia ereiteko.*<sup>32</sup>

865. Elorritxua loran dago, artua ereiten giro dago.

*Arantzazu-Oñati.*<sup>174</sup>

866. Eltze-taparik ez duan eltzeak ez du baliyo.

*Donosti.*<sup>11</sup>

867. Elur asko dan urtean, garia; ta erle asko degunean, ezta.<sup>201</sup>

868. Elur gaineko hegoa ez da mutiko be-roa.

*Oñati aldeti.*<sup>174</sup>

869. Elur luze, elur gure.

*Oñati aldetik.*<sup>174</sup>

870. Elur ondoko hegoak otsoa ere bildur-tu egin zoon.

*Legazpi aldean.*<sup>174</sup>

*Antzeko: Inza 1519.*

871. Elurak ere erretzen bere maneran.<sup>148</sup>

872. Elurra neguan eta giro ederra udaran, gauza danak beren sasoiean.<sup>123</sup>

873. Elurtea doanean, su-egurra oianean.<sup>189</sup>

874. Elur-urte, ezkur-urte.<sup>54</sup>

875. Emaiteko manerak askotan gehiago balio du emanak baino.<sup>148</sup>

876. Emak laster, emango dek bi bider.<sup>7</sup>

877. Emakumea eta oiloa, temosuak biak.<sup>196</sup>

878. Emakumeak badaki irriparra eta malakoak elkartzen.<sup>64</sup>

879. Emakumeak eta arraia aotik galtzen dira.<sup>10</sup>

880. Emakumeak gobernatzan du itxia ta olluak gobernatzan du baratza.<sup>198</sup>

*Esaera au eta 883'garrena ez datoz bat.*

881. Emakumeak (Emakumik) mingañi(a)n du indarra.<sup>198</sup>

882. Emakumearena, ankea autsi ta etxean.<sup>92</sup>

883. Emakumearen mende dagoan etxea, eta auntzaren mende dagoan baratza, berdiñak.<sup>16</sup>

884. Emakumearen negarra ta katuaren errena, dana bat.

*Adirazoten dau, emakumiaren negarra geienetan errezegia edo guzurrezkua ixan oi dala.*<sup>179</sup>

885. Emakumea ta astua, seta aundikuk.<sup>199</sup>
886. Emakume bakartia, esamesen belakia.<sup>189</sup>
887. Emakumeen aserre-aldia ta txakurren errena, berdintsuak.<sup>12</sup>
888. Emakume nor dena, ahuntzen adarren aurretik etxera.
- Ilunabarrerako, etxean egon behar zuela noski.*<sup>177</sup>
889. Emalleari etzaio artzallea faltako.<sup>9</sup>
890. Eman akiok beatza ortzetara.<sup>52</sup>
891. Emaztea etxe-atxikitzaile, nun ez den desegile.<sup>148</sup>
892. Emaztearen arrazoinik hoberena, ezintasuna.<sup>152</sup>
893. Emaztea, senarraren igandea.<sup>148</sup>
894. Emaztea ta senarra errietan, eguna argitu orduko errekaizetan.<sup>105</sup>
895. Emaztea zertako da tindatzen? Ez baita bere edertasunari fidatzen.<sup>145</sup>
896. Emazten segretu atxikiena, bakotxak bere adina.<sup>153</sup>
897. Emazte ona, etxe ona.<sup>148</sup>
898. Emazte zombaiten gogoia, iduri hegoa.
- Lapurdi.*<sup>197</sup>

899. Hemen apo dena, han ere apo.

*Etxea utzi eta burua jaso ez duena.*<sup>185</sup>

900. Emendatzen ez duzun jakitatea, egu-  
netik egunera urtzen ari zaitzu.<sup>151</sup>

901. Hemengo lahatza hemen utzirik joa-  
nen.

*Diru gose direnentzat esaten da.*<sup>195</sup>

902. Emengo udara, San Juanetatik San  
Pedrotara.

*Legazpi'ko esaera.*<sup>54</sup>

903. Emen zerue ta gero zerue, adarra.<sup>174</sup>

904. Emok begia urriari, nai badek izan  
ugari.<sup>14</sup>

905. Emon da kendu, zapatia kendu.<sup>105</sup>

*Baita ere: Emon da kendu, zapatia galdu.*

906. Emoten dan berbea, bete egin bear  
da.<sup>109</sup>

907. Enadak txiuz, udara billuts.<sup>189</sup>

908. Enara batek ez du udaberria egiten.<sup>87</sup>

909. Enarak goizean txio-txioka egiten ba-  
dute, eguraldi ona.<sup>109</sup>

910. Enbidiosoa, bere etsai osoa.<sup>9</sup>

911. Enborretik ezpala.<sup>39</sup>

912. Enegua aberatsaren miseria, miseria  
pobrearen enegua.<sup>155</sup>

913. Ene laguna, lagun zakidaz intxaur berdiak jaten.

*Gauz onak eta ereti onak norberantzat eta txarrak bestientzat gordetzen daunagaitik esan oi da ori.*<sup>181</sup>

914. Entzungille gorra, buru gogorra.<sup>9</sup>

915. Epaitza ematen zaion aldera erortzen da arbola.<sup>187</sup>

916. Epelenean ere, gaba kanpoan trixte da.

*Joxe Mari Kantari'k, Azkarate, 1964.*<sup>171</sup>

917. Eper-billa bazabiltz, larrera jo bearko dezu.<sup>123</sup>

918. Eperdi bategaz aulki bi ezin bete leikez.<sup>13</sup>

919. Eperra bere mingaiñetik galtzen da.<sup>64</sup>

920. Era bat jan, eta era bat edan, Burano-ko idiarena.<sup>9</sup>

921. Erabiltzen den gakoa distirant.<sup>142</sup>

922. Erakusten den baino gauza gehiago gordetzen da.<sup>146</sup>

923. Erantzun bear danean, edozein da zeure parean.<sup>105</sup>

924. Erbiak, usterik gutxienean salto.<sup>39</sup>

925. Herioak oro berdintzen.<sup>139</sup>

926. Eriotzak danok berdintzen gaitu.<sup>52</sup>

927. Erlea euki gura dabenak, martian ez-  
tia ateratzen dau; ta eztia gura dabenak, ze-  
mendian.<sup>13</sup>

928. Erleak kurumiñoari: Udan brunbrun,  
neguan promesa? Esaiozu etxian eztagola  
iñor, Teresa.<sup>13</sup>

*Kurumiño: kurubio, listor, avispa.*

929. Erleak nagusi bakarra.<sup>64</sup>

930. Erlea lanean, lorea danean.<sup>64</sup>

931. Erle-opillari, eztia lillura.<sup>189</sup>

932. Erle uxatuak eztirik ez.<sup>189</sup>

*Antzeko: Refranes y sentencias, 1596, 5.*

933. Erne ibili, asko itz egin da mingain  
luzea daukanarekin.<sup>64</sup>

934. Eroa etxerat hartu, etxea galdu, eroa  
gelditu.<sup>117</sup>

*Antzeko: Azkue 1327.*

935. Eroak bat eta bera zart.

*Erdi-ero oietakoekin argi ibiltzeko adierazi  
nai du.*<sup>52</sup>

936. Eroak zer dau señale? Berak esan eta  
berak barre.<sup>181</sup>

937. Eroan-ala arri, danoentzat.<sup>15</sup>

938. Eroa zur, bizkarrean egur.<sup>7</sup>

939. Ero bat obe, lau txoro baiño.<sup>52</sup>

940. Eroen artean, tontoa alkate.<sup>9</sup>
941. Ero guztiak suertoso, eta Goikoetxe'-ko txoroa soldaduzkatik libre.<sup>34</sup>
942. Eroriena izanik ere, altza diteke.<sup>64</sup>
943. Erorita dagoenari eskua luzatu, ta nor den ez begiratu.<sup>64</sup>
944. Erosten leiala, pagatzalle txarra.<sup>53</sup>
945. Erotzat har gaitzatela, izan ez gaitzezela.<sup>195</sup>
946. Herra, ahularen kolera.<sup>146</sup>
947. Erradak zer irakurtzen dukan eta nik erranen deat nor edo zerika hizan.<sup>117</sup>
948. Erraileak entzutea zor.<sup>146</sup>
949. Herrak bihotza sumintzen du, ez asetzen.<sup>148</sup>
950. Erramu eguneko Sagarako aizeak berrogei egunean jotzen du.<sup>64</sup>  
*Inza 1843 baiño osoago.*
951. Erramun Barramun, ez entzun eta ez erantzun.<sup>58</sup>
952. Erran zautzunak «jo zak», ez zautzun erran «hil zak».<sup>146</sup>
953. Erratz txarraz, bazterrak narrats.<sup>123</sup>
954. Erraz artu, erraz ondatu.<sup>47</sup>



955. Erregearen zahia, eihera-zainaren ogia baino hobea da.<sup>114</sup>

*Antzeko: Azkue 164.*

956. Erregek ere ez lukete zer jan, laboraririk ez balitz.<sup>148</sup>

957. Errege tontua, asto korotua.<sup>9</sup>

958. Erregiñik gabeko eultzik ez; erregin bat baño geiago ere ez.<sup>47</sup>

959. Erreka aizea, andren aizea.<sup>104</sup>

*Erreka aizea: egoaizea.*

960. Errementariaren etxean egurrezko labana.<sup>64</sup>

961. Errementariaren etxean, zurezko burrunzia.<sup>53</sup>

962. Errementari Arganda'koa, berak aspoa, berak joa, berak plazara daroa.<sup>14</sup>

963. Errenak ibilgura, itsuak ikusgura, ezin dabenak egin gura.<sup>13</sup>

964. Errenteri, beti mixeri.<sup>23</sup>

965. Erretorari jausten zaion uriak bikarioa bustitzen.<sup>139</sup>

966. Errex irabazia, errex gastatu.<sup>10</sup>

967. Errex, xahutzea; lanak, irabaztea.<sup>148</sup>

968. Herriko hiru gauzarik onenak: etxeko iturri otsa, herriko ezkila eta jaun erretor ohia.<sup>65</sup>

969. Herriko hiru gauzarik txarrenak: zakkarraren azpiko zorria, laino azpiko iguzkia eta emakume mustatx-duna.<sup>65</sup>

970. Erri txikia, infernu aundia.<sup>29</sup>

971. Erronka luzea, bildurra edo haizea.  
*Gabiria, G.*<sup>197</sup>

972. Errotari, *molinero*, zaia jan da putza bero.<sup>40</sup>

973. Esaidak norekin abillen, esango diat nor aizen.<sup>201</sup>

974. Esanak gugan, egiñak Jainkoagan.<sup>201</sup>

975. Esan asko eta egin gitxi, gosez il eizan auzoko Patxi.<sup>105</sup>

976. Esan dezaiodan, esan ez dezaidan.<sup>52</sup>

977. Esan gabe iduki dana, esan liteke; baiñan ez bein esana iduki esan gabe.<sup>9</sup>

978. Esan nioten, esan ez dakidan.<sup>82</sup>

979. Esatekoak esan, San Pedrori be nasai esan.<sup>105</sup>

980. Eskalea ogi-zatiaz pozik, eman dionak ere ez dauka lotsik.<sup>189</sup>

981. Eskalea, *pordiosero*, diosala pasa ta gero.<sup>40</sup>

982. Eskalea zer dan? Negarrez bildu ta parrez jan.<sup>16</sup>

983. Eskallerak gorako ta beerako dira.<sup>37</sup>

*Antzeko: Inza 808, 1019.*

984. Eskandala, askotan, bekatua baino areagoa da.<sup>151</sup>

985. Eskekua beti artzekutan.<sup>198</sup>

986. Esker gaizto, esker gutxi.<sup>7</sup>

987. Esker onak, emailearen sustatzaile.<sup>138</sup>

988. Eskerrik asko, Maria Belasko, Ondarroa'n dago atsorik asko.<sup>105</sup>

989. Eskerrik asko, Mari Ollasko, Lekeitio'ko atsoak bizar asko.<sup>104</sup>

*Azkue 776 baiño osoagoa.*

990. Eskerrik asko, Penadegi'ko errekan ilzen goseak eta egarriak.<sup>64</sup>

*Penadegi, Oiartzun'go mendi-baserri bat da.*

991. Eskobaren kirtenetik tiroak erten omen zun.<sup>39</sup>

992. Eskolatik iesik, urrengoan ortozik.<sup>105</sup>

993. Eskolatu zozoa, munduko zozoena.<sup>148</sup>

994. Eskola-ume sasiz-sasi, asko jan-da gutxi ikasi.

*Bedaio aldetik.<sup>174</sup>*

*Antzeko: Zahar hitz, zuhur hitz liburuan, Baiona 1984.*

995. Eskopeta txarrak bi kezka: jabearena eta lapurrarena.<sup>53</sup>

996. Eskopeta utsak bi beldur ditu: berea eta besteena.<sup>64</sup>

*Antzeko: Inza 1020.*

997. Eskuak bete lan eta illuna gaiñean!<sup>123</sup>

998. Eskualerriko usaia, emaztea etxeko boltsero.<sup>89</sup>

999. Eskubete txanponek zorionik ez du ematen.<sup>123</sup>

1.000. Eskuko etxe-xoria hobe aireko urtzoa baino.<sup>153</sup>

1.001. Esku otzak, amodio beroa.<sup>88</sup>

1.002. Esnerik ez bada katilluan, zerbait txarra ukulluan.<sup>189</sup>

1.003. Esperantza, lorea bezain feirosa.<sup>138</sup>

1.004. Esperantzarik gabe mundu hunek ez luke kanorerik.<sup>142</sup>

1.005. Esperantzetan bizi, miseriyaz iltzeko.<sup>9</sup>

1.006. Esproina-pean zutitzen den zaldiak kalte egiten deie bere sahetseri.<sup>153</sup>

1.007. Esteiari izan denari beti ere, un derorkona hanitz zaio, apur bada ere.<sup>122</sup>

1.008. Etorriko naiz kanpotik, non aterako zaitutan etxetik.<sup>9</sup>

1.009. Etorkizuna, kontakizuna.<sup>195</sup>

1.010. Etorkizuneko olaak burnirik ez.<sup>9</sup>

1.011. Etorriko zatzu, adiskidea, sobraren arraskiña.<sup>9</sup>

1.012. Etsaiak esaten du: egin zak, egin zak; eta ondorean: paga zak, paga zak.<sup>9</sup>

1.013. Etsaiari popaka dagona, aren eskue-tan il oi da.<sup>7</sup>

1.014. Etsairik aundienari bi kandelakin argi egin bear zaio.

*Iñori kontra poliki egin.*<sup>54</sup>

*Antzeko: Azkue 2330.*

1.015. Etxea eraikirik eta mahaina beztitu-rik atxemaiten dituenak ez daki gauzen pre-ziorik.<sup>152</sup>

1.016. Etxeak du abea.<sup>80</sup>

1.017. Etxean batek biar du gaxtua.

*Andoain.*<sup>11</sup>

1.018. Etxean dagonak etxeko berri baka-rrik jakiten du.<sup>72</sup>

1.019. Etxe handi, kozina handi.<sup>146</sup>

1.020. Etxean etxekoa, kalean kalekoa ta mendian... aize garbia beintzat.<sup>123</sup>

1.021. Etxean gatza ugari dagola-ta, ezteza-zula bazkaria geiegi gazitu.<sup>201</sup>

1.022. Etxean ikasten eztabenak, eztaki kanpuan.<sup>179</sup>

1.023. Etxean itxusiak andrea ta zakurra.<sup>70</sup>

1.024. Etxean muturka baiño, auzotik musuka obe.

*Sendi arteko asarrean garaiz banatzea obe dala adierazten du.*<sup>52</sup>

1.025. Etxeari eusteko abe txarra, urte askoan mutil zarra.<sup>201</sup>

1.026. Etxe aundiak, nekeak ere aundi.<sup>123</sup>

1.027. Etxe beteak atsegin, etxe hutsak bihotz-min.<sup>154</sup>

1.028. Etxe bi diran lekuban, ezta galduko.<sup>9</sup>

1.029. Etxe guztietan laratzak beltzak.<sup>10</sup>

1.030. Etxe guzietan marikolak egosten, eta gure etxean panderaka.<sup>9</sup>

1.031. Etxekanderea lehenik senarraren.<sup>155</sup>

1.032. Etxekoandre aurpegi beltzean, labe-sua ta lexiba etxean.<sup>189</sup>

1.033. Etxeko akatsak, etxeko gelatzak.<sup>189</sup>

1.034. Etxeko berriak auzoan, lau bider geituan.<sup>189</sup>

1.035. Etxeko hiru debruak: ohean itaxura, zerri joareduna, andre muxtarduna.<sup>161</sup>

1.036. Etxeko lapurra da gaiztoena.<sup>174</sup>

1.037. Etxeko okerra auzoan ez badute jakiten, ondo.<sup>39</sup>

1.038. Etxeko ormak zuritzea, bai; nork bere burua zuritzea, ez.<sup>123</sup>

1.039. Etxen otoitzik ez egiten, eta auzoan meza emaiten.<sup>137</sup>

1.040. Etxe-oiloak basa-oiloa hastio.<sup>150</sup>

1.041. Etxe onek agia dauko.<sup>13</sup>

1.042. Etxetik irtetzeak itzultzea eskatzen du.<sup>123</sup>

1.043. Etxe txarrean nagusi baiño, onean maizter obe.<sup>53</sup>

1.044. Etxe txarreko maiztarra, goizean goiztarra.<sup>37</sup>

1.045. Etxe-urtzo baten atxemaiteko, garagar bihi bat galdu behar.<sup>153</sup>

1.046. Etxe utsa, arrantza utsa.<sup>11</sup>

*Antzeko: Oihenart, 171; Azkue, 1341, Inza, 740, 940, 1523, 1634, 2344.*

1.047. Etxe utsa gerra utsa eta gizon kebraua guzur utsa.<sup>102</sup>

*Azkue 1341 eta Inza 1523, 2344 baiño osoago.*

1.048. Etxe utsa negargarri, etxe betea pozkarri.<sup>189</sup>

1.049. Etxe utsean, okela gutxi eltzean.<sup>9</sup>

1.050. Etxilara erein San Moritzeko, ez zaitzu murriztuko.<sup>133</sup>

1.051. Etxilarrak bezala, haurrak ere zurkaitza behar.<sup>146</sup>

1.052. Etzan aren burutik egin Erroma.<sup>9</sup>

1.053. Etzan egun batean egin Erroma.<sup>9</sup>

1.054. Etzekiat aitaren semea ez ote duan atera bear.

*Aita gaizto-irizikoaren semeengatik esaten da.*<sup>52</sup>

1.055. Etziok gaizki esana, konprenditzen badu.<sup>12</sup>

1.056. Etziok gaizki zeruan dagoan atsoa.<sup>12</sup>

1.057. Etzuen kukuso batentzat eskua golkorat emaiten.<sup>114</sup>

1.058. Ehunak ehun lan.

*Ehungintzia oso lan neketsua ei da. Liñuaz telie eitteko, lurra landu, hazixa ereiñ, jorratu, ebagi, uretan euki... ehun lan.*<sup>110</sup>

1.059. Eun buzterri baño, zan (vena) bat luziago.<sup>13</sup>

1.060. Eun da amabin egin ez, eta eun da amairun eutsi ez.

*Garai batean askotan esaten zan esaera au, txerriak ume egiteko denbora orixe bear zuala-ta.*<sup>22</sup>



1.061. Eun da eun berreun, da biba Astigarraga!<sup>12</sup>

1.062. Ehun urteko xaharrak ere badu nun zer ikas.<sup>152</sup>

1.063. Euria egiteko, obe da bi aizeren burruka; ez santu guztiai erreguka.<sup>10</sup>

1.064. Euririk gabeko aldi luzea bi aldiz luzeago egiten da.<sup>123</sup>

1.065. Euri-urte, arto-urte.<sup>4</sup>

1.066. Euri xeak naiz lodiak busti egiten du.<sup>123</sup>

1.067. Euskara ahantzi eta erdera ez ikasi.  
*Herritik atera orduko erdaraz ari direnak.*<sup>195</sup>

1.068. Eza, arrija ta ormia baño gogorragoa da.<sup>13</sup>

*Azkue 2355 ta Inza 227 baño osoago.*

1.069. Ez ar ziminoari sino erakusten.<sup>120</sup>

1.070. Ezagun txarra obe, ezagun ez dan ona baño.<sup>53</sup>

1.071. Ezagutu bako ona baño, ezagututako txarra oba da.<sup>13</sup>

1.072. Ez aitarik, ez amarik, ez eta txakur zangagillerik.

*Sin padre, ni madre, ni perro que me ladre.*<sup>14</sup>

1.073. Ez alda olorik zaldiaren beharretan zarelarik.<sup>153</sup>

1.074. Ez alleluia kanta Pazko aintzinean.<sup>117</sup>

1.075. Ezantzaren pagatzeko dirurik izan gabe, otoaren erosteak kolorerik ez.<sup>146</sup>

1.076. Ez baduzu astirik, artu egin bear.<sup>64</sup>

1.077. Ez baduzu erori nai, bide onetik juan.<sup>64</sup>

1.078. Ez baita eremu aldendurik, aizea sartu ezin ditekeenik.<sup>189</sup>

1.079. Ez baldin badu balio nere arrazoiak, nik berotuko ditut xaguak eta arratoiak.<sup>12</sup>

1.080. Ez beha bisaiari, beha bihotzari.<sup>154</sup>

1.081. Ez beha zer jaten dukan, bainan bai norekin jaten dukan.<sup>151</sup>

1.082. Ez benaz eta ez burlaz, ez josta nagusiaz.<sup>9</sup>

1.083. Ez da astoaren dalkatik (adarkatik) hilko.<sup>195</sup>

1.084. Ez da atze aurrerik berdin dituenik.<sup>9</sup>

1.085. Ez da azaren barreneko orria.

*Bere buruari asko derizkiola, alegia.*<sup>54</sup>

1.086. Ez da behar ixtupa suari hurbildu.<sup>120</sup>

- 1.087. Ez da eltze ain itxusirik, bere estalkia ez duenik.<sup>9</sup>
- 1.088. Ez da fida urriari, badakarke mafrundi.<sup>131</sup>
- 1.089. Ez da gaitzik, onik ez dakarrenik.<sup>9</sup>
- 1.090. Ez da jende ez kabalarik, zerbait tatxa ez duenik.<sup>148</sup>
- 1.091. Ez da iñor, zerbaiterako ez danik on.<sup>9</sup>
- 1.092. Ez daite juja deus itxuretarik.<sup>120</sup>
- 1.093. Ez danean, jan galanki.<sup>9</sup>
- 1.094. Ez da ofizio zozorik, jendetan dira zozoak.<sup>151</sup>
- 1.095. Ez daukana zai, daukanak ez nai.<sup>53</sup>
- 1.096. Ez da zarra, duana zuldarra.<sup>201</sup>
- 1.097. Ez dek larrosarik, arantza gaberik.<sup>9</sup>
- 1.098. Ez diozu igerika irakutsiko, urean den arraiñari.<sup>9</sup>
- 1.099. Ez dira astoentzat konfiteak.<sup>9</sup>
- 1.100. Ez dira egia guziak on erraiteko.<sup>153</sup>
- 1.101. Ez dirudi lazkoa zapo saltalaria.<sup>22</sup>
- 1.102. Ez dirurik presta, buru has mintzatu behar duzunari.<sup>146</sup>
- 1.103. Ez ditaike beti gazte.<sup>106</sup>

1.104. Ez du burrunbak ondoriorik handiena.<sup>139</sup>

1.105. Ez du diruak egiten gizona; gizonak dirua baizik.<sup>64</sup>

*Azkue 2365 baiño osoago.*

1.106. Ez duenak, ezin eman.<sup>9</sup>

1.107. Ez duena utsaren duin, duenak buruko min.<sup>189</sup>

1.108. Ez du goseak inor hiltzen munduan; ezin janak hiltzen du jendea.<sup>185</sup>

1.109. Ez dugunik ezin gal.<sup>146</sup>

1.110. Ez duk txitxirio bikor ona!<sup>187</sup>

*Bihurria dela.*

1.111. Ez du soineko ederrenak egiten jauzkari hoberena.<sup>146</sup>

1.112. Ez egin bertzeri, bertzek zuri egitea nahi ez zinukenik.<sup>148</sup>

*Antzeko: Inza 1173.*

1.113. Ez egin emaitzagorik, ez eta galdu margorik.<sup>14</sup>

1.114. Ez egin ezer, endorea, entzun artean bestea.<sup>201</sup>

1.115. Ez egin oianean, eder ez danik ka-lean.<sup>201</sup>

1.116. Ez egon beldurrez nondik aterako den otsoa ez bada hartza.<sup>162</sup>

- 1.117. Ez eman azeririk antzera zain.<sup>153</sup>
- 1.118. Ez eman perruketari ezkurrik, ez eta xerriari azukrerik.<sup>152</sup>
- 1.119. Ezerezen arrokerija ta txorokillen suba laster amaitzen dira.<sup>15</sup>
- 1.120. Ezer izan ez, eta zerbait uste.<sup>9</sup>
- 1.121. Ez eros tratorrik, hura gidatu jakin gabe.<sup>146</sup>
- 1.122. Ez erran hala ez denik.<sup>151</sup>
- 1.123. Ez eskatu daukanari, maite zaitue-nari baizik.<sup>64</sup>
- 1.124. Ez ezar ahuntza aza-zain.<sup>155</sup>
- 1.125. Ez fida goiz izartsuari, are gutiago emazten nigarrerri.<sup>157</sup>
- 1.126. Ez gaiten ar ahateari igerika erakus-ten.<sup>146</sup>
- 1.127. Ez ginuzke aditu guziak sinetsi be-har.<sup>153</sup>
- 1.128. Ez jar mutil ohi baten meneko, na-gusi ohirik ez mana.<sup>139</sup>
- 1.129. Ez ikusi ta ez ikasi nornai dala; ala-ko lagunatik Jainkoak guarda nazala.<sup>9</sup>
- 1.130. Ezin badozu egin nai dozuna, egixu al dozuna.<sup>182</sup>
- 1.131. Ezin eginak eztu legerik.<sup>117</sup>

1.132. Ezin jan danean, oilloa zintzilik.<sup>22</sup>

1.133. Ez itzegiñ, ezpada nai utsegiñ.<sup>9</sup>

1.134. Ez juja edaria untzitik.<sup>137</sup>

1.135. Ez ixtuparik itxindien ondoan, ez neskarik mutikoen ondoan.<sup>146</sup>

1.136. Ezkion eta Gabirin, artartean gizona agirin.<sup>174</sup>

1.137. Ezkon aurretik neska zarra; ezkondu ta andre gaztea.<sup>54</sup>

1.138. Ezkonberri, etxe berri.<sup>22</sup>

1.139. Ezkonduko bada, erotu egin bear omen da.<sup>54</sup>

1.140. Ezkondu nintzan Osma'ra, jo neban ipurdiz ormara.

*Ezkon bixitzea, neketsuba dala dirausku esakun orrek.*<sup>179</sup>

*Ez ote da Oma'ra izango? Oma auzo txiki bat da, Kortezubi, Nabarniz eta Ereño tartean dagoana. Santamamiñe'ko kobak edo ar-zuloak bertan daude. Auzo ori, garai batean beintzat, aldrebes xamarra zan, zulo batean dagoalako, neguan otza dalako eta inguruko errietatik aparte xamar egiten zalako. Ala izanik, atsotitzaren esan-naia garbi-garbi ikusten da, Osma'raiño, Kastilla'raiño alegia, joan gabe ere. Gaur, berriz, auzo orrek kamio ederra du eta toki polita ta egoikia da. Adierazpen au, Ereño'ko Abel Muniategi'ren aotik jaso da.*

- 1.141. Ezkongaietan bero, kontuak gero.<sup>53</sup>
- 1.142. Ez kontatu dirubarekiñ, izan ar-  
tean.<sup>9</sup>
- 1.143. Ezkontza, hastean bero, hotza  
gero.<sup>139</sup>
- 1.144. Ezkontzako garaian, aldapa guztiak  
zelai, sasi guztiak luma.<sup>70</sup>  
*Inza 744 baiño osoago.*
- 1.145. Ezkontzerakuan etxia jantziya  
urrez; ezkondu ta gero lurrez.<sup>67</sup>
- 1.146. Ezkur asko, elur asko.<sup>99</sup>
- 1.147. Ezkur-urte, uso-urte.<sup>37</sup>
- 1.148. Ez nehorri ken esperantza.<sup>141</sup>
- 1.149. Ezpaiñak baiñon ortzak aurrerago.<sup>9</sup>
- 1.150. Ezpaiñetan pipa ta pipatik gora kea,  
ori ote pakea?<sup>123</sup>
- 1.151. Ez petentik xerrientzat, ez errex-  
metik astoentzat.<sup>145</sup>
- 1.152. Ez sinistu zero izartsuan, ez ere an-  
dre negartsuan.<sup>189</sup>
- 1.153. Ez sobera ez eskas, horra zuzena.<sup>151</sup>
- 1.154. Ez su, ez ke, beste norabait bazoaz-  
ke.<sup>123</sup>
- 1.155. Ezta azken gabeko gauzik.<sup>9</sup>
- 1.156. Ezta deskantsurik, ezpada nekerik.<sup>9</sup>

- 1.157. Ezta egunik, ezer ikasten eztanik.<sup>92</sup>
- 1.158. Ezta gaitzik, onik eztakarrenik.<sup>7</sup>
- 1.159. Eztago andi-txikarrean gizontasuna.<sup>200</sup>
- 1.160. Ezta ori liorrez galduko.  
*Azkarra edo zurra danagatik esaten da.*<sup>179</sup>
- 1.161. Eztarri txikia, balitzake edale garbia.<sup>9</sup>
- 1.162. Eztaukena, emon-gura.<sup>15</sup>
- 1.163. Ezta zazpi etxetako herrian galduko.<sup>155</sup>
- 1.164. Eztek ezer ere, aita il dek eze.<sup>14</sup>
- 1.165. Hezten ez den zaldia basatzen da.<sup>146</sup>
- 1.166. Ezti bilakatzen dena uliek jaten dute.<sup>146</sup>
- 1.167. Ezti nahi duenak erleak jasan bitza.<sup>153</sup>
- 1.168. Eztira astoarentzat egiñak konpiatiak.<sup>9</sup>
- 1.169. Eztira ogei urte bear ogei gauza ikusteko.<sup>9</sup>
- 1.170. Ez trenka eta ez koropilo.  
*Beti zalantzan bizi direnak.*<sup>195</sup>
- 1.171. Ez tronpatzeko behar da ixildu.<sup>120</sup>
- 1.172. Eztul zarra, lagun txarra<sup>9</sup>



1.173. Ezur aundiak, muñ aundia.<sup>201</sup>

1.174. Hezur bakarrari buruz bi zakur beti etsai.<sup>152</sup>

1.175. Ez ur eta ez salda.

*Erabagi gitxiko eta ganorabako diranagaitik esan oi da.*<sup>179</sup>

*Antzeko: Garibay-Urkijo' eneko bat; Azkue 2353.*

1.176. Ez utzi biarko gaur in leiken gauza.<sup>198</sup>

1.177. Ezurak zabal, okelak argal.<sup>189</sup>

1.178. Ezur zikiñak egositako eltzetik, salda garbirik ez.<sup>52</sup>

1.179. Ez uztart elgarrekin zaldi jauzkorra eta orein izikorra.<sup>142</sup>

1.180. Ez xahu, zuhurra baduzu, irabazten duzunaz goiti.<sup>153</sup>

1.181. Ez zerurako eta ez lurrerako.<sup>54</sup>.

## F

- 1.182. Fama txarra, sendatzen zailena.<sup>64</sup>
- 1.183. Farra egiten duenak, negarra ez du urruti.<sup>64</sup>
- 1.184. Fedea biziko argi.<sup>141</sup>
- 1.185. Fedean otzago, sorginkerian beroa-go.<sup>189</sup>
- 1.186. Fedean otz, gizakeriz motz.<sup>189</sup>
- 1.187. Federik hoberenean gerta gitazke egiatik kanpoan.<sup>145</sup>
- 1.188. Festak aurea ederragoa du, atzea baiñon.<sup>9</sup>
- 1.189. Festa non, ara zangoa.<sup>64</sup>
- 1.190. Fida zaite Maiatzeko loreari.<sup>137</sup>
- 1.191. Fortuna soinulari, dantzari on nor-nahi.<sup>154</sup>
- 1.192. Furiz laukoan basa-zezena, ur da-bilkio itauli eztena.<sup>189</sup>
- 1.193. Furtuts eta Murtuts, ez gu utz esku huts.<sup>136</sup>

## G

1.194. Gaba gabekoentzat, eguna egunekoentzat.<sup>189</sup>

1.195. Gabak egunari damaio eskua, onek ordaiñetan masailla beztua.<sup>189</sup>

1.196. Gabak eztau gauz onik.<sup>183</sup>

1.197. Gabaren kolko illunean, ontzak ulukaz alegiñean.<sup>189</sup>

1.198. Gabea da beltza.<sup>203</sup>

*Antzeko: Imaz 1061, 1335.*

1.199. Gabean parrandan eta goizean logura, ez zarie oingo (oraingo) gazteak osasunaren gura.<sup>190</sup>

*Antzeko: Azkue, 782, 1377, 2388.*

1.200. Gabeko txakurraren auria, laixter gorputzen bat izango du inguruak.<sup>198</sup>

1.201. Gaintze t'Intze, infernuko atarien giltze.

*Betelu, 1965.<sup>171</sup>*

- 1.202. Gaitza, arruaka etortzen da ta gramoka joan.<sup>81</sup>
- 1.203. Gaitza, kintalka etorri eta lumaka joan.<sup>8</sup>
- 1.204. Gaitza, nai badek ator, bakar baldin baator.<sup>7</sup>
- 1.205. Gaitz egiten badek, ainbeste uste bear dek.<sup>201</sup>
- 1.206. Gaitz eman badek, artu ere badek.<sup>9</sup>
- 1.207. Gaitzetik urri.<sup>9</sup>
- 1.208. Gaitz gogorrenak ere badu bere azkena.<sup>123</sup>
- 1.209. Gaitzik txarrena alperkeria.<sup>196</sup>
- 1.210. Gaixtaginak noizean behinka jendea bakean uzten du; ergelak sekulan ez.<sup>148</sup>
- 1.211. Gaixtagin ohia jandarmarik abile-na.<sup>148</sup>
- 1.212. Gaizki hasirik ere, ongi burura!<sup>136</sup>
- 1.213. Gaizki asi ta gaizki bukatu.<sup>54</sup>
- 1.214. Gaizki batek ezagun bestea.<sup>189</sup>
- 1.215. Gaizki dabillena gaizki amaitzen da; ondo bizi dana, ondo ill.<sup>18</sup>
- 1.216. Gaizki egiña laister azaldu, naiz-ta gaizkiñak ondo estaldu.<sup>189</sup>
- 1.217. Gaizki egiña nekez aztutzen da.<sup>9</sup>

1.218. Gaizkilleen ezurak lurrazpian gordetzen dira; baiña beren kalteak ez.<sup>123</sup>

1.219. Gaizto biurrienak ere bare-uneren bat izaten omen du.<sup>123</sup>

1.220. Gal bedi gixona ta ez aren ospe ona.<sup>92</sup>

1.221. Galdea bero, eskerra hotz.<sup>151</sup>

1.222. Galdera nola, erantzuna ala.<sup>189</sup>

1.223. Galduak, edozeiñi min ematen dio.<sup>9</sup>

1.224. Galdu errez, idoro gaitz.<sup>189</sup>

1.225. Galduz ikasten da edozein lanetan; eroriz, berriz, txutik ibiltzen.<sup>12</sup>

1.226. Galtza nasaiak aal direnean, galtza estuak besterik ezean.<sup>189</sup>

1.227. Galtza zarren sapalda, zizelluaren espalda.<sup>189</sup>

1.228. Ganbara bete arto, ez gagoz ain txarto.

*Arantzazu aldetik.*<sup>174</sup>

1.229. Ganderailu, tortxoak benedikatu, etxean ez dadin egin bekatu.<sup>132</sup>

1.230. Ganibetak geztera higitzen, eta gezterak ganibeta.<sup>146</sup>

1.231. Ganora bakuen etxian, gabeko saldia goxian.<sup>25</sup>

*Antzeko: Azkue, 1380.*

1.232. Garbi dagonak bildurrik ez.<sup>15</sup>

1.233. Garia ez da gero garoa.

*Azpeiti.*<sup>11</sup>

1.234. Garia eztarama egoiak.

*Ormaiztegi.*<sup>11</sup>

1.235. Gariak agotza bere, eta gizonak baita itzala ere.<sup>174</sup>

1.236. Gari ona kutxatik saldu-errez, gari zimurra eskeinka ere ez.<sup>189</sup>

1.237. Gari pilaren gainean bilatzen dute zenbaitek dirua.<sup>174</sup>

1.238. Garizime berant, negue berant.<sup>90</sup>

1.239. Gari-zorro ona etxeratzeko, dorretxoriei ez deitu laguntzeko.<sup>189</sup>

1.240. Garizuma, osagarri hainitzen ama.<sup>136</sup>

1.241. Garizumia goiz, negua goiz; Garizumia berandu, negua berandu.

*J.M. Satrustegi'k Urdiaingo Lukas Zufiaurre'ri jaso.*<sup>174</sup>

1.242. Garoa ta ira bat badira, zegaitik ez ire ta gure?<sup>105</sup>

1.243. Gatilu handi batek ez du berenaz asetzen.<sup>152</sup>

1.244. Gatua barurzale, esnerik ez due-no.<sup>159</sup>

1.245. Gatuak, ukana baino maiteago ebatsia.<sup>168</sup>

1.246. Gatu gastatuak sagurik ez bi-latzen.<sup>153</sup>

1.247. Gatu maukaria ez da izango eizta-ria.<sup>7</sup>

1.248. Gatza gatzontzijan eta zentzuna au-zuan.<sup>15</sup>

1.249. Gatzean-gatzean, zezifia eltzean.<sup>189</sup>

1.250. Gaua gauezkoentzat, eguna egunez-koentzat.<sup>5</sup>

1.251. Gaua sartua, dana nastua.<sup>7</sup>

1.252. Gaueko amabietan oillarraren orrua, inguruan izango dek sorgin arrua.<sup>64</sup>

1.253. Gaueko orduetan kantuz, biaramo-nean lantuz.<sup>189</sup>

1.254. Gauez katu guztiak beltzak.<sup>10</sup>

1.255. Gaur, biar baño lenago.<sup>201</sup>

1.256. Gaur eltzea kiskaliko da.<sup>63</sup>

1.257. Gaurik luzeenak ere egunsentian amaia.<sup>189</sup>

1.258. Gaurko egunak eman du berea, biarkoak balekar ohea...<sup>189</sup>

1.259. Gauza berarentzat, Uztaritzen omen, Baionan segurtamen.<sup>165</sup>

1.260. Gauza, erosterakoan saltzen da.

*Modu onean erosten bada, saldu ere errez egingo dala, irabazbidea utziko du-ta; baiñan gaizki eresia, saldu ere nekez egingo dala.*<sup>22</sup>

1.261. Gauza gora dijoanean, denak tratalari.

*Sasian artzai zarrak, Beaskin'go txabolan, 1945.*<sup>171</sup>

1.262. Gauza gutxi, beti goxo.<sup>9</sup>

1.263. Gauza gutxi dira diruditen bezela.<sup>123</sup>

1.264. Gauza guziyak badute beren neurriya.<sup>198</sup>

1.265. Gauza guziek bi gider.<sup>137</sup>

1.266. Gauza guztiak alde onetik artu egizuz.<sup>109</sup>

1.267. Gauza itsusietan itsusiena, mihi gaixtoa.<sup>148</sup>

1.268. Gauzak bi bider egin bear balira...<sup>9</sup>

1.269. Gauza merkea luzara kario.<sup>164</sup>

1.270. Gauza ona, denbora gutxiko.<sup>169</sup>

1.271. Gauzarik hoberenak finitze bat badu.<sup>120</sup>

1.272. Gauza tristea da beiaren bostgarren txala bezela gelditzea.



*Beiak lau titi izanik, bostgarren txala bauraurik geldituko bailitzake.*<sup>54</sup>

1.273. Gauza zarra, gordeta geo urre.<sup>198</sup>

1.274. Gauz gaizto, ez da iñoiz ilko.<sup>201</sup>

1.275. Gauz onak, iraunkor.<sup>201</sup>

1.276. Gaztaiña-orrixa ahuntzaren belarrixa aiña luzatu arte, artorik ez erein.

*Arantzazuko Sorandietako Pedro Urzelai aitona zaharrak.*<sup>174</sup>

1.277. Gaztaiñe, zure, janari ahule!  
*Nafarroa aldetik, Uharte-Arakilen.*<sup>174</sup>

1.278. Gaztain-karloa sagarroari ez laket berdinegiz.<sup>154</sup>

1.279. Gaztaroan lana ta zartzaroan jana.<sup>39</sup>

1.280. Gazteak, gogoia zoro.<sup>21</sup>

1.281. Gaztearo alperra, zartzaro lanez be-  
tea.<sup>201</sup>

*Antzeko: Oihenart 185, Azkue 1691.*

1.282. Gazterik sartu bide onean, ona izateko zartzen danean.<sup>9</sup>

1.283. Geiegi baño aski obe.<sup>201</sup>

1.284. Geiegi beteaz sakela, lertu egiten da.<sup>201</sup>

1.285. Geiegizkoa beti txarra.<sup>79</sup>

- 1.286. Geiegizko itz-jarioa, ur-bitsetan di-  
joa.<sup>189</sup>
- 1.287. Gehienek sofritu nahiago hil bai-  
no.<sup>148</sup>
- 1.288. Gelaatzak daki zein zein den.<sup>174</sup>
- 1.289. Gelaatzua, etxian etxian baltza eta  
gurian baltzagua!  
*Arantzazu mendian Aizkirri baserriko Bi-  
ttori amandreari jaso.*<sup>174</sup>
- 1.290. Gelaatzuak entzuten ditu etxeko go-  
rabehera guztixak eta ixilik egon.  
*Sorandietako Apolonia Beitia amandreari  
jaso.*<sup>174</sup>
- 1.291. Geldirik dagon erlojuak ere, egu-  
nean bietan ondō markatzen.<sup>53</sup>
- 1.292. Gelditzea azken, iñoiz aurrerapen.<sup>16</sup>
- 1.293. Gelditzen dakienak, bere burua  
zaintzen du.<sup>151</sup>
- 1.294. Genbillen-genbillen, iritxi giñen  
Sunbille'n.<sup>70</sup>
- 1.295. Gerla zer den ez daki, gerlan seme-  
rik ez duenak.<sup>146</sup>
- 1.296. Geroa besomotz edo zangomotz.<sup>142</sup>
- 1.297. Geroa, partida.<sup>195</sup>
- 1.298. Gero gauzak onak.<sup>9</sup>
- 1.299. Gero, gero da.<sup>184</sup>

- 1.300. Gero, geroko gero.<sup>105</sup>
- 1.301. Gero gero, otza eztena bero, zure purdie erre eta nereea bego.<sup>89</sup>
- 1.302. Gerorako gordea, katuak jaten orde.<sup>16</sup>
- 1.303. Geroxeago da biar.<sup>123</sup>
- 1.304. Gerra nai dabenak, bakerik ez.<sup>105</sup>
- 1.305. Gerran il ziranak, bakerik lortu ez eta gosea ezagutu eben.<sup>105</sup>
- 1.306. Gerrarik onena baiño, pake txarrena ohea da.<sup>12</sup>
- 1.307. Gerrikoa narras dago; galtzak narrasago.<sup>189</sup>
- 1.308. Gertatzen ez denik ez da.<sup>149</sup>
- 1.309. Getari'ko San Anton arratoia. Ondarroa'ko Mari Anton sagua.<sup>105</sup>
- 1.310. Gexorik txarrena, alperkerija.<sup>105</sup>
- 1.311. Gezala esaten dautse giputxak kresalari; bokarta be bai orreik antxoari.<sup>105</sup>
- 1.312. Gezur bat esaten badezu, gero, ura sinistarazteko, beste lau esan bear dituzu.<sup>12</sup>
- 1.313. Gezurra ez da zahartzen.<sup>151</sup>
- 1.314. Gezurrak egia labaindu, egiak gezurra amildu.<sup>189</sup>

1.315. Gezurtia eta kojoa, errex arrapatu.<sup>10</sup>

1.316. Gezurtia eta maingua laster atxemana.<sup>153</sup>

*Antzeko: Inza 986.*

1.317. Gezurtiak ez dio beste iñori sinisten.<sup>52</sup>

1.318. Gezurtiak ez du izan behar ahanzkor.<sup>146</sup>

1.319. Gezurtia leenagotik erortzen da, kojoa baiño.<sup>64</sup>

1.320. Giltzik bako atea, zaunka bako txakurra; jo, sartu ta aurrera.<sup>105</sup>

1.321. Giputxen itza eta zurezko giltza, bardin.<sup>32</sup>

*Bizkaitarrak diotena da au. Ikusi giputxak bizkaitarreatatik diotena 648'garren esae-ran.*

1.322. Giza prestuen eskasez, nere aita alkate.<sup>9</sup>

1.323. Gizona beti galtzeko, andrak tartean diranean.<sup>105</sup>

1.324. Gizona dabill, da Jaunak darabill.<sup>69</sup>

1.325. Gizona dagonean miñak arturik, edan beza ardo zaarra oporretik.<sup>189</sup>

1.326. Gizona eta senarra bi dira: senarra izan lei gizona ta gizona ez senarra.<sup>105</sup>

1.327. Gizona ez dago praka guztietan.<sup>58</sup>

1.328. Gizona ez du egiten gorputzak, bainan bai gogoak.<sup>136</sup>

1.329. Gizona gizona danak, andreak jakin gabe bost duroko bat patrikan bear dik.<sup>111</sup>

1.330. Gizona gizona danak, prakak aldean.<sup>105</sup>

1.331. Gizona gizonarentzat otso.<sup>174</sup>

1.332. Gizona gizon izateko, garunak eta prakak euren tokietan.<sup>105</sup>

1.333. Gizona iganago, ererikoa gaixtoago.<sup>128</sup>

1.334. Gizona ixill, arri billa dabill.<sup>9</sup>

1.335. Gizonak egiten ditu gauzak; ez gauzek gizona.<sup>187</sup>

1.336. Gizonak etxian eta andrak kalian, santuak ez dabiz amenian.<sup>105</sup>

1.337. Gizonak gauzak bere inguruan ontzen ditu, bainan ez du iduri bere buruaren hobetzeak hainitz griñatzen duela.<sup>148</sup>

1.338. Gizonak gizon bear dik, andreak joko badu ere.<sup>81</sup>

1.339. Gizonak klink eta andriak klonk, etxe aretan katua be lo konkor.<sup>105</sup>

1.340. Gizonak lehenengo jan bear ditu asunak, gero jateko lasunak.

*Lasuna, arrai gozo bat omen da. Orio, G.<sup>197</sup>*

*Antzeko: Azkue 1435.*

*Esaera onen berdintsua, 325'garrenean ere ematen da. Baiño ango adierazpena eta emengoa ez datoz bat. Ori argitu bearrez, Getari'ko gure adiskide Anjel Lazkano'ri deitu genion. Onela erantzun zigan:*

*Lasuna itxas-arrai bat da. (Azkue'ren iztegiak dionez erderazko mujol.) Itxasertzean, kai-inguruetan bizi dan lasuna, errietako zikiñak jaten ditu eta bastoagoa da. Orregatik ez du jendeak jaten. Itxas-barruan bizi dana, berriz, askoz ere fiñagoa. Ez da iñola ere muzin egin bear zaion arraia. Batez ere mantxa orixka bat duana. Orixe da gozoena. Mantxarik gabekoak ere badira, baiña ez dira ain gozoak. Mantxa orri gabeta esan oi zaiio.*

1.341. Gizonak, sonatua izateko, leku aldatu egin bear du erri batetik bestera.<sup>12</sup>

1.342. Gizonak urtean bi aldiz mozkortu bear omen du, zer nolakoa dan jakiteko.<sup>39</sup>

1.343. Gizona lanetik datorrenerako, sukaldea garbi, eta begiak argi.

*Arakil aldetik, gure zaharrek kontseju hau ematen zioten etxekoandre gazteari.<sup>174</sup>*

1.344. Gizona, lepotik gora neurtzen da.<sup>12</sup>

1.345. Gizon alperraren etxean, beiak antzu ta andrea ernari.<sup>39</sup>

1.346. Gizona meloinaren pareko: ontua-go, hobeago.<sup>152</sup>

1.347. Gizona opil bedeinkatua, andria abadetxeko kontularia.<sup>105</sup>

1.348. Gizonaren lehen mina, sortzea.<sup>148</sup>

1.349. Gizon arroak egiten du, besteren isatsarekin euliak bialdu, eta besteren luma-kin apaindu.<sup>10</sup>

1.350. Gizon arroari: Orrentzako ere izango dituk neurriko botak.<sup>64</sup>

1.351. Gizona tabernan, andrea jokuan, berriz ere egongo dituk linaiak zokoan eta praka zarrak kakoan.<sup>9</sup>

1.352. Gizona zorrak egiten ari dan bitarte bizi da ongien.<sup>178</sup>

1.353. Gizon bat ikusi dut lurreraifnoko an-kekin.<sup>58</sup>

1.354. Gizon goseak ez du aditzen.<sup>142</sup>

1.355. Gizon ibilkariak zer ez du ikas-ten? <sup>120</sup>

1.356. Gizonik den abilenak ez du bere garko-xiloa ikusi.<sup>151</sup>

1.357. Gizon kaxkarra mutiko izan oi da betiko.<sup>16</sup>

1.358. Gizon orrek ez dik, gibelean arrik.<sup>9</sup>

- 1.359. Gizon prest bakarra biren diña bada.<sup>14</sup>
- 1.360. Gizontasuna eztago gazte-zarrean.<sup>200</sup>
- 1.361. Gizon txarrak, arrazoi onik ez.<sup>9</sup>
- 1.362. Gizon txarraren andreak, izango ditu astean ostiral bi.<sup>9</sup>
- 1.363. Gizon txikia, berritsu aundia.<sup>9</sup>
- 1.364. Gobela Urduliz'en kare biziari, Urduliztarrak badakie zer erakutsi Ondarrutarrari.<sup>105</sup>
- 1.365. Gobernuak baditu bi beso: bat luzea, biltzeko; bertzea laburra, emaiteko.<sup>142</sup>
- 1.366. Gogoia apal delarik, solasak ere.<sup>156</sup>
- 1.367. Gogoia arin, bihotza huts.<sup>141</sup>
- 1.368. Gogorik ez eta egin bear, danak ez dau urtengo urre eta zidar.<sup>105</sup>
- 1.369. Gogorrari, begia beharri.<sup>151</sup>
- 1.370. Gogorrari gogorrago egin bear zaio.<sup>33</sup>
- 1.371. Gogorrena alkate.<sup>9</sup>
- 1.372. Goiari eutsi.<sup>22</sup>
- 1.373. Goien dagonak jotzen du kukurruku.<sup>39</sup>
- 1.374. Goierritik ekarritako andrea ta iji-toari erositako astoa, berdiñak.



*Nunbait ere badutela akatsa. Esaera au Goieritik kanpora esango da noski.*<sup>39</sup>

1.375. Goizaldean lo dagon azeriak ez du lumarik ahoan.<sup>153</sup>

1.376. Goizean burrunbunbun, eguna haizedun.<sup>153</sup>

1.377. Goizean goiz jeikitzen denak, arratseko zerbeit egiten du.<sup>9</sup>

1.378. Goizean lo, gabian alper, zorraren koska etxian laster.<sup>105</sup>

1.379. Goizean sortu kukusoa, arratseko amaso.<sup>141</sup>

1.380. Goizean trenaren otsa garbi badator, illuntzerako euria.

*Berrobi'ko esaera.*<sup>39</sup>

1.381. Goiz edo berandu, munduak azkena bear du.<sup>189</sup>

1.382. Goizeko ebiyak bidezkarria ez du izutzen; baño eguardikoak lotara bialtzen du.<sup>193</sup>

1.383. Goizeko lanak urrea balio.<sup>155</sup>

1.384. Goizeko ortzadarrak, soroko lanetik itzaia etxera bialtzen du.<sup>193</sup>

1.385. Goizeko hortzadarrari badarraiko zer nahi uri.<sup>148</sup>

1.386. Goizeko ozgorrik illuntzerako itu-

rrik; gaueko gorritsu, goizerako aizetsu.<sup>33</sup>

*Ormazabal 20 baiño osoago.*

1.387. Goiz gizon, berant ezkon.<sup>9</sup>

1.388. Goiz-goiz jagi arren, ezta eguna goizago zabaltzen.<sup>92</sup>

1.389. Goiz gorri, arrats iturri. Bai, gu orregaitik sarri ibiliko gaituk barregarri.<sup>102</sup>

*Besteetan baiño osoago edo luzagarri batekin.*

1.390. Goiz jeikitzen denari, Jaunak la-guntzen dio.<sup>64</sup>

1.391. Goiz gorri euritsu, arrats gorri aizetsu.<sup>22</sup>

1.392. Goiz jeikizalena izaiten ohi da fortuna.<sup>137</sup>

1.393. Goiz negu, bi negu.<sup>88</sup>

1.394. Goldarian asarrea, itaurlarian bizkarrera.<sup>189</sup>

1.395. Gooria, moria, ezin apainduta gooria ta beeria.

*Moda aldakorra dela eta neskatxak erenburua ezin apaindurik ibiltzen dirala. Graziano Anduaga zana, Gezaltza'ko aitona, Arantzazu.<sup>197</sup>*

1.396. Gora begiratu ta loiñak ageri, aurreko mutil orrek tontoa dirudi.<sup>190</sup>

1.397. Goraka antzarrak, artzaiak egun txarrak.<sup>16</sup>

1.398. Gorotzak lapinak salatzen.<sup>155</sup>

1.399. Gorputza ahulago eta nausiago; gorputza azkarrago eta mutilago.<sup>159</sup>

1.400. Gorputza osagilliak garbitzen dabe; arimia, apaizak; poltsea, lege-gixonak.<sup>180</sup>

1.401. Gorra da gure Manu, baiña ez ezer esan aren kontu.<sup>105</sup>

1.402. Gorringoa gorri, zuringoa zuri, muskerra musker eta gaberdia beltz-beltz.<sup>123</sup>

1.403. Gosea bera jaki, ta nekea bera oatze.  
*Erasun, N.*<sup>197</sup>

*Oihenart 203 baiño osoago.*

1.404. Goseak begiak argi.<sup>39</sup>

1.405. Goseak begi gorriak ditu.<sup>76</sup>

1.406. Goseak jolasik ez du.<sup>201</sup>

1.407. Goseak ogia guritzen.<sup>137</sup>

1.408. Goseak ortzak, beti zorrotzak.<sup>9</sup>

1.409. Gose bada, ez bada, astoak arrantza baldarra.<sup>189</sup>

1.410. Gose danak, opillaz amets.<sup>92</sup>

1.411. Gose danari jaten emar bear zaio; pakea bear duanari atsedena.<sup>123</sup>

1.412. Gose onarentzat ez da ogi beltzik.<sup>28</sup>

1.413. Gosetzean oso, jaki dana gozo.<sup>16</sup>

1.414. Griña txarra, asieran mendera errexa.<sup>64</sup>

1.415. Guardakaitza, katuarentzat.

*Nun edo nola gorde ez dakigun gauza, edo alperrik galdu edo katuak eramaten duala.*<sup>34</sup>

1.416. Gu bezelakuak bi mokau, ta biyak batian.

*Andoain.*<sup>11</sup>

1.417. Gu guzien bizi-nahiak bizi-arazten ditu medikuak.<sup>145</sup>

1.418. Gu ildakoan ere, astoak joango dira errotara, artorik baldin bada.<sup>12</sup>

*Bestetan baiño osoago.*

1.419. Guk asmo bat eta Jaungoikoak beste bat.<sup>33</sup>

1.420. Guk pentsa eta Jainkoak zati.<sup>108</sup>

1.421. Gu orroit aintzinekoez, ondokoak gutaz orroit diten.<sup>145</sup>

1.422. Gura ez ba'dozu utsegin, ez geiegi itzegin.<sup>109</sup>

1.423. Gurasoakin zu nola, zure umeak zurekin ala.<sup>41</sup>

1.424. Gurdi(y)a aurrekui seika (aurrekoari segika) juten da.<sup>198</sup>

1.425. Gurdia zenbatez ariñago, ardatzak kirrinka miñago.<sup>189</sup>

1.426. Gurdi mantso zarrak arrapatzen berri azkarrak.<sup>16</sup>

1.427. Gureak gure, bertzenak erdizka.<sup>155</sup>

1.428. Gure andrea kalean? Etxean krixadea uzaba andra ta gu ixillean bear.<sup>105</sup>

1.429. Gure andrea kalean, krixadea etxean nai daben moduan.<sup>105</sup>

1.430. Gure aretxen betzak, eta aurten ezkurrik ez.<sup>25</sup>

1.431. Gure burua goregi jaso naiak, askotan barregarri izten gaitu.<sup>109</sup>

1.432. Gure destinua, sortzean emana.<sup>195</sup>

1.433. Gure Diburtzi ta bere gizontzako, bata iñuzenti, bestia linborako.<sup>105</sup>

1.434. Gure erlijioarekin konten bada Jangoikua, pasa erraza da.

*Baita ere: Gure erlijioarekin konten bada Jangoikua, ez da biziosua.*<sup>196</sup>

1.435. Gure etxeak, aurretik atek.<sup>9</sup>

1.436. Gure etxeak aurretik leioak.

*Gauza on guztiak esan eta txarrak ixillik gorde oi ditunagatik esaten da.*<sup>123</sup>

1.437. Gure etxean badira lau zare; hetarik zaharrena zure!

*Elizako amarrenak ematean.*<sup>195</sup>

1.438. Gure etxe pobrea, erregerena baino hobe.<sup>185</sup>

1.439. Gure jaunaren gauzak, gozoak ziralakoan garratzak.<sup>12</sup>

1.440. Gure Jaungoikoa, bat bakarra ta bera naikoa.<sup>70</sup>

*Antzeko: Azkue 35.*

1.441. Gure Mañaxi, koitadatik pasata azkenean be txilin txilin.<sup>105</sup>

1.442. Gure piñuak bide luzea eruan dabe: batzutan ekarten dabe bakea, baiño askotan gerrea.

*Pamilixarako gerrea.*<sup>197</sup>

1.443. Gure hutsak goiz edo berant agertzen.<sup>154</sup>

1.444. Gurmak itxasoan, kandela biztu arasa gaiñean.<sup>105</sup>

1.445. Gurmatan galdu zan gizona, andrea aizetan ebillan artean.<sup>105</sup>

1.446. Gurmatzan txalopak tutuka, etxean andrak erreguka.<sup>105</sup>

1.447. Gu ta gu ta gu, azkenean Gurugu: moroak irabazi eta guk galdu,<sup>105</sup>

*Gurugu: Marruekos'ko mendi bat, español soldadu asko il zan tokia.*

- 1.448. Guti izan eta ainitz izan usteak.<sup>114</sup>
- 1.449. Gutxi aoan, alegiñak lanean.<sup>46</sup>
- 1.450. Gutxiena dakienak, geiena dakiela uste.<sup>9</sup>
- 1.451. Gutxi, eta nor bere.<sup>9</sup>
- 1.452. Gutxi jandako mandoa mandako.<sup>16</sup>
- 1.453. Gutxi ikasia, beti jakintsu.<sup>53</sup>
- 1.454. Gutxitan etortzea obe, bertan gelditzea baiño.<sup>52</sup>
- 1.455. Guziok gera jabe geure utsean, guztiok zordun ere eriotzaren atean.<sup>189</sup>
- 1.456. Guziok itsuak geran arte, begi-bakarra gure alkate.<sup>201</sup>
- 1.457. Guztien gogua egitia, ezta errez.<sup>182</sup>
- 1.458. Guzur bat esan neban Asterrika'n, ni baiño lenago zan Gorozika'n.<sup>105</sup>  
*Antzeko: Azkue 1572.*
- 1.459. Guzurra esan neban mendian, ni baiño lenago zan errian.<sup>18</sup>  
*Antzeko: Azkue, 1572, 1578; Inza, 286, 419, 1749.*
- 1.460. Guzurraren indarra, biztu orduko igarra.<sup>105</sup>
- 1.461. Guzur-zalea ezta zur-zalea.<sup>21</sup>

## ITURRIAK

(1) Frantzisko Paulo Aranburu apaiz jauna zana, Oiartzun'en jaioa eta Gipuzkoa'ko Zubietan bizia: 1506, 1509, 2417, 2516, 3104.

(2) *Eusko Folklore*, 1921, Oñati'n, Leonardo Guridi'k jasoak: 409, 474, 1484, 1717, 3089.

(3) *Eusko Folklore*, 1921, Abadiño'n Leon Bengoa'k jasoak: 437, 446, 721, 2834.

(4) *Eusko Folklore*, 1921, Larrabetzua'n Tiburtzio Ispitzua'k jasoak: 307, 724, 817, 824, 1065, 1624, 1788, 2204, 2506, 2523, 2584, 3025.

(5) *Eusko Folklore*, 1921, Elorrio'n Eujenio Larrañaga'k jasoak: 1250, 1806, 2015, 2527.

(6) *Eusko Folklore*, 1921, Zarautz'en Juan Iruretagoiena'k jasoak: 208, 1628, 1715, 2080, 2237, 2628, 3055.



(7) José Manterola: *Refranes y proverbios vascos*: 29, 68, 214, 281, 305, 518, 524, 540, 547, 612, 711, 767, 783, 876, 938, 986, 1013, 1158, 1204, 1247, 1251, 1479, 1523, 1946, 2230, 2243, 2244, 2246, 2258, 2284, 2288, 2332, 2395, 2469, 2727, 2758, 2786, 2824, 2838, 2854, 3077.

1911 urtean, *Euskalerrriaren alde aldizkariak*, Jose Manterola (1849-1884) zanaren esaera-bilduma bat agertu zuan. Aurretik onela zion:

*«Entre los papeles que dejó al morir, hemos encontrado unas cuartillas curiosas. En ellas recopiló el autor refranes del país vasco. En el pliego que sirve de cubierta a las cuartillas se lee: Refranes y proverbios vascongados. Reunidos en colección y ordenados por José Manterola. San Sebastián, 1877. El trabajo se halla dividido en tres partes: Refranes, frases proverbiales y frases notables.»*

Esateko moduak ere badira, beraz. Zuhurhitzak edo errefracuak ez diranak, alegia. Olatuak ez ditugu liburu ontan sartu.

Ondoren, oar au egiten du *Euskalerrriaren alde aldizkariak*:

*«No creemos que todos estos refranes y frases sean recogidos de boca del pueblo euskalduna; opinamos, por el contrario, que muchos de ellos son traducidos de otras lenguas, de la española principalmente.»*

Gu ere iritzi berekoak gera. Dudarik gabe,

badira erderatik itzuliak. Gure ustez olakoak diranak, ez ditugu liburu ontara aldatzen.

(8) Maria Etxeberria, gure ama zana, Donostia'n jaioa eta Tolosa'n bizia: 1203.

(9): Euskal esangiak, Euskal-Erria aldizkaria, 1893: XXVIII, 560-1 orri-aldeetan; XXIX, 10-1, 36-7, 69-70, 102-3, 140-1, 190-1, eta 220-1 orri-aldeetan: 73, 86, 98, 102, 191, 192, 195, 202, 203, 219, 227, 235, 241, 247, 260, 261, 268, 270, 278, 283, 287, 313, 318, 330, 354, 361, 364, 373, 390, 415, 426, 435, 455, 469, 477, 478, 501, 514, 537, 544, 560, 580, 598, 620, 657, 661, 688, 703, 704, 709, 743, 786, 812, 821, 834, 842, 889, 910, 914, 920, 940, 957, 977, 1005, 1008, 1010, 1011, 1012, 1028, 1030, 1049, 1052, 1053, 1082, 1084, 1087, 1089, 1091, 1093, 1097, 1098, 1099, 1106, 1120, 1129, 1133, 1142, 1149, 1155, 1156, 1161, 1168, 1169, 1172, 1188, 1206, 1207, 1217, 1223, 1262, 1268, 1282, 1298, 1322, 1334, 1351, 1358, 1361, 1362, 1363, 1371, 1377, 1387, 1408, 1435, 1450, 1451, 1471, 1496, 1505, 1538, 1554, 1571, 1577, 1578, 1579, 1580, 1598, 1603, 1605, 1616, 1630, 1634, 1663, 1668, 1685, 1691, 1701, 1704, 1705, 1707, 1714, 1768, 1769, 1803, 1815, 1824, 1836, 1851, 1854, 1892, 1937, 1967, 2033, 2040, 2042, 2102, 2118, 2126, 2171, 2174, 2178, 2195, 2200, 2226, 2227, 2228, 2229, 2231, 2232, 2238, 2255, 2257, 2271, 2272, 2273, 2327, 2343, 2350, 2351, 2353, 2354, 2368, 2369,

2370, 2390, 2394, 2460, 2462, 2472, 2481, 2487, 2488, 2493, 2609, 2716, 2717, 2719, 2727, 2735, 2762, 2772, 2777, 2798, 2816, 2881, 2904, 2914, 2916, 2960, 2967, 2992, 3003, 3007, 3035, 3041, 3053, 3059, 3060, 3063, 3065, 3069, 3074, 3111, 3119, 3133.

(10) Jose Ramon Erauskin Lujanbio zana, Txirrita bertsolariaren illoba eta azken urteetan sekretariotza egiten ziona. *Aien garaia* liburua egilea. Gazteluene baserria, Altza: 103, 382, 393, 587, 600, 689, 815, 879, 966, 1029, 1063, 1254, 1315, 1349, 1716, 1775, 2001, 2043, 2239, 2545, 2979, 2983, 3039.

(11) Etxeberria'tar P.: Esaera zarrak, Argia'ren Egutegia, 1933, 53 orri-aldean: 11, 12, 15, 16, 72, 92, 142, 161, 299, 370, 513, 516, 527, 635, 675, 682, 793, 797, 805, 866, 1017, 1046, 1233, 1234, 1416, 1656, 1735, 1804, 1831, 2010, 2047, 2179, 2237, 2414, 2482, 2561, 2590, 2629, 2646, 2707, 2779, 2780, 2818, 2849, 2880.

(12) Manuel Olaizola: *Uztapide* bertsolaria zana: 60, 118, 129, 347, 470, 472, 542, 565, 630, 654, 678, 732, 816, 840, 887, 1055, 1056, 1061, 1079, 1225, 1306, 1312, 1341, 1345, 1418, 1439, 1467, 1539, 1563, 1568, 1658, 1754, 1799, 1839, 1849, 1859, 2147, 2150, 2193, 2208, 2214, 2219, 2305, 2342, 2359, 2389, 2396, 2436, 2441, 2570, 2709, 2736, 2739, 2749, 2866.

(13) P.A. Ormetxea: *Esakunek*, *Euskal-*

*Esnalea* aldizkaria, 1909 eta 1915: 118, 139, 210, 226, 252, 326, 479, 592, 593, 619, 687, 918, 927, 928, 963, 1041, 1059, 1068, 1071, 1508, 1950, 1995, 2122, 2199, 2360, 2812, 2837.

(14) *Baserritarra* astekaria, 1905-XII-23, 1906-I-20, 1906-II-3, 1906-II-17 eta 1906-III-17: 100, 239, 399, 405, 525, 554, 579, 680, 904, 962, 1072, 1113, 1164, 1359, 1591, 1672, 1835, 1910, 2125, 2131, 2281, 2334, 2363, 2456, 2465, 2732, 2767, 2784, 2842, 2875, 3016, 3078, 3116, 3123.

Donosti'ko asteroko bat izan zan *Baserritarra* ori. Tamalez, bilduma osoa ez da orain arte, guk dakigularik beintzat, iñun azaldu. Ortik liburu ontara aldatutako esaerak, aitatutako bost egun oietan agertu ziran, aurretik II, IV, V eta VIII erromatar zenbakiak erantsita. Gaiñontzekoak falta dira, ordea, Esan bezela, aldizkariaren zenbaki danak ez baitira azaldu. Galdutako zenbaki oiek beste esaera-mordoxka bana izango dute.

Astekari ontan, euskal esaerak erderazko adierazpen bana dute ondotik. Merezi ez dualakoan, ez degu onera aldatzen, bitan edo irutan izan ezik.

(15) *Mañariko*: Bilbo'ko *Euzkadi* eguneroan, 1932-X-13'an: 56, 190, 335, 451, 499, 601, 658, 937, 1119, 1162, 1232, 1244, 1961, 2274, 2371, 2398, 2514, 2686, 2752, 2755, 2810, 3009, 3079.

(16) Joxe Mari Lertxundi bertsolaria, Laurgain, Aia, G.: 106, 194, 204, 250, 263, 276, 294, 342, 432, 485, 498, 541, 561, 597, 730, 750, 779, 883, 982, 1292, 1302, 1357, 1397, 1413, 1426, 1452, 1541, 1753, 1885, 1968, 2110, 2161, 2188, 2242, 2491, 2638, 2681, 2764, 2773, 3127.

(17) Balentin Zamora apaiz jauna, Leku-eder, Igeldo, Donosti: 1627.

(18) Felipe Arrese Beitia (1841-1906): *Ama Euskeriaren liburu kantaria*, Bilbo, 1914: 197, 271, 718, 1215, 1459, 1610, 1915, 2050, 2267, 2511, 2654, 2778, 2879, 3087.

(19) Felipe Arrese Beitia, *Urrineko intzaurrak*, Euskal-Erria, 1881: 2873.

(20) Felipe Arrese Beitia: *Olerkiak*, Bilbo, 1956: 3036.

(21) Pablo Zamarripa abade jauna: *Firi-firi, Ipuin ta naste*, Bermeo, 1935: 1280, 1461, 1819, 1996, 2028, 2418, 2517.

(22) Joakin eta Jesus Berastegi Mendizabal anaiak, Olaberria, G.: 35, 207, 244, 300, 339, 343, 584, 599, 610, 615, 642, 736, 778, 780, 782, 1060, 1101, 1132, 1138, 1260, 1372, 1391, 1492, 1651, 1882, 1884, 2090, 2109, 2130, 2425, 2674, 2713, 2808.

(23) Salvador Zapiain, *Ataño*, Errenteri'ko Bordazar baserrian jaio ta Ondarrabi'ko

Amute'n bizi dana: 172, 803, 863, 964, 1584, 1763, 1846, 1990, 2138, 3115.

(24) Salvador Zampirain, *Ataño*, *Auspoa* 147: 114.

(25) *Ete*, *Euzkadi* egunerokoa, Bilbo, 1932-IX-4: 63, 107, 200, 401, 402, 475, 649, 686, 852, 1231, 1430, 1686, 2410, 2526, 2708, 2738, 2972.

(28) *Kontu alai eta mardulak* liburuxka, Donosti, 1916: 442, 2534, 3006.

(27) Imanol Iraola, Bidani. G.: 2468.

(28) Alfonso Maria Zabala: *Gabon-gau bat*, *Euskal-Erria* aldizkaria, 1889: 1412.

(29) Juan Jose Irazusta: *Nork bere bidea*, I, *Auspoa* 143: 970.

(30) Juan Jose Irazusta, *Zaldunbordaberri*, Ondarrabi, G.: 1876.

(31) Iñaki Alkain, Antonio Zavala: *Gerrateko ibillerak*, *Auspoa*, 148, 149, 150: 484, 633, 1602, 1821.

(32) Luzio Gabiria, Gabiria, G.: 648, 864, 1321, 2861.

(33) Kreszentzio Imaz zana, Ataun, G.: 13, 681, 1370, 1386, 1419.

(34) Jazinto Fernandez Setien, Urnieta, G.: 941, 1415, 2044, 2694.

(35) Pedro Berrondo apaiz jauna, Oiartzun, G.: 444, 461.

(36) Jesus Mari Etxezarreta, Zumarraga; Ataun'go Jokin Dorronsoro apaiz jaunari entzuna: 749.

(37) Txomin Garmendia bertsolaria: *Erririk-erri, Auspoa*, 177: 165, 284, 983, 1044, 1147, 1977, 2111, 2471, 2756, 3064.

(38) Txomin Garmendia: *Bordaberri'ko gozo-mikatzak, Auspoa*, 170: 89, 515, 2757.

(39) Txomin Garmendia, Berrobi, G.: 144, 149, 186, 209, 222, 285, 349, 351, 381, 394, 486, 585, 690, 825, 831, 835, 911, 924, 991, 1037, 1279, 1342, 1345, 1373, 1374, 1380, 1404, 1495, 1615, 1617, 1734, 1771, 1786, 1794, 1816, 1823, 1825, 1845, 1901, 1904, 1909, 1941, 2135, 2292, 2566, 2683, 2696, 2794, 2962, 3071, 3081.

(40) Aita Juan Goikoetxea zana, Zerain, G.: 828, 972, 981.

(41) Gregorio Arrue: *Euskal-Erria* aldizkaria, V, 1882, 97 orri-alde: 1423.

(42) *Terescharen zucaldea*, Bayonne, Imp. de veuve Lamaignere, 25: 2882.

(43) Dominique Ezponde bertsolaria, Jatsu, BN: 1817, 2220, 2404.

(44) Fernando Artola Bordari zana, Ondarrabi, G: 2247.

(45) Graziano Anduaga, Luis Villasante: *Aitonaren uzta, Kuliska Sorta* 47-48, Zarautz, 1961: 95, 183, 404, 441, 2577.

(46) Aita Prantzisko Elizondarrak: *Lore usaindun-mamitsuak*, Tolosa, 1922: 1449.

(47) Aita Prantzisko Elizondoarra: *Loretegi berria*, Iruña, 1931: 954, 958, 2216, 2632.

(48) Irular: *Esakera jatorrak, Argia'ren egutegia*, 1933: 462, 627, 2201.

(49) Irular: *Mendiko uskaraz, Argia'ren egutegia*, 1936: 2095.

(50) Patxi Larrañaga bertsolaria, Azkoiti'n jaio ta Zarautz'en bizi dana: 365, 640, 3002.

(51) Pello Zabaleta, Legazpia: 1604.

(52) Pedro Artetxe, Urdaneta'n jaio eta Lasarte'n bizi dana: 104, 105, 150, 212, 257, 266, 292, 302, 311, 327, 356, 487, 589, 590, 602, 608, 830, 890, 926, 935, 939, 976, 1024, 1054, 1178, 1317, 1454, 1472, 1497, 1519, 1527, 1528, 1531, 1586, 1587, 1666, 1674, 1700, 1712, 1721, 1729, 1798, 1812, 1857, 1864, 1865, 1872, 1883, 1899, 1917, 1973, 1975, 2005, 2141, 2236, 2277, 2278, 2306, 2330, 2339, 2392, 2396, 2397, 2400, 2411, 2520, 2637, 2648, 2691, 2760, 2782, 2783, 2785, 2839, 2848, 2963, 2985, 2988, 3047, 3050, 3100, 3125.

(53) Agustin Zinkunegi, Andoain, G: 304,



583, 735, 822, 860, 944, 961, 995, 1043, 1070, 1095, 1141, 1291, 1453, 1764, 1874, 1905, 1911, 1962, 2039, 2100, 2121, 2184, 2189, 2352, 2427, 2524, 2589, 2685, 2781, 2850, 2982, 3013.

(54) Inozentzio Olea, Zerain'en jaioa ta Legazpi'n bizi dana: 21, 81, 220, 379, 416, 423, 543, 659, 705, 823, 874, 902, 1014, 1085, 1137, 1139, 1181, 1213, 1272, 1534, 1565, 1573, 1583, 1607, 1681, 1770, 1773, 1868, 2140, 2159, 2181, 2423, 2451, 2512, 2649, 2689, 2920, 2939, 3032, 3046.

(55) R.A.O. *El Cántabro* aldizkaria, 1893-IX-30: 303.

(56) Arbasstac, *El Cántabro* aldizkaria, 1894-V-13: 314.

(57) Gaiñchurisquetac, *El Cantabro*, 1895-XII-8: 468.

(58) Aitor Auzmendi Asurabarrena, Ataun, G.: 162, 613, 951, 1327, 1755, 1925, 1934, 2128, 2213, 2377, 2668.

(59) Mariano Garaialde, Alegi, G.: 427, 2081.

(60) Pepe Artola: *Ipui Berriyak* izeneko ipui-sortaren azalkaia, *Euskal-Erria* aldizkaria, XVI, 1887. Baita ere *Praixku* bakarrizketan: 2539.

(61) Txomin Aguirre: *Garoa*, Durango, 1912: 500.

(62) Felix Bilbao: *Ipuin barreka*, Bilbo, 1959: 321.

(63) Juan Mari Lekuona apaiz jauna, Oiartzun, G.: 273, 306, 320, 333, 388, 744, 1256, 1553, 1935, 1984, 3129.

(64) Iñaki Arbelaitz, Oiartzun: 111, 112, 223, 251, 280, 282, 288, 290, 307, 315, 418, 460, 476, 483, 489, 503, 517, 564, 581, 582, 626, 758, 768, 829, 878, 919, 929, 930, 933, 942, 943, 950, 960, 990, 996, 1076, 1077, 1105, 1123, 1182, 1183, 1189, 1252, 1319, 1350, 1390, 1414, 1540, 1567, 1589, 1608, 1684, 1710, 1723, 1787, 1801, 1844, 1886, 1900, 1931, 1971, 1981, 1987, 2006, 2034, 2088, 2295, 2300, 2315, 2453, 2478, 2615, 2635, 2659, 2692, 2693, 2703, 2721, 2730, 2731, 2733, 2734, 2760, 2826, 2828, 2829, 2859, 2878, 2971, 2996, 3024, 3031, 3057.

(65) Jean Baptiste Baskans, Urepele'ko jaun erretora, BN: 968, 969.

(66) Jose Manuel Etxeita: *Josetxo*, Durango, 1909: 2361, 2643.

(67) *Euskal-Erria*, aldizkaria, 76, 1917, 567, orri-aldean: 24, 617, 751, 1145, 2373.

(68) *Euskal-Erria* aldizkaria, 66, 1912, 188 orri-aldean: 386, 621.

(69) Juan Manuel Lertxundi Baztarrika: *Polli ta Pello*, cap. III, *Euskal-Erria* aldizkaria, 63, 1910, 364 orri-aldean: 1324.

(70) Noren aotik edo nundik jaso nituen apuntatu gabeak: 97, 286, 357, 494, 534, 762, 813, 1023, 1144, 1294, 1440, 1466, 1744, 1818, 2234, 2291, 2575, 2576, 2602, 2608, 2630, 2687, 2705, 2883, 3054.

(71) *Euskal-Erria* aldizkaria, 70, 1914, 374, orri-aldean: 272, 604.

(72) Txomin Garmendia: *Bertsolari-kurpilla, Auspoa* 171, Tolosa, 1984: 90, 692, 1018, 1959, 2142, 2540.

(73) Zirilo Ugarte zana, Beizama, G.: 2474.

(74) Joxe Mari Aranalde apaiz jauna, Gaztelu, G.: 1669, 2817.

(75) Orixek, Martin Oiartzabal apaizari idatzitako eskutitz batean, 1955-I-12'n, *Karmel*, 1980, 2: 591.

(76) Salvador Zampirain *Ataño: Zigorpean, Auspoa*, 181: 293, 1405, 1473, 1518.

(77) Haurmaite: «Erran zahar, erran zuhur», *Gure Herria*, 1923: 1, 1644, 2084.

(78) Paulo Zamarripa: *Refranes selectos del Quijote traducidos al vascuence, Vitoria, 1905*. Berrogei ta amar esaera dira. Baiñan itzulpenak, izenburuak aitortzen duanez. Tartean badira erriaren aotik jasoak, bertan esaten danez. Leendik argitaratuak, ordea, Abadiño'n bildutako bat izan ezik: 350.

(79) Tomas Otegi apaiz jauna, Alkiza, G.: 1285.

(80) Erramun Mujika, Katalintxo, Ugaldetxo, Oiartzun: 121, 1016.

(81) Iñaki Eizmendi *Basarri*, Zarautz: 1202, 1338, 1585, 2791.

(82) Arantxa Iruretagoiena, Tolosa: 548, 978, 1837.

(83) Patxi Lazkano, Otxoki baserria, Altza, G: 2233.

(84) Juan Garmendia Larrañaga, Luis Pedro Peña Santiago: *El mar de los vascos*, II, Donostia, 1983: 609, 1912, 2283.

(85) Juan Garmendia Larrañaga, Tolosa: 2362.

(86) Joxe Migel Iztueta, *Lazkao-Txiki* bertsolaria, Lazkao, G.: 164.

(87) *Argia* astekaria: 2, 908, 2067, 2077, 2078, 2082, 2092.

Martxoaren esaera-mordoxka ematen du. Baiñan beti *Epailla* esanez. Erriaren aotik etzan orrela aterako, *Martxoa* baizik, eta alaxe idatzi degu, aldateka egiñez. *Jorrailla* eta *Orrilla* zionean ere, *Apirilla* eta *Maiatza* idatzi degu.

(88) Mariano Izeta: *Baztango erranairu eta kanta xaharrak*, Diario de Navarra,

1981-I-31: 377, 378, 508, 1001, 1393, 1923, 2093, 2564.

(89) Mariano Izeta, Elizondo, N. Eskutitzez bialduta: 410, 481, 998, 1301, 1488, 1556, 1922, 2068, 2747, 3010.

(90) Mariano Izeta: *Baztanaldeko erranaitu gehiago*, Diario de Navarra, 1981-II-26: 1238.

(91) Aita Santi Onaindia karmeldarra Larrea, B.: 629, 850, 1625, 2312, 2367.

(92) Frantzisko Xabier Perea apaiz jauna, Mañaria, B.: 141, 145, 233, 753, 837, 882, 1157, 1220, 1388, 1410, 1843, 1906, 2035, 2211, 2549, 2775, 2872, 2907.

(93) Andres Amiano, Tolosa: 3049.

(94) Joxe Mari Azurmendi, Zegama, G.: 2579.

(95) Antonio Arrue zana, Asteasu, G.: 1525.

(96) Juan Anjel Etxebarria, Santurtzi, B.: 1507.

(97) Bitoriano Iraola: *Nere apurrak* liburuan: 2224.

(98) Pio Baroja: *La estrella del capitán Chimista*: 344.

(99) Egutegia, 1923: 1146.

(100) Gerra aurreko *Argia* asterokoan; bai-ña zein egunetakoa ez dakigu: 798.

(101) Ion Enbeita bertsolaria, Muxika, B: 2455.

(102) Alfonso Irigoyen, Bilbo, Aulestia'n bilduak: 1047, 1389.

(103) Agustin Zubikarai: *Kardala* liburuan, 1976: 2399, 2827.

(104) Augustin Zubikarai: *Boga ta zixe* liburuan: 154, 180, 440, 459, 463, 959, 989, 1659, 1695, 1697, 1898, 2053, 2056, 2154, 2408, 2486, 2601, 2606, 2627, 2631, 2697, 2722, 2741, 2769, 2789, 3096, 3097.

(105) Augustin Zubikarai, Ondarroa: *Ondarroa'ko itz eta joko eta esaerak*, argitara eman gabeko lana: 58, 77, 108, 110, 166, 205, 298, 332, 334, 374, 677, 679, 685, 691, 733, 739, 741, 742, 748, 752, 832, 894, 905, 923, 975, 979, 988, 992, 1242, 1300, 1304, 1305, 1309, 1310, 1311, 1320, 1323, 1326, 1330, 1332, 1336, 1339, 1347, 1364, 1368, 1378, 1401, 1428, 1429, 1433, 1441, 1444, 1445, 1446, 1447, 1458, 1460, 1462, 1463, 1486, 1491, 1499, 1502, 1510, 1511, 1513, 1516, 1558, 1564, 1566, 1597, 1620, 1621, 1622, 1653, 1654, 1660, 1662, 1667, 1694, 1696, 1698, 1717, 1725, 1726, 1728, 1747, 1751, 1756, 1757, 1760, 1762, 1780, 1784, 1785, 1791, 1793, 1797, 1810, 1811, 1813, 1814, 1822, 1829, 1830, 1832, 1833, 1847, 1852,

1893, 1894, 1895, 1902, 1926, 1943, 1947,  
1949, 1951, 1953, 1957, 1960, 1966, 1969,  
1972, 2011, 2048, 2049, 2057, 2058, 2059,  
2061, 2063, 2099, 2103, 2104, 2105, 2139,  
2155, 2156, 2290, 2299, 2318, 2322, 2323,  
2341, 2344, 2345, 2346, 2355, 2358, 2364,  
2366, 2372, 2393, 2416, 2422, 2438, 2473,  
2475, 2477, 2483, 2484, 2486, 2492, 2507,  
2508, 2515, 2519, 2525, 2538, 2542, 2543,  
2557, 2560, 2562, 2563, 2578, 2605, 2607,  
2626, 2634, 2642, 2647, 2660, 2662, 2680,  
2682, 2690, 2702, 2712, 2740, 2742, 2743,  
2744, 2745, 2746, 2765, 2768, 2796, 2797,  
2799, 2801, 2802, 2803, 2805, 2814, 2815,  
2831, 2832, 2833, 2835, 2840, 2845, 2846,  
2847, 2851, 2852, 2853, 2855, 2877, 2885,  
2886, 2894, 2912, 2919, 2922, 2926, 2927,  
2974, 2975, 2998, 2999, 3004, 3008, 3022,  
3023, 3040, 3044, 3080, 3082, 3083, 3084,  
3092, 3094, 3098, 3099, 3105, 3106.

(106) Xalbador bertsolaria zena, Urepel:  
1103, 2307.

(107) Mixel Xalbador, Urepel: 1646.

(108) E. E.: *Erramun-en orroitzapenak*,  
*Herria* astekaria, 1980-II-14 eta 21: 1420,  
2376.

(109) Egutegi-orri batzuetatik. Urterik ez  
dakigu. Bizkai'ko Aurrezki Kutxa, beraren  
argitaratzaile: 296, 511, 784, 906, 909, 1266,  
1422, 1431, 1795, 2806, 2965.

(110) Artizkua: *Bergara aldeko zenbait esaera zahar*, Donosti'ko *El Diario Vasco* egunkaria, 1982-V-29: 80, 140, 428, 727, 790, 838, 1058, 2055, 2603, 2795, 2819.

(111) Balentin Goiko-errota'koa, Urdaiaga, Usurbil, Ambrosio Zatarain'en bitartez: 1329.

(112) A. Zubikarai: *Santa Luziatan, Deia*, 1980-XII-13: 2621.

(113) *Ziberoan / Erran-zahar, Eskualduna* astekaria, 1912-V-17: 1555, 1999, 2874, 2949.

(114) J. B. Etcheberry: *Frantziako Erregina*, Baiona, 1966: 28, 64, 96, 567, 672, 740, 955, 1057, 1448, 1740, 1936, 2175, 2249, 2830, 2980.

(115) J. B. Etcheberry: *Orotarik* liburua, 1974: 1703, 2285.

(116) J. B. Etcheberry: *Han-hemenka* liburua: 138, 201, 265, 519, 794, 1572, 2405, 2718, 2956.

(117) J. B. Etcheberry: *Azken buruxkak* liburua, Baiona: 65, 385, 408, 447, 571, 722, 836, 934, 947, 1074, 1131, 1535, 1792, 1881, 2152, 2386, 2407, 2664, 2966.

(118) Lizarraga'ko (N) etxekoandre bat: 2809.

(119) Elorri: *Eguberri, Goiz-Argi* astekarian, 1966, abendua: 802.



(120) *Kantuz* izeneko kanta-bilduma, Baiona, *Hitz zuhurrez kantua*: 82, 130, 160, 188, 225, 359, 414, 453, 607, 673, 1069, 1086, 1092, 1171, 1271, 1355, 1503, 1609, 1676, 1688, 1858, 2196, 2522, 2528, 2720, 2841.

(121) Orio'tar bati entzuna, maiean apaltzeko exertzerakoan: 1487.

(122) *Armanak uskara edo Ziberuko egunaria*, 1910: 1007, 2051, 2269, 2726, 2910, 3018.

(123) Manu Oñatibia, Zarautz: *Esaldi bilketa*, Donosti'ko *El Diario Vasco* egunkarian, 1981-1983 urteetan: 23, 99, 152, 185, 199, 274, 277, 289, 291, 295, 297, 336, 340, 346, 429, 443, 466, 473, 578, 588, 595, 606, 676, 683, 684, 755, 776, 781, 785, 796, 814, 848, 849, 857, 872, 917, 953, 997, 999, 1020, 1026, 1038, 1042, 1064, 1066, 1150, 1154, 1208, 1218, 1219, 1263, 1303, 1402, 1411, 1436, 1469, 1512, 1545, 1559, 1560, 1606, 1626, 1639, 1853, 1860, 1929, 1938, 1939, 1940, 1958, 1964, 2133, 2186, 2203, 2248, 2262, 2304, 2338, 2391, 2412, 2413, 2470, 2513, 2518, 2698, 2699, 2723, 2753, 2761, 2787, 2800, 2900, 2901, 2911, 2917, 3001, 3033, 3034, 3045, 3118, 3120, 3124, 3132.

(124) Luzien: *Ihizlariak*, *Eskualduna* aste-karian, 1910-X-14: 436, 2869.

(125) Ambrosio Zatarain, Donostia: 384.

(126) Oiartzun'go Mariano Ostolaiz. Errenteri'ko Altamugarri baserriko Joxe Manuel Mendiburu'ri entzuna: 543.

(127) *Gure Almanaka*, 1935: 1766, 2169.

(128) *Gure Almanaka*, 1953: 572, 1333, 1498, 1727, 2031, 2725, 2899, 2976.

*Gure Almanaka* urteroko ontatik esaera zaar asko artu ditugu, irakurleak ikusiko duenez.

Agerkari orren orri-alderik geienak bi gizonak betetzen zituzten: P. Lafitte zenak eta J. B. Etcheberry'k.

Lafitte'k, oker ez bagaude, *Egutegia zuhur hitzekin* saila prestatzen zuen, beste gauza askoren artean. Ortxe esaera zaar asko sartzen zituen. Geientxoena, euskal esaera jatorrak. Baiñan baita ere tarteka, beste izkuntzetatik artu eta euskeratuak izan ditezkeanak. *Zuhur hitzak*, ordea, ipui zaarrak bezela, ez dira erri batenak; zabalagoko kultura baten frutua baizik. Erri bakoitza artzalle ta emale dan kultura baten uzta, alegia. Orregatik, Lafitte'k agertutako «zuhur hitz» geienak onartu ditugu liburu ontarako. Baiñan bakar batzuk baztertu, ageri-agerian jende ikasiaren aolkuak ziranean.

Etcheberry'ren lumatik sortzen ziran, berri, urteroko oietan an eta emen agertzen ziran ipui eta gertaerak. Idazle oni gutxik aurrea artuko diote euskera errikoi eta aberatsa erabiltzen. Ta bera izango da, dudarik gabe, esaera zaarrik geiena agertzen duana.

Baiña bai Lafitte'k eta bai Etcheberry'k beren lan oiek geienak firmatu gabe agertzen zituzten. Orregatik, *Gure Almanaka* oietatik artu ditugun esaera zaarrak, danak batera jarri ditugu emen, zein zeñena dan berezi gabe.

(129) *Gure Almanaka*, 1954: 39, 170, 1640, 1648, 1759, 1991, 2297, 2594, 2893.

(130) *Gure Almanaka*, 1956: 6, 41, 664, 1514, 1557, 1649, 1650, 1741, 1742, 1790, 1989, 2000, 2002, 2072, 2433, 2495, 2583, 2870, 2887, 2892, 2936.

(131) *Gure Almanaka*, 1957: 40, 169, 173, 406, 526, 662, 665, 800, 807, 846, 1088, 1548, 1765, 2003, 2023, 2069, 2582, 2611, 2843, 2862, 2929, 2934, 2946, 2957.

(132) *Gure Almanaka*, 1958: 360, 412, 521, 666, 668, 1229, 1595, 2079, 2096, 2185, 2858, 2895.

(133) *Gure Almanaka*, 1959: 22, 37, 178, 669, 1050, 1544, 1552, 1574, 1908, 2012, 2014, 2066, 2190, 2440, 2445, 2550, 2592, 2639, 2864, 2867, 2891, 2932, 2938.

(134) *Gure Almanaka*, 1960: 38, 407, 523, 667, 670, 799, 806, 843, 2004, 2007, 2429, 2612, 2935, 3102.

(135) *Gure Almanaka*, 1961: 851, 1515, 1551, 1593, 1652, 1807, 1983, 1998, 2008, 2074, 2320, 2581, 2599, 2614, 2640, 2860, 2865, 2890, 2896, 2933.

(136) *Gure Almanaka*, 1962: 115, 482, 801, 1193, 1212, 1240, 1328, 1641, 2107, 2108, 2349, 2374, 2464, 2544, 2552, 2558, 2572, 2596, 2597, 2617, 2622, 2793, 2906.

(137) *Gure Almanaka*, 1963: 9, 30, 33, 117, 175, 176, 211, 228, 375, 396, 458, 506, 512, 536, 552, 663, 700, 728, 734, 772, 808, 809, 845, 1039, 1134, 1190, 1265, 1392, 1407, 1476, 1575, 1642, 1645, 1647, 1749, 1758, 1855, 1988, 2013, 2016, 2020, 2037, 2071, 2073, 2085, 2086, 2089, 2194, 2197, 2240, 2275, 2324, 2442, 2444, 2466, 2490, 2494, 2500, 2551, 2555, 2559, 2580, 2585, 2591, 2623, 2624, 2663, 2820, 2888, 2889, 2906, 3019.

(138) *Gure Almanaka*, 1964: 20, 91, 363, 574, 618, 706, 987, 1003, 1481, 1501, 1631, 1777, 1887, 2223, 2382, 2430, 2431, 2928.

(139) *Gure Almanaka*, 1965: 78, 124, 611, 139, 766, 839, 925, 965, 1104, 1128, 1143, 1536, 1709, 1739, 1870, 1871, 1921, 2177, 2254, 2293, 2678, 2711, 2724, 2995.

(140) *Gure Almanaka*, 1966: 71, 171, 411, 844, 1592, 1643, 2598, 2613, 2931, 2954.

(141) *Gure Almanaka*, 1967: 131, 420, 628, 763, 853, 1148, 1184, 1367, 1379, 1776, 2222, 2241, 2402.

(142) *Gure Almanaka*, 1968: 4, 133, 134, 135, 237, 639, 656, 699, 731, 770, 819, 921, 1004, 1179, 1296, 1354, 1365, 1470, 1475,

1482, 1533, 1779, 1840, 2165, 2256, 2280, 2287, 2384, 2403, 2463, 2541, 2670, 2688, 2706, 2807, 2876, 2955, 2969, 3042. 3090.

(143) *Gure Almanaka*, 1969: 36, 184, 1550, 1997, 2009.

(144) *Gure Almanaka*, 1970: 369, 637, 756, 1526, 1547, 1702, 1891, 1933, 1976, 2428, 2499, 2504, 2530, 2666, 2701, 2897, 2941.

(145) *Gure Almanaka*, 1971: 1, 26, 127, 249, 430, 757, 895, 1151, 1187, 1417, 1421, 1655, 1730, 1980, 2276, 2714, 2994, 3109.

(146) *Gure Almanaka*, 1972: 3, 47, 69, 84, 159, 248, 324, 358, 366, 496, 553, 556, 632, 643, 708, 714, 738, 761, 787, 855, 922, 946, 948, 952, 1019, 1051, 1075, 1102, 1109, 1111, 1121, 1126, 1135, 1165, 1166, 1230, 1295, 1318, 1477, 1494, 1530, 1546, 1632, 1677, 1680, 1778, 1856, 1889, 1914, 1963, 2046, 2101, 2259, 2261, 2302, 2335, 2533, 2655, 2658, 2672, 2822, 2857, 2924, 2940, 2948, 2952, 2977, 2981, 2989, 3086.

(147) *Gure Almanaka*, 1973: 54, 641, 1480, 1483, 1594, 1808, 1985, 1986, 2210, 2381, 2502, 2673, 3048.

(148) *Gure Almanaka*, 1974: 17, 49, 52, 146, 189, 246, 337, 352, 400, 467, 490, 505, 557, 558, 568, 573, 577, 647, 652, 653, 715, 723, 764, 769, 771, 854, 871, 875, 891, 893, 897, 949, 956, 967, 993, 1090, 1112, 1210,

1211, 1267, 1287, 1337, 1348, 1385, 1474,  
1561, 1569, 1675, 1861, 1862, 1866, 1890,  
1965, 1982, 2041, 2060, 2164, 2206, 2296,  
2313, 2435, 2529, 2653, 2669, 2715, 2790,  
2821, 2964, 3091.

(149) *Gure Almanaka*, 1975: 746, 1308,  
2348, 2510.

(150) *Gure Almanaka*, 1976: 236, 422,  
514, 1040, 2303, 3113.

(151) *Gure Almanaka*, 1977: 83, 126, 245,  
431, 502, 638, 710, 726, 765, 791, 900, 984,  
1081, 1094, 1122, 1153, 1221, 1293, 1313,  
1356, 1369, 1689, 2106, 2704, 2871, 2951,  
3107, 3131.

(152) *Gure Almanaka*, 1978: 88, 224, 488,  
493, 495, 892, 1015, 1062, 1118, 1174,  
1243, 1346, 1520, 1522, 1708, 1783, 1945,  
2038, 2263, 2340, 2385, 2401, 2415, 2424,  
2457, 2641, 2652, 3108.

(153) *Gure Almanaka*, 1979: 8, 70, 94,  
193, 206, 229, 238, 317, 322, 323, 510, 520,  
528, 530, 531, 616, 623, 713, 737, 789, 896,  
1000, 1006, 1045, 1073, 1100, 1117, 1127,  
1167, 1180, 1246, 1316, 1375, 1376, 1543,  
1576, 1687, 1827, 1850, 1918, 2062, 2114,  
2146, 2168, 2251, 2309, 2328, 2336, 2459,  
2479, 2489, 2665, 2915, 2937, 2950, 2953,  
2961, 2986, 2990, 2991, 3101.

(154) *Gure Almanaka*, 1880: 158, 539,  
555, 624, 788, 818, 859, 1027, 1080, 1191,

1278, 1443, 1478, 1537, 1629, 1761, 1848, 1913, 2406, 2535, 2978.

(155) *Gure Almanaka*, 1981: 48, 123, 221, 259, 309, 376, 566, 570, 716, 720, 725, 754, 912, 1031, 1124, 1163, 1383, 1398, 1427, 1504, 1596, 1678, 1748, 1752, 1879, 1954, 2119, 2176, 2198, 2253, 2286, 2289, 2329, 2496, 2501, 2537, 2671, 2942, 2943, 2945, 2958, 2984, 3011, 3020, 3121, 3122, 3130.

(156) *Gure Almanaka*, 1982: 353, 1366, 2458, 2676.

(157) *Gure Almanaka*, 1983: 125, 698, 1125.

(158) *Gure Almanaka*, 1984: 529, 596, 719, 1970, 2030, 2217, 2294, 2409, 2498, 3088.

(159) *Herria astekaria*, 1962: 729, 1244, 1399, 1706, 1867, 2987.

(160) *Herria*, 1972: 759, 1682.

(161) *Herria*, 1973: 1035.

(162) *Herria*, 1979: 1116, 2145, 2944, 3126.

(163) *Herria*, 1980: 3114.

(164) *Herria*, 1981: 25, 777, 1269, 3062.

(165) *Herria*, 1982: 61, 717, 1259.

(166) *Herria*, 1983: 32, 1570, 1828.

(167) *Herria*, 1984: 34, 2823, 3073.

(168) *Herria*, 1985: 532, 533, 1245.

(169) Mariano Ostolaiz: *Oroipen-kutxa, Auspoa*, 182: 492, 559, 1270, 1683, 1955, 2574.

(170) R. M. Azkue: *Batxi guzur ipuia, Euskalzale aldizkarian*, 1897, 317 orri-aldean: 1772, 1774, 2183.

(171) Jesus Elosegui: *Etno-gaiak, Munibe aldizkarian*, XXIII urtea, 4'garren zenbakia: 319, 747, 916, 1201, 1261, 1590, 1782, 2022, 2151, 2546, 2553, 3095.

(172) *Saski-naski aldizkaria*, 1980: 1489, 2467.

(173) *Saski-naski*, aldizkaria, 1981: 660, 2356, 2380, 2383.

(174) Julian Alustiza *Aztiri: Euskal base-riaren inguruan*, Arantzazu, Oñati, 1985: 10, 14, 42, 44, 62, 85, 116, 136, 147, 181, 182, 240, 254, 255, 262, 329, 345, 391, 395, 509, 651, 792, 795, 862, 865, 868, 869, 870, 903, 994, 1036, 1136, 1228, 1235, 1237, 1241, 1276, 1277, 1288, 1289, 1290, 1331, 1343, 1529, 1581, 1619, 1732, 1733, 1736, 1805, 1841, 1863, 1877, 1928, 1932, 1992, 2019, 2025, 2026, 2091, 2094, 2098, 2116, 2162, 2187, 2191, 2347, 2432, 2434, 2439, 2443, 2446, 2450, 2509, 2554, 2556, 2569, 2586, 2588, 2593, 2625, 2661, 2667, 2675, 3103, 3110.



(175) Jose Ramon Erauskin: *Aien garaia*: 253, 383, 1661.

(176) Luis Baraiazarra: *Arbasoen lorratzean, Karmel*, 1980: 243, 2856.

(177) Julian Alustiza: *Lihoaren penak eta nekeak*, Arantzazu, Oñati, 1981: 55, 216, 234, 575, 697, 888, 1737, 1952, 2127, 2225, 2301, 3061.

(178) Sebastian Salaberria, Oriamendi, Aiete, Donostia: 1352, 1692, 1979, 2137, 2250, 2684, 2776.

(179) M. Ziarsolo, *Abeletxe: Esakun zarrak, Eusko Enda* aldizkaria, 1939, 2'garren zenbakia: 137, 143, 450, 538, 605, 622, 884, 1022, 1140, 1160, 1175, 1517, 1524, 1907, 2045, 2218, 2750.

(180) M. Ziarsolo, *Abeletxe: Esakun zarrak, Eusko Enda* aldizkaria, 1939, 3'garren zenbakia: 74, 101, 128, 231, 448, 497, 576, 696, 774, 1400, 1623, 1896, 2083, 2182, 2270.

(181) M. Ziarsolo, *Abeletxe: Esakun zarrak, Eusko Enda* aldizkaria, 1939, 5'garren zenbakia: 230, 242, 256, 331, 913, 936, 1699, 1897, 2317, 2770, 2792.

(182) M. Ziarsolo, *Abeletxe: Esakun zarrak, Eusko Enda* aldizkaria, 1939, 9'garren zenbakia: 31, 67, 163, 338, 398, 507, 546, 1130, 1457, 2532, 2825.

(183) M. Ziarsolo, Abeletxe: Esakun zarrak, *Eusko Enda* aldizkaria, 1939, 9'garren zenbakia: 122, 645, 1196, 1750, 2027.

(184) M. Ziarsolo: «Abeletxe»: Esakun zarrak, *Eusko Enda* aldizkaria, 1939, 12'garren zenbakia: 18, 267, 413, 674, 841, 1299, 1493, 1633, 1679.

(185) Jose Maria Satrustegui apaiz jauna, Luzaide'n bilduak: 93, 151, 179, 301, 372, 433, 549, 702, 712, 899, 1108, 1438, 1468, 1532, 1718, 1820, 1873, 2054, 2075, 2087, 2129, 2160, 2357, 2480, 2657, 2754, 2993, 3068.

(186) Jose Maria Satrustegui apaiz jauna, Aezkoa'n bildua: 2379.

(187) Jose Maria Satrustegi apaiz jauna, Arruazu'n bilduak: 625, 915, 1110, 1335, 2135, 2437, 3112.

(188) Abel Muniategi, Ereño: 2421.

(189) Martin Ugarte, Legazpia: «Euskal esaera batzuk», Karmel, 1983, 3-4: 5, 27, 43, 50, 75, 79, 87, 120, 155, 156, 187, 196, 198, 215, 218, 232, 275, 310, 312, 325, 362, 371, 387, 389, 403, 417, 419, 424, 438, 439, 449, 452, 454, 456, 465, 471, 491, 504, 522, 550, 563, 634, 644, 646, 650, 701, 745, 760, 773, 811, 826, 827, 833, 847, 856, 861, 873, 886, 907, 931, 932, 980, 1002, 1032, 1033, 1034, 1048, 1078, 1107, 1152, 1177, 1185, 1186, 1192, 1194, 1195, 1197, 1214, 1216, 1222,

1224, 1226, 1227, 1236, 1239, 1249, 1253,  
1257, 1258, 1286, 1307, 1314, 1325, 1381,  
1394, 1409, 1425, 1455, 1464, 1465, 1485,  
1546, 1562, 1582, 1588, 1613, 1614, 1618,  
1635, 1636, 1637, 1638, 1690, 1693, 1711,  
1719, 1722, 1731, 1745, 1746, 1796, 1809,  
1838, 1842, 1880, 1888, 1919, 1920, 1927,  
1956, 1974, 1978, 2021, 2029, 2052, 2113,  
2115, 2117, 2123, 2124, 2132, 2143, 2144,  
2148, 2149, 2153, 2157, 2167, 2170, 2172,  
2173, 2192, 2207, 2212, 2215, 2221, 2260,  
2264, 2265, 2266, 2268, 2298, 2314, 2316,  
2319, 2321, 2325, 2326, 2365, 2375, 2387,  
2388, 2448, 2449, 2454, 2461, 2476, 2497,  
2505, 2521, 2536, 2565, 2610, 2644, 2645,  
2651, 2677, 2700, 2710, 2728, 2748, 2763,  
2774, 2788, 2804, 2813, 2836, 2844, 2884,  
2898, 2909, 2913, 2947, 2959, 2968, 2973,  
2997, 3000, 3015, 3017, 3026, 3027, 3028,  
3029, 3043, 3056, 3058, 3066, 3067, 3070,  
3075, 3076, 3117, 3128.

(190) Juan San Martin, Eibar: 695, 1199,  
1396, 1903, 2136, 2679, 3093.

(191) *Argia* astekaria, 1932-IV-3, *Il ontako esaera zarrak*: 167, 174, 2587.

*Jorrailla* eta *Orrilla* itzak, erriak orrela esango ez baitzitian, aldatu eta *Apirilla* eta *Maiatza* idatzi ditugu.

(192) *Argia* astekaria, 1932-V-1, *Il ontako esaera zarrak*: 397, 2017, 2018, 2616.

Ontan ere, *Orrilla* zionean, *Maiatza* idatzi degu.

(193) *Argia* astekaria, 1932-VII-3, *Il ontako esaera zarrak*: 1382, 1384, 1993, 1994, 2930.

(194) *Argia* astekaria, 1932-X-2: «*Il ontako esaera zarrak*»: 1600, 2180, 2604, 2618, 2636.

(195) Jose Maria Satrustegi, Urdiain, Napparroa, 1895-VII-18'an bialduta: 19, 51, 59, 76, 119, 153, 157, 269, 279, 328, 348, 421, 425, 545, 569, 603, 636, 671, 775, 820, 901, 945, 1009, 1067, 1083, 1170, 1297, 1432, 1437, 1599, 1601, 1781, 2120, 2158, 2310, 2311, 2419, 2531, 2633, 2751, 2766, 2970, 3052.

(196) Jose Maria Satrustegi, Urdiain, bertan bilduak: 168, 445, 804, 877, 1209, 1434, 1743, 1869, 1924, 2097, 2426, 2447, 2452, 2503, 2548, 2595, 2600, 2868, 3014, 3051.

(197) Julian Alustia prantziskotarra, Arantzazu: 45, 66, 177, 392, 457, 480, 535, 655, 810, 898, 971, 1340, 1395, 1403, 1442, 1657, 1665, 1720, 1878, 2024, 2036, 2064, 2070, 2205, 2547, 2567, 2568, 2573, 2729, 3005, 3012, 3030.

(198) Oiartzun'go *Iturriotz*, 1985 urtekarria, *Iturri Berri* Elkarteak argitaratua: *Euske-  
ra Bizia, Esaera zaharrak*: 46, 53, 109, 113, 148, 316, 341, 367, 464, 586, 614, 631, 694, 880, 881, 985, 1176, 1200, 1264, 1273, 1424, 1664, 1724, 1789, 1800, 1802, 1930,

2032, 2112, 2235, 2245, 2571, 2619, 2620, 2650, 2921, 3021, 3037, 3038.

(199) Oiartzun'go *Iturriotz*, 1985 urteak-  
ria, *Iturri Berri* Elkarteak argitaratua: *Euske-  
ra bizia, Modismoak eta elkarrizketaren ba-  
rruan erabiltzen diren errekurtsok*: 57, 199,  
264, 368, 885, 2252, 2378.

(200) Pablo de Zamarripa: *Manual del  
vascófilo*, Bilbao, 1913: 434, 551, 1159,  
1360, 2420, 3085.

(201) Isaac Lopez Mendizabal: *Manual de  
conversación castellano-euzkera*, Tolosa,  
1918: 213, 258, 380, 562, 693, 858, 867,  
973, 974, 1021, 1025, 1096, 1114, 1115,  
1173, 1205, 1255, 1274, 1275, 1281, 1283,  
1284, 1406, 1456, 1490, 1500, 1521, 1542,  
1611, 1612, 1670, 1671, 1673, 1713, 1738,  
1826, 1875, 1916, 1942, 1944, 2163, 2166,  
2202, 2279, 2282, 2308, 2331, 2333, 2656,  
2695, 2771, 2811, 2863, 2918, 2923, 2925,  
3072.

(202) Estanislao J. de Labayru y Goicoe-  
chea: *Historia general del Señorío de Biz-  
caya*, *La gran Enciclopedia Vasca*, Bilbao  
1968: 1948.

(203) Piarres Charritton, Hazparne: 1198.

(204) Pedro Maria Otaño: *Alkar* liburuan:  
355.

(205) *Auspoa* 183, 129 orri-aldean: 1834.

## AURKIBIDEA

Itzaurrea .....	7
A .....	23
B .....	57
D .....	77
E .....	83
F .....	117
G .....	119
Iturriak .....	141


## ORAINDAÑOKO LIBURUAK (101'garretik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten zirria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.

134. *J.M. Arrizabalo* – *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6). (*Aitua*).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I). (*Aitua*).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II). (*Aitua*).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III). (*Aitua*).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*).
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari Kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (I).
175. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (II).



176. *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177. *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178. *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
179. *Ataño*: Espetxeko negarrak.
180. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan (I).
181. *Ataño*: Zigorpean.
182. *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
183. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan (II).
184. *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria (I).
185. *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria (II).



AUSPOA  
LIBURUTEGIA



ANTONIO ZAVALA

ESAERA ZAARREN  
BILDUMA BERRIA (II)

ANTONIO ZAVALA

AUSPOA LIBURUTEGIA

185

---

**Auspoa Liburutegia**  
**EDITORIAL AUSPOA**

**Plaza Santa María, 2 – Tolosa, Gipuzkoa**  
**Tfno.: (943) 67 12 82**

ANTONIO ZAVALA

**ESAERA ZAARREN  
BILDUMA BERRIA**

**II**

**(I - Z)**

AUSPOA LIBURUTEGUIA

1985

© Auspoa Liburutegia (Tolosa-Guipuzkoa)  
Fotokonposatzalle: Lente-Estella  
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)  
ISBN: 84-7158-131-0 (Tomo II)  
ISBN: 84-7158-129-9 (Obra completa)  
Depósito Legal: NA.: 1.409-1985

# I

1.462. Jaboi asko miñin eta ezpanak zikin.<sup>105</sup>

1.463. «Jagi, jagi, euskotarra» asko; ta, komeni danean, Maria Ollasko.<sup>105</sup>

1.464. Jai-eguna lanerako? Galtza zarrak betirako.<sup>189</sup>

1.465. Jai-egun da lanera? Alea jalgi ta lastoa baera.<sup>189</sup>

1.466. Jai eguneko lanak ez du iñor aberastu.<sup>70</sup>

1.467. Jaieko lanak irabazirik ez.<sup>12</sup>

1.468. Jainkoa ari da beti eskaler egiten.

*Agure zahar bati galdetu nion zer esan nahi zuen, eta «Goien daudenak jaisteko eta beherekoak jasotzeko» erantzun zidan.<sup>185</sup>*

1.469. Jainkoa betikoa!

*Ontziren bat puskatutakoan esan oi duguna.<sup>123</sup>*



1.470. Jainkoak ardi ile-motzari aizea izartzen.<sup>142</sup>

1.471. Jainkoak egin eta eurak elkarrekin.<sup>9</sup>

1.472. Jainkoak emango al digu otzik aibat estalki.<sup>52</sup>

1.473. Jainkoak estutzen badaki, baña ez itotzen.<sup>76</sup>

1.474. Jainkoak ez badu nahi, sainduak ahal guti.<sup>148</sup>

1.475. Jainkoa langilearen laguntzaile, ez arrunt ordaintzaile.<sup>142</sup>

1.476. Jainkoa langile hun, bainan galdatzen lagun.<sup>137</sup>

1.477. Jainkoaren beldur ez denaren beldurtzeko da.<sup>146</sup>

1.478. Jainkoaren gogoia, munduaren miraila.<sup>154</sup>

1.479. Jainkoari erreguz, bearrari malluz.<sup>7</sup>

1.480. Jainkoaz oroit ez denak aise ahanzen eginbidea.<sup>147</sup>

1.481. Jakitatea bat da, zuzentasuna lehen.<sup>138</sup>

1.482. Jakitatearen miseria: ikasi dugu gerlaren egiten, bainan ez bakearen.<sup>142</sup>

1.483. Jakitatetik jende prestuak ona ateratzen du; jakitatetik gaiztoak gaiztakeria.<sup>147</sup>

1.484. Jakiteko artzen, ikas zazu ematen.<sup>2</sup>

1.485. Jakituna sarritan ixilik, ez jakiña ixildu eziñik.<sup>189</sup>

1.486. Jalea ta jangura, ezkontzeko geratu ziran doterik ez ta.<sup>105</sup>

1.487. Janak on egin deigula, edanak gaitzik ez, eta maiean zer esan paltik ez.<sup>121</sup>

1.488. Jana'ko zokoan lano, bier denbora sano.

*Yana'ko zokoa Auza'ko mendian dago, Erratzu'tik urbil. Yana deitzen diote mendi-zoko horri.*<sup>89</sup>

1.489. Janari txarrak ontzeko, ez da gosea bezelakorik.<sup>172</sup>

1.490. Jan bear badek, lan egin bearko dek.<sup>201</sup>

1.491. Jan da jateko.<sup>105</sup>

1.492. Jan da lan.<sup>22</sup>

1.493. Jan eta otz, mirikuak eztatoz.

*Jan ondoren soña apur bat otz nabaitzia, osasun-agiria dala jakiñazoten digu esakun orrek.*<sup>184</sup>

*Antzeko: Oihenart 258, Azkue 184.*

1.494. Jan gabeak hiltzen, eta janegiak ere.<sup>146</sup>

1.495. Jan gabeko gizenik ez; baiña jandako plakoa bai.<sup>39</sup>

1.496. Jan lodi, bizitzeko guri.<sup>9</sup>

1.497. Iarekin lastorik ez.

*Ozta-ozta ibilli arren, iritxi eziña adierazteko.*<sup>52</sup>

1.498. Jarraik zaite ongiari, Jainkoak emanen sari.<sup>128</sup>

1.499. Jaso ta jazo, artajorran ezagutu ei ziran.<sup>105</sup>

1.500. Jasotzen duenak, arkitzen du.<sup>201</sup>

1.501. Jateak gosea zirikatzen, goseak jaten laguntzen.<sup>138</sup>

1.502. Jateko txarrentzako, gosea lakorik ez.<sup>105</sup>

*Antzeko: «Zahar hitz, zuhur hitz», 380 orri-aldean.*

1.503. Jaunak bakarrik daki zer daiken geroa.<sup>120</sup>

1.504. Jaunen jaunak agertzen gutien us-tean.<sup>155</sup>

1.505. Jaungoikoak berri on bana dezala.<sup>9</sup>

1.506. Jaungoikoak bost beatzak desberdiñak egin zituen.<sup>1</sup>

1.507. Jaungoikoak egin eta aizeak pillotu.

*Otxandio'n entzuna.*

*Erderazko Dios los cría y ellos se juntan.*<sup>96</sup>

1.508. Jaungoikoak emoten dau beti otzik aĩñ jantzi.<sup>13</sup>

1.509. Jaungoikoak ez dizkik argizarizko begiak.<sup>1</sup>

1.510. «Jaungoiko!» asko negarretan; eta zer dirua dagonetan?<sup>105</sup>

1.511. Jauregi asko paperetan eta Etxezarreta apelliduan.<sup>105</sup>

1.512. Jauregiko andiputzkeria baiño, etxolako pake apala obe.<sup>123</sup>

1.513. Jausi ta jaso ezin, janik be iruntsi ezin, nire urteak kontatu leiz juan zirane-kin.<sup>105</sup>

1.514. Ihaute ixtilkor, Bazko urikor, moltsa betekor.<sup>130</sup>

1.515. Ihaute-kari, irriak erreberri.<sup>135</sup>

1.516. Jauzkorra ei da gizona, ta emaztea zirikorra.<sup>105</sup>

1.517. I az ixateko atxur kirtena.

*Gangarkerijak edo bide-gabekerijak esaten dauzanari esaten yako.*<sup>179</sup>

1.518. Ibai naasia, arrantzaleen irabazia.<sup>76</sup>

1.519. I beti txoriak bezela: puntarik-punta.<sup>52</sup>

*Aldakorra ta aitzindaria adierazteko.*

1.520. Ibil hadi erreposki, bainan urrunerat behatuz.<sup>152</sup>

1.521. Ibili pozean, ta biurtu utsean.<sup>201</sup>

1.522. Idek begi bat saltzeko, biga erosteko.<sup>152</sup>

*Antzeko: Oihenart 74.*

1.523. Idiak bearrean, gurdiak orro.<sup>7</sup>

1.524. Idia lamaikuan eta lamaikorik ez.

*Gauzia merke erosteko eretija ixan arren, dirurik ezpada, ezin erosi daitekela dirausku.*<sup>179</sup>

1.525. Idia sudur-mintzetatik, gizona itzetatik.<sup>95</sup>

1.526. Idi baten saria ez baduzu, eros aratxea.<sup>144</sup>

1.527. Idi ezkerak aizea ikusten; baiña nolakoa dan iñori ez esaten.<sup>52</sup>

1.528. Idi txikiak adar aundi; gizon txikiak marru aundi.<sup>52</sup>

1.529. Idi zurixak saldu eta artua ekarri.

*Leandro Arrolak ematen zuen esaera.*<sup>174</sup>

1.530. Idortearen ondotik uria ere atsegin-garri.<sup>146</sup>

1.531. Jendea ixilik, oriotarrak atzetik.

*Estropada-egunetako esaera.*<sup>52</sup>

1.532. Jendeak jendea balio du.<sup>185</sup>

- 1.533. Jendearen larrupean hainitz alimale.<sup>142</sup>
- 1.534. Jende berria, lege berria.<sup>54</sup>
- 1.535. Jende herabeak ogi mokor mutzi-  
tuak, ahalge gabeak aldiz eper erreak.<sup>117</sup>
- 1.536. Jendetasunik gabeko jakintsuna,  
otso izigarri.<sup>139</sup>
- 1.537. Jende xaharrak ez ditu bere kopeta-  
ko ximurrak ikusten.<sup>154</sup>
- 1.538. Jenioa mudatzen du aitzurrak eta  
palak.<sup>9</sup>
- 1.539. I ez aiz legorrean galduko.<sup>12</sup>
- 1.540. Igande goizeko euriak aste osoa  
illuntzen du.<sup>64</sup>
- 1.541. Igandeko mozkorra, asteleneko opo-  
rra.<sup>16</sup>
- 1.542. Igaroa igaro.<sup>201</sup>
- 1.543. Igela hasarreturik ere, ur-maleari ez  
zaio inporta.<sup>153</sup>
- 1.544. Igerika hasi urteari laborariak  
beltzuri.<sup>133</sup>
- 1.545. Iges dabillena, batzutan gaizkille da-  
lako; bestetan, gaizkilleen iges.<sup>123</sup>
- 1.546. Igesi dijoana bero, joanak itzulera  
gero.<sup>189</sup>

1.547. Iguzkia beherago, itzalak luzeago.<sup>144</sup>

1.548. Iguzkiak erretzen badu urtarrila, zoazi eske-zakuaren bila.<sup>131</sup>

1.549. Iguzkiak urina guritzen eta buztina gogortzen.<sup>146</sup>

1.550. Iguzki sistakoak barna zaurtzen jendeak.<sup>143</sup>

1.551. Iguzkitsu Bitxintxo, uda ere gero txintxo.<sup>135</sup>

1.552. Iguzkiz beterik ere, apirila marrantemaile.<sup>133</sup>

1.553. Ijitoak bere semeari: Erne begiak, listo atzaparrak.<sup>63</sup>

1.554. Jinkoa deitzen dugu bear ordutan; deabruba bertzetan.<sup>9</sup>

1.555. Jinkoak begira maiatzeko errautsetik eta agorrilako lohitik.<sup>113</sup>

1.556. Jinkoak in ta milikatzekoa.

*Erraten zaio aurrari ere, hau arras ezkibela, beldurti, negarti eta izikorra delarik. Jainkoak egin du aurra, bainan ez duela milikatu, beiak bere umea milikatzen duen bezala. «Jinkoak in ta milikatzekoa», aur gaixoa beti izitua.<sup>89</sup>*

1.557. Ihintz-urte, ogi-urte.<sup>130</sup>

1.558. Jirauleta dabil txapela, barrua be ez da egongo epela.<sup>105</sup>

1.559. Ika-mika luzeak ondorio latzak beti.<sup>123</sup>

1.560. Ikas ezazu ematen; ez aztu, ordea, zeurea zaintzen.<sup>123</sup>

1.561. Ikasteko biderik segurena erakastea.<sup>148</sup>

1.562. Ik bildu, nik zabaldu; utsean ez diagu denborik galdu.<sup>189</sup>

1.563. Ik esateko, ez dek aundia ori.<sup>12</sup>

1.564. Ikuak jan eta kaka egin.<sup>105</sup>

1.565. Ikusiko du, bere poltxikotik lapikoari gatza ematen asten danean.

*Ezkondu ta bere kontura jartzen danean, alegia.*<sup>54</sup>

1.566. Ikusi-makusika ikusten eta igar ten.<sup>105</sup>

1.567. Ikusi nai ez duana, beti aurrean.<sup>64</sup>

1.568. Ikusi ta gero, urruxa.<sup>12</sup>

1.569. Ikusiz aiseago ikasten.<sup>148</sup>

1.570. Ikusliarrak behar du jakin etortzen, baina ere partitzen.<sup>166</sup>

1.571. Illak anak otzak.<sup>9</sup>

1.572. Hilak lasterka doazi.<sup>116</sup>

1.573. Illargia, ijitoen eguzkia.<sup>54</sup>



1.574. Ilargi berriz ez pika, otoi, belarrik.<sup>133</sup>

1.575. Ilargi betean ezpada uzta ontua, akabo etxea, huna miseria!<sup>137</sup>

1.576. Ilargi koronatu, euri-ekarle.<sup>153</sup>

1.577. Illargitako argia, putzua.<sup>9</sup>

1.578. Illari far, biziari negar.<sup>9</sup>

1.579. Illa zulora, bizia maiera.<sup>9</sup>

1.580. Il bearrak, illeak zutitzen ditu.<sup>9</sup>

1.581. Hilbeltzak iten badau hiltxuri, ardiek haziko dau axuri; Hilbeltzan iten badau hilbeltz, ez ardi eta ez axuri.

*Urdiain aldetik. Negua bere garaian etortzea nahi zuketen, noski.*<sup>174</sup>

*Antzeko: Inza 50.*

1.582. Ilbeltzeko otzak, leizera daramatz artzak.<sup>189</sup>

1.583. Il da gero danak onak.<sup>54</sup>

1.584. Il da gero, oillo-salda.<sup>23</sup>

*Antzeko: Inza 750.*

1.585. Ildakoan danak ontzen dira.<sup>81</sup>

1.586. Ildakoari iru burla egiten zaizkio: entzuten ez eta kantatu; ikusten ez eta argia piztu; jaten ez eta ogia jarri.<sup>52</sup>

1.587. Ildakoari obia ta biziari ogia.<sup>52</sup>

1.588. Illea luze, zentzua labur.<sup>189</sup>

1.589. Illea zuritzea ohea da, burua bai-  
ño.<sup>64</sup>

1.590. Illeen ogei ta zazpia nolakoa, urren-  
go illea alakoa.

*Egoaldi denboalez, Azkarate, 1966.*<sup>171</sup>

1.591. Ille eske joanik, etorri muskildurik.  
*Ir por lana y volver trasquilado.*<sup>14</sup>

1.592. Hilek manatzen, biziek segitzen.<sup>140</sup>

1.593. Hilek utzi ontasuna ez beza nehork  
erdaina.<sup>135</sup>

1.594. Ile luzeak ez du adimendua luza-  
tzen, ez eta ile laburrak laburtzen.<sup>147</sup>

1.595. Hilan ilabetea, oroitzapenez be-  
tea.<sup>132</sup>

1.596. Ile pollitek eta begi ederrek ez dute  
eltzea irakitarazten.<sup>155</sup>

1.597. Illeta joten kanpaiak be mutu  
laga.<sup>105</sup>

1.598. Il gabe, eztago santu egiterik.<sup>9</sup>

1.599. Hil onak ur on!

*Norbait hiltzean euri onak egiten baditu,  
seinale ona dela adierazten du. Mezkirizko  
Perpetua Saraguetari hartua.*<sup>195</sup>

1.600. Il ontan (Urrilla) iñusturia (trumoia)

jotzen duenean, uzta (kosetxa) ona ta ederra izaten da.<sup>194</sup>

1.601. Hiltzea eta ezkontzea, bakoitzak bere.<sup>195</sup>

1.602. Iltzeak ez beste guziak erremedioa badute.<sup>31</sup>

1.603. Iltzean ondutzen da persona.<sup>9</sup>

1.604. Iltzeari, sartuko bada, buruan eman bear zaio.<sup>51</sup>

1.605. Iltzen danak, akabatzen ditu emengo lanak.<sup>9</sup>

1.606. Illunpetan aztamuka ibiltzeak, inguru danak oztopo.<sup>123</sup>

1.607. Inbiria partitu zanean, zakuaren muturrean ziñan.<sup>54</sup>

*Antzeko: Ormazabal 33.*

1.608. Inbiri utsa, txakurraren putza.<sup>64</sup>

1.609. Indarrari nausi da lausengu ezta.<sup>120</sup>

1.610. Iñoren ardurea pago-adarrean.<sup>18</sup>

1.611. Iñoren maian aragi ta arrai baño, norberenean arbiak obe.<sup>201</sup>

1.612. Iñoren olloak gureak baño arrautz geiago.<sup>201</sup>

1.613. Iñoren zer esangoak, lotzen dizkigu zankoak.<sup>189</sup>

1.614. Iñor ez dan etxean, su makurra gela-  
latzean.<sup>189</sup>

1.615. Iñori etzaio galdetu bear zenbat irabazten dun, zenbat sobratzen dun baizik.<sup>39</sup>

1.616. Iñork eztaki norengana bear litekean.<sup>9</sup>

1.617. Intxaur arbolak ez du lagunik nai.  
*Gosea dala.*<sup>39</sup>

1.618. Intxaurra duenak jateko, izango arria austeko.<sup>189</sup>

*Antzeko: Oihenart 279, Michel 33.*

1.619. Intzaren gaineko hegoia, euria egiteko pregoia.

*Aztiria aldetik.*<sup>174</sup>

1.620. Iñuxente potente, azak jan eta atzian brast.<sup>105</sup>

1.621. Iñuzente potente, bixar San Bizente.<sup>105</sup>

1.622. Iñuxente potente, txakurrak buztana tente.<sup>105</sup>

1.623. Joan adi perretxikutara!

*Norberan gogokua eztan edo bidezkoa eztan gauza bat esaten dabenari esan oi jako ori.*<sup>180</sup>

1.624. Joan da etorri, kapela gorri.<sup>4</sup>

*Norbaitek alper biajea egindakoan esan oi da.*

- 1.625. Joan doana, urriñera doa.<sup>91</sup>
- 1.626. Joan-etorrian dabillanak bide egiten du.<sup>123</sup>
- 1.627. Jo illetia eta gorde billetia.<sup>17</sup>
- 1.628. Jokoa ezta errenta; ohea da olloa parrillan erreta.<sup>6</sup>  
*Antzeko: Azkue, 2535, 2537.*
- 1.629. Joko eta edari, etxearen galgarri.<sup>154</sup>
- 1.630. Joko guzia duk tranpa.<sup>9</sup>
- 1.631. Indarra ez da on, ongi erabilia ez deno.<sup>138</sup>
- 1.632. Infrentzua askotan alde baina karioago.<sup>146</sup>
- 1.633. Jokolariaren lasterra, gora ta bera: goratzea, erdi erdiraño; beratzea, ondoragiño.<sup>184</sup>
- 1.634. Jokorako atek, esperantzaz be-teak.<sup>9</sup>
- 1.635. Jokuan norbait irabazle, geienak galtzaille.<sup>189</sup>
- 1.636. Joku bezperan erronka, biaramo-nean errenka.<sup>189</sup>
- 1.637. Jokurik onena, gutxien dabillena.<sup>189</sup>  
*Antzeko: Oihenart, 270.*
- 1.638. Joku-zale bazerate, laister eskean atez-ate.<sup>189</sup>

1.639. Jolas-nekeak, ariñak; lan-nekeak, astunak.<sup>123</sup>

1.640. Jondone Joaneko uria, ogien galgarrria.<sup>129</sup>

*Antzeko: Azkue 78.*

*San Juan eguna, Ekaina edo Garagarrillaren 24'ean.*

1.641. Jondone Satordi, arno berriak ez gitzala ordi.<sup>136</sup>

1.642. Jondoni Bitxintxo iguzkiak mahatsa kaldan aihen-adarrari goiti abiarazten.<sup>137</sup>

1.643. Jondoni Joanes Batixta, pitz bedi su-farrasta.<sup>140</sup>

1.644. Jondoni Joanez, artoa, gordazak oi-loa; Jondoni Petriz, aldiz, xerria!<sup>177</sup>

1.645. Jondoni Joaniren euriak arnoa ttititzen eta ogirik ez emaiten.<sup>137</sup>

1.646. Jondoni Jonitan, gaztainedek ez lukete busti behar xagu baten pixarekin ere.<sup>107</sup>

*Ikus: Inza, 1343, 1348.*

1.647. Jondoni Laurendiz euria goxo.<sup>137</sup>

*Jondoni Laurendi edo San Lorenzo eguna: Abuztua 10.*

1.648. Jondoni Martine eder, ogia bota lurrer.<sup>129</sup>

*Jondoni Martin edo San Martin eguna: Azaroa 11.*

1.649. Jondoni Martinez iguzki, kasu gero otsailari.<sup>130</sup>

1.650. Jondoni Mikale, hegoan hirur errege.<sup>130</sup>

*Jondoni Mikale edo San Migel eguna: Iraila 29.*

1.651. Jorra bat, arbi bat; jorra bi, arbi bi; iru jorra, nai dan ainbat arbi.<sup>22</sup>

*Antzeko: Azkue, 2538.*

1.652. Jorrailean negu, laborariak: gaixogu.<sup>135</sup>

1.653. Jorratu ta izorratu, batera egiten ei eben baserrian.<sup>105</sup>

1.654. Josi ebenak jo eben Kristo; jo ta joteko beti gure Txilibristo.<sup>105</sup>

1.655. Jostatzea, oro har, enoagarriago da lana baino.<sup>145</sup>

1.656. Jostuna txorua da.

*Andoain.<sup>11</sup>*

1.657. Joxe Debalde, aspaldi hil zan; goseek eta egarriik hil omen zan.

*Debalde ezertxo ere ez. Gabiria, G.<sup>197</sup>*

1.658. Joxe Motz kitarra, auntzen gaiñeko bizarra, zopa gutxi jan da gizon kaxkarra.<sup>12</sup>

1.659. Iparra, baltza danian baltz, gorri danian gorri, fiña izan da be, zakarra.<sup>104</sup>

1.660. Iparra, baltza, fiña, nai gorria, beti iparra.<sup>105</sup>

1.661. Iparra bebil eta mendeala bego; gabaz otz eta argi, ta egunez bero; ta egoa gero.<sup>175</sup>

*Garoak bear dituenak, alegia.*

1.662. Iparra dagonean, jakea soiñean.<sup>105</sup>

1.663. Ipurdi batez eserleku bi, eziñ litezke estali.<sup>9</sup>

1.664. Irabaziak anak arin ta berritxuak mingaña luze.<sup>198</sup>

*Azkue 1066 baiño osoago.*

1.665. Irabazi ala, irauzi (gastatu).

*Gabiria, G.*<sup>197</sup>

1.666. Irabazi-alean ipurditik pasa ta kito.<sup>52</sup>

1.667. Irabazi zoruak, atze galdua.<sup>105</sup>

1.668. Irabaztean gutxi, pentsua urri.<sup>9</sup>

1.669. Irabazten duenarentzat zerua, lotsagabeentzat mundua.<sup>74</sup>

1.670. Ire auzoak ez dakien gaitza, ona dek.<sup>201</sup>

1.671. Ire berdiñarekin ezkon adi, ta ondo izango aiz beti.<sup>201</sup>

1.672. Ire kuperatia! Gaitz txiki ta lotura aundia.<sup>14</sup>



1.673. Iretzat nai ez dekena, ez besteari opa.<sup>201</sup>

1.674. Iritxiko zaio kana atalburura.<sup>52</sup>

1.675. Irriak barnea inarrosten dauku, gure onerako.<sup>148</sup>

1.676. Irriskatu gaberik nork du deusik biltzen? <sup>120</sup>

1.677. Irri-solas guti, irri-untzia zartaraziko daukunik.<sup>146</sup>

1.678. Irriz hartu zorigaitza zorion bilakatzen da.<sup>155</sup>

1679. Iru belarritara eldu ezkerok, ezta ixilpekorik.<sup>184</sup>

1.680. Hirugarren laguna apez, ez mintza latinez.<sup>146</sup>

1.681. Iru gauza munduan alperrik daudenak: egunez illargia, itxasoan euria ta gizonen zkoen titiak.<sup>54</sup>

1.682. Hiru gauzetarik behar du begiratu zuhur denak: emazteari segetuen fidatetik, leihorrez doakelarik itsasoz abiatzetik, egun guzia alfer egoitetik.<sup>160</sup>

1.683. Iru lagun ezkerok, sekretoak kanpora.<sup>169</sup>

1.684. Iru urtetan bildots; laugarrenean ardi zaar.<sup>64</sup>

- 1.685. Ispillurik onena, etxekoandre obere-  
na.<sup>9</sup>
- 1.686. Ito bear bada, ur aunditan.<sup>25</sup>
- 1.687. Itotzen ari den garratoinak laket  
luke bertze baten itotzen ikustea.<sup>153</sup>
- 1.688. Itsasoak ez du adarrik.<sup>120</sup>
- 1.689. Itsas ura pozoin jendentzat, osagarri  
arraintentzat.<sup>151</sup>
- 1.690. Iturriko ur garbia, utsa delarik aun-  
dia.<sup>189</sup>
- 1.691. Iturrira maiz dabillen txarroa, autsi  
egiten da.<sup>9</sup>
- 1.692. Iturrira maiz dabillen txarroa, ez  
arritu puskatzea.<sup>178</sup>
- 1.693. Itxas-egaleko aizea, ura bera duin  
ezea.<sup>189</sup>
- 1.694. Itxas gori, aizetsu; itxas zuri, aize  
edo euri.<sup>105</sup>
- 1.695. Itxas gori, aize ugari; itxas zuri, aize  
edo euri.<sup>104</sup>
- 1.696. Itxasoan ez dago jarrilekurik.<sup>105</sup>
- 1.697. Itxasoko arraiñik onena, arrantzate-  
ko dagoena.<sup>104</sup>
- 1.698. Itxasoan ura ta zerua; ta konforme  
ez dana, ondura.<sup>105</sup>

- 1.699. Itxuak ikusgure, errenak ibilgure.<sup>181</sup>
- 1.700. Itxuraz bestekoa, zapoa saltalari.  
*Uste gabeko ateraldiren bat entzutean esan oi da.*<sup>52</sup>
- 1.701. Itza, biotzaren giltza.<sup>9</sup>
- 1.702. Itzainik hoberena batzutan uzkaile.<sup>144</sup>
- 1.703. Hitza hitz; bertzenaz gizona hits.<sup>115</sup>
- 1.704. Itzak aizeak eramaten ditu.<sup>9</sup>
- 1.705. Itzak bideak egiten ditu.<sup>9</sup>
- 1.706. Itzalik gabeko zaldia nahi duena, oinez abia bedi.<sup>159</sup>
- 1.707. Itz ederrak, aizeak eraman.<sup>10</sup>
- 1.708. Hitz emaiterat luzeena, hitzaren atxikitzaileena.<sup>152</sup>
- 1.709. Hitz emana, gibelerat ezin eremana.<sup>139</sup>
- 1.710. Itz eroa esan, berak arrapa nazan.<sup>64</sup>
- 1.711. Itzetan eder, egiñetan lander.<sup>189</sup>
- 1.712. Itzetik ortzera, belarri-ertzera.  
*Naiz agiriko, naiz ezkutuko akatsen bat edo entzun nai ez duan zerbait maiz erantzutea adierazten du esaldi onek.*<sup>52</sup>
- 1.713. Itzez gizonak aditzen dira.<sup>201</sup>
- 1.714. Itz-ontzi, uts-ontzi.<sup>9</sup>

- 1.715. Itz txoroa, txal zoroa baiño lenago etortzen da.<sup>6</sup>
- 1.716. Juan Debalde goseak il zan.<sup>10</sup>
- 1.717. Juan eta jun, alkarregaz dantza lotun.<sup>105</sup>
- 1.718. Juan tiruli, denak elgar iduri.<sup>185</sup>
- 1.719. Judasen mandioan, tratalariak pilloan.<sup>189</sup>
- 1.720. Julian, Julian, ardi bi tegian, beste bi larran, Julian beti parran.  
*Bizkaia.*<sup>197</sup>
- 1.721. Ixildu adi, zakurrak nazkatu baiño len.  
*Beste guztiak nazkatu dituala adieratzen du.*<sup>52</sup>
- 1.722. Ixil-eziñeko mingaiña, belarrietarako samiña.<sup>189</sup>
- 1.723. Ixilik dagoenak, baietz esaten du.<sup>64</sup>
- 1.724. Ixilik donak (dagoenak) beti kaxka, kaxka, kaxka!<sup>198</sup>
- 1.725. Ixiltzeko pastillarik onenak, matalazurrekoak.<sup>105</sup>
- 1.726. Ixo ta ixilik, a ze alperrik!<sup>105</sup>
- 1.727. Izanaren itzala, izena.<sup>128</sup>
- 1.728. Izan da izango, jan da jango, karpaiak goiz eta eguerdian esan da esango.<sup>105</sup>

1.729. Izango dik ipurdian zuloa.<sup>52</sup>

1.730. Izan zaite diruduna, nehork ez dautzu erranen sorgina.<sup>145</sup>

1.731. Izardituaren saria, eguneroko ogia.<sup>189</sup>

1.732. Izarraitz hostotu ezkerro, artoa erein leike.

*Azpeitia aldetik.*<sup>174</sup>

1.733. Izarrak hego aldera, haizea hegotik; izarrak ifarrera, ifarretik haizea.

*Nafarroako Astitzen. Gure zaharrentzat, izar-dantzariak (zeruak batetik bestera ihes doazen horiek) erakusten zuten zein haizek agindu zezakeen ondotik.*<sup>174</sup>

1.734. Izarrak ertetzean, neskatxa etxean.<sup>39</sup>

1.735. Izarrak usu-sarri daudenean, euria laster da.<sup>11</sup>

*Antzeko: Azkue, 1199.*

1.736. Izarrekin hasi eta izarrekin aki.

*Hori zen gure zaharren legea (baso-lanean alegia), Erasungo aitona batek zioenez.*<sup>174</sup>

1.737. Izena daraman guztia, bada.<sup>177</sup>

1.738. Izenak aundi, izanak txiki.<sup>201</sup>

1.739. Izenetik izanera gogoia zubi.<sup>139</sup>

1.740. Izkiriant guziak eztira Parisen.<sup>114</sup>

1.741. Izotza beherapenean, uria hiru egunen epean.<sup>130</sup>

1.742. Izotza gorapenean, aro fresko eder-  
ra abian.<sup>130</sup>

1.743. Izotzak martsuen zenbatien, maia-  
tzien hainbestien.<sup>196</sup>

1.744. Izotza, Santutxu'n jaio zan eta Bida-  
ni'n bataiatu.<sup>70</sup>

1.745. Izotz gaiñeko laiñoa, elurraren kei-  
ñua.<sup>189</sup>

1.746. Izuberak begiak larri, ausartak ere  
antzera sarri.<sup>189</sup>

1.747. Izurdarik jakintsuenak, legorrean.<sup>105</sup>

## K

1.748. Kahekaren buruak ez balu lumarik, burua bertze hegaztinek bezain ttipia luke xori horrek.<sup>155</sup>

1.749. Kaiola deus ez xoria gabe.<sup>137</sup>

1.750. Kaiola ederra, baña txoriak txarrak.  
*Toki naiz etxe politean bizi arren, biztantiak ustel samarrak badira, orixe esaten da.*<sup>183</sup>

1.751. Kaiola erosi ta txoria igesi.<sup>105</sup>

1.752. Kaiola xoririk gabe ez da deus.<sup>155</sup>

1.753. «Kaka banaiz» esanez, eta putza izan ez.<sup>16</sup>

1.754. Kakalardoa laietan, da astoa danboliña jotzen; aien bien erdian zorria parrez itotzen.<sup>12</sup>

1.755. Kako manko, berria pranko, ona bada etxerako, txarra bada kanporako.<sup>58</sup>

1.756. Kakota kentzeko botikarik onena, egunsentiko terralaren gozamina.<sup>105</sup>

*Kakota: mozkorra.*

1.757. Kaladan kaladan, pantxo bi.<sup>105</sup>

1.758. Kalakak ez du xoririk biltzen.<sup>137</sup>

1.759. Kalbarioko bidea, zerurako bidea.<sup>129</sup>

*Antzeko: Azkue 47.*

1.760. Kalez kale Mari-Kontze, etxean li-xiba egiteke.<sup>105</sup>

1.761. Kalixtro zaldiari kantuz aise nau-sitzen; lasterka hargatik ez zaio hurbiltzen.<sup>154</sup>

1.762. Kana bi sare, ez dira sare-orri, sare-zati baiño.<sup>105</sup>

1.763. Kandelario bero, elurra dator gero; Kandelario otz, negua joan da motz.<sup>23</sup>

*Beste batzuk, «...negua dator gero» esan oi dute.*

*Antzeko: Azkue, 1729.*

1.764. Kandelario, elurra dario; San Blasek lagunduko dio.<sup>53</sup>

*Antzeko: Azkue 1730, Inza 288.*

1.765. Kanderailu, sasoinaren berrigailu.<sup>131</sup>

1.766. Kanderario garbi, negua geldi.<sup>127</sup>

1.767. Kanpaiak ordainduko du.

*Batek zorra zorraren gainean egiten duan-ean, pagatzeko asmorik gabe. Bera ildakoan, or konpon...<sup>2</sup>*



1.768. Kanpaia nai ez duenak aditu, ez bere soka astindu.<sup>9</sup>

1.769. Kanpai txarrak, soñu txarra.<sup>9</sup>

1.770. Kanpoa irabazian dago ta egin dezagun beste trago bana.

*Tabernatik irtetzean, euria ari bada, esan oi da.*<sup>54</sup>

1.771. Kanpoan dabilleniari kanpoak eman.<sup>39</sup>

1.772. Kanpoan eder, etxe-kalte.<sup>170</sup>

1.773. Kanpo eder, etxe kakatsu.<sup>54</sup>

1.774. Kanpo ederra, etxean bela.<sup>170</sup>

1.775. Kanpotik etorriak bialduko zaitu etxetik.<sup>10</sup>

1.776. Kantua bihotz-altxatzale.<sup>141</sup>

1.777. Kantua, osagarriaren seinale.<sup>138</sup>

1.778. Kanturik ederrena ere ez da hiru aldiz emaiten.<sup>146</sup>

1.779. Kapak kanpotik, arnoak barnetik berotzen.<sup>142</sup>

1.780. Kardamuz beteta dago gure arasa; kardamu ta sitsak badauke gurean arnasa.<sup>105</sup>

1.781. Kardua klabelinatzat hartu.<sup>195</sup>

1.782. Karga jasotseko baño, kontue jasotzeko ohea egoten duk gaztetan umea.

*Intze, 1967.*<sup>171</sup>

1.783. Kargu bat hartu gabe izar-azu; bainan hartuz geroz belazki eramazu.<sup>152</sup>

1.784. Karkaban katuak marrauka, nunbaiten aizeak orruka.<sup>105</sup>

1.785. Karkabu onez egindakua, ez da gaizto artzekua.<sup>105</sup>

*Karkabu: intentzio, borondate.*

1.786. Karnabal ondorenean, beti Garizuma.<sup>39</sup>

1.787. Karrika, arrika ta makilka.<sup>64</sup>

*Karrika, Oiartzun'go ballara bat da.*

1.788. Kartillu bat, zelogarri; asunberdi, konsolagarri; andik pasau ezkerro, larregi.<sup>4</sup>

1.789. Kartzelik illunena, griña txarrena.<sup>198</sup>

1.790. Kasu martxo tzarrari, hego beltz edo uri.<sup>130</sup>

1.791. Katakumeak uretan, amaren batek sortuko zitun ba egaletan.<sup>105</sup>

1.792. Katallinek hiru hitzaldi egunean, biga bere kaltean.<sup>117</sup>

1.793. Katanarraren narrua eta katamixarrarena, arrez beteten dira denporak baiño lena.<sup>105</sup>

1.794. Katalin, Katalin, auzoan ildako txerriak etxean koipe gutxi din.<sup>39</sup>

1.795. Katua aurpegia garbitzen ari bada, euria laister.<sup>109</sup>

1.796. Katua falta, saguak dantza.<sup>189</sup>

*Antzeko: Azkue, 511; Inza, 1769.*

1.797. Katuak marrauka zerkaetan, gizonak andratan bazterren batean.<sup>105</sup>

1.798. Katuak ere, illerik legunena bere erara eragiñez.<sup>52</sup>

1.799. Katuak umeak karraxika bildu ta ixilik egin; emakumeak, berriz, batekoz bestera.<sup>12</sup>

1.800. Katuak ze eskuakin garbitzen dun bere muturra, alde artatik izaten da aizia.<sup>198</sup>

1.801. Katua lo dagoenean, arratoiak dantzan.<sup>64</sup>

1.802. Katu beltza itxian badu, suerte beltza.<sup>198</sup>

1.803. Katu maukaria, ez dek eiztaria.<sup>9</sup>

1.804. Kazuelan koiperik ezpadu ere, mingañian izango du.

*Lasarte.*<sup>11</sup>

1.805. Kea ederrenari, lehendabiziko euri tanta alperrenari.<sup>174</sup>

1.806. Keia, keia mendira; olloak lastategira; azeritxua larrara; esne beroa samara.<sup>5</sup>

*Antzekoa: Azkue 830.*

1.807. Ken udatiarrari bere diru pozia, bairan ez berriz jiteko gutizia.<sup>135</sup>

1.808. Kexu denari oro nardagarri.<sup>147</sup>

1.809. Kilkirra udaran kantari, neguan otzak dardari.<sup>189</sup>

1.810. Kirkillak mendian eta andren sabelian.<sup>105</sup>

1.811. Kitarrea jo eutsan Peruk andreari, ta umea ekarri.<sup>105</sup>

1.812. Kito, auntza larrean ito.<sup>52</sup>

1.813. Kitu, kitu, *en paz en paz*, inpernu-ko Barrabas.<sup>105</sup>

1.814. Kobrua emoteko iñor ez; zorrak geituko dira errez.<sup>105</sup>

1.815. Kofradiakoa ez danak, ez beza kandelarik jaso.<sup>9</sup>

1.816. Koiñatak, zeruan ere alkarri ipurdia emanda.<sup>39</sup>

1.817. Kokoroxka hauzoko oiloa entzun eta uste dugu bi arraultze egin dituela; berdin ostiko bat du oilo horrek hartua.<sup>43</sup>

1.818. Kolkotik eroria magalean geratzen da.<sup>70</sup>

1.819. Komediak, Mari, Mungien: zazpi atso zortzi gurdien.<sup>21</sup>

1.820. Konfiantza ez behin baizik galtzen.

*Basarmotuan ura, sua eta konfiantza galdu omen ziren. Beldurra sartu zitzaien, eta galtzen baziren zer gertako zen zioten elkarri. «Keatik aurkituko naute ni», esan zuen suak. «Ihiatik (junco) bilatuko naute ni», esan zuen urak. «Zorionekoak zuek; behin galtzen banaiz, ez naute berriz aurkituko», erantzun zuen konfiantzak.<sup>185</sup>*

1.821. Konfiantzak galtzen du gizona.<sup>31</sup>

1.822. Konpasa galdata, etxea ezin billatuta.<sup>105</sup>

1.823. Konpesatzera, txekorra saltzera.<sup>39</sup>

1.824. Konseju onak besterentzat, eta mokadu onak beretzat.<sup>9</sup>

1.825. Kontrario samurrik ez da.<sup>39</sup>

1.826. Kontuak garbi eta adiskide zar.<sup>201</sup>

1.827. Kontzientzia baten eroslea, berearen saltzale.<sup>153</sup>

1.828. Korda ez eros, aratxea eskuratu gabe.<sup>166</sup>

1.829. Kordeliñak ondo batu ta trezak enkarnatzen, gu lakorik ez egoan sasoi baten.<sup>105</sup>

1.830. Korkotxa zalako Peru Narru, danak deitzen eutsen kakanarru.<sup>105</sup>

1.831. Korpus eguneko iek, uiek eraman.  
*Ormaiztegi.*<sup>11</sup>

1.832. Kostauan jarri orduko kaka-larri, orrelako gizonak ez dau irabaziko sarri.<sup>105</sup>

1.833. Kostauan ikusi orduko, Manu zemaika estropadarako.<sup>105</sup>

1.834. Kozkalari txarra da zakur zangariya.<sup>205</sup>

1.835. Kriselua mokotik.<sup>14</sup>

1.836. Kriselu ondoan linairik ez, atorra berrikik ez.<sup>9</sup>

1.837. Kukua, Ama Birjiña Martxokoaren egunean Erroma'ko zubian, eta andik amabost egunerako mundu guztian.<sup>82</sup>

1.838. Kukua etorri, gosea etorri. Kukua mututu, gosea bukatu.<sup>189</sup>

*Antzeko: Azkue 515, Inza 55, 172.*

1.839. Kukuak, Ama Birjiña martxokoz kuku, ta San Pedroz mutu.<sup>12</sup>

1.840. Kukuak bere izena kantatzen.<sup>142</sup>

1.841. Kukuak kantatzean, euri ta eguzki.

*Nafarroako Saldiasen.*<sup>174</sup>

1.842. Kukuak txantxangorria iñude; eguterak masil bat aiñube.<sup>189</sup>

1.843. Kukuaren lau illabetek, otzak eta gosek.<sup>92</sup>

1.844. Kukuaren otsa, zaarraren arnas berritzea.<sup>64</sup>

1.845. Kukua, San Juanetan kuku, San Pedrotan mutu.<sup>39</sup>

1.846. Kukua, udaberriko soldadua; txan-txangorria, neguko soldadua.<sup>23</sup>

1.847. Kukuka ikusten gendun Matxinplaka, gu eskola igesi, kurrika.<sup>105</sup>

1.848. Kuku, kuku, emazte batzuek mila matrikulu.<sup>154</sup>

1.849. Kuku miku, txoriak umeak sasian ditu.<sup>12</sup>

1.850. Kukusoak ez dira gerrena eskuan lasterkatzen.<sup>153</sup>

1.851. Kulpa dun, lotsa dun.<sup>9</sup>

1.852. Kukun prakak jaten genduzan ume-tan, kukun kantuak naiago praketan dirua egoanetan.<sup>105</sup>

1.853. Kukurruku asko ta ez oillo ta ez ezer gelditu.<sup>123</sup>

1.854. Kupela zarrak, usai txarrak.<sup>9</sup>

1.855. Kurutze sainduan ereiten ez duenak, bihi baten orde hiru eman beharko.<sup>137</sup>

## L

1.856. Labea eta xaharra ahotik berotzen dira.<sup>146</sup>

*Antzeko: Refranes y Sentencias, 1596.*

1.857. Laborearen etsairik txarrena, bere klasekoa.

*Ugariegi dauden landareak ez dirala azitzen.*<sup>52</sup>

1.858. Laguna lagunari beti iduria.<sup>120</sup>

1.859. Lagun batek dirua eskatu al dizu? Ez eman, betiko aserretu nai ez badezu. Ema ten ez badiozu, egun bateko aserrea.<sup>12</sup>

1.860. Lagun on asko ez dago gaizki; adis kide gutxi batzuk askoz obe.<sup>123</sup>

1.861. Laidoari egiten ahal zaion ihardes penik gogorrena: ixiltzea.<sup>148</sup>

1.862. Laido egitea baino laido jasaitea hobe.<sup>148</sup>

1.863. Laiñuak Aizkorri aldera xoiazak eta eurixa ein bixok.



*Arantzazu aldeko esaera.*<sup>174</sup>

1.864. Laister dizkik zakurrak zaunkaz.  
*Sasoira datorren neskatillagatik esan oi da.*<sup>52</sup>

1.865. Laister egingo dik trikuak otsoari egin ziona: txoko bat eskatu ta gero dana artu.<sup>52</sup>

1.866. Lana da bizi-biderik garbiena.<sup>148</sup>

1.867. Lana da gure adixkiderik onena.<sup>159</sup>

1.868. Lana egiten duana, beste ezertarako balio ez duana.<sup>54</sup>

1.869. Lana ez alferraindako egiten.<sup>196</sup>

1.870. Lanak hazten, lanak higatzen.<sup>139</sup>

1.871. Lana munduko ilunbean, saria zeruko argian.<sup>139</sup>

1.872. Lana oso zarra da; orregatik ez du iñork engañatzen.<sup>52</sup>

1.873. Lanaren ihes joan Ameriketara, eta nik baino lehen han lana.<sup>185</sup>

1.874. Lanari aurrea artu bear zaio, gailendu ez dedin.<sup>53</sup>

1.875. Lana, saria aña.<sup>201</sup>

1.876. Lana, zenbat artu, ainbeste izaten da.<sup>30</sup>

1.877. Lanbroa, eroa busti zoonan, baino zintzook ere bustitzen ditu.

*Aztiria aldetik.*<sup>174</sup>

*Erderaz calabobos ere esaten baitzaio.*

1.878. Lanerakoan atzetik beti; jaterakoan aurretik.

*Aztiria, G.*<sup>197</sup>

1.879. Lan erdi bururatua, erdi egina.<sup>155</sup>

1.880. Lanerunzkoan baria lez; etxerunzkoan balia lez.<sup>189</sup>

1.881. Langile ona izana gatik, Jainkoak nahi du laguntzailea.<sup>117</sup>

1.882. Langille txarrak, atxur onik ez.<sup>22</sup>

1.883. Langille txarra kaka-larria sarri; urrutira joan eta nekez etorri.

*Baso-mutillen arteko esaera.*<sup>52</sup>

1.884. Langille txarrak, kaka luze.<sup>22</sup>

1.885. Langille txarra lanean, besterik ari ez danean.<sup>16</sup>

1.886. Langille txarrarentzat erreminta onik ez.<sup>64</sup>

*Antzeko: Azkue 2609.*

1.887. Langile zuzenari kukuak joiten.<sup>138</sup>

1.888. Lan igesi auzora, an ere jatena ez dator aora.<sup>189</sup>

1.889. Lanik ez baduk, eman hadi lekuko; aberats bahiz, jar hadi berme.<sup>146</sup>

- 1.890. Lanik ez, janik ez.<sup>148</sup>
- 1.891. Lan sobera, buruz gaindika.<sup>144</sup>
- 1.892. Lan ta jan.<sup>9</sup>
- 1.893. Lapak jan bear dira Auts-egunean, Garizuma asteko antxiñakoen legean.<sup>105</sup>
- 1.894. Lapatarako egunik jatorrena, Auts-eguna.<sup>105</sup>
- 1.895. Lapiko bete morokil jan da be, gure Totolo jan da jateko.<sup>105</sup>
- 1.896. Lapiko guztijetako burruntzali.  
*Naste guztijetan sartzia atsegin yakon gixonagaitik esan oi da.*<sup>180</sup>
- 1.897. Lapikorik aña estalki dauz orrek.  
*Au, uarpen guztijetatik izpide edo arrazoiak urten nai ixaten daunagaitik esan oi da.*<sup>181</sup>
- 1.898. Lapikorik nai ez ta angula mangula, ori ez da gosea, ori da gula.<sup>104</sup>
- 1.899. Lapurra baiño okerragoa da lapur-estalkia.<sup>52</sup>
- 1.900. Lapurra beti maltzur.<sup>64</sup>
- 1.901. Lapurra, etxekoa.  
*Askotan etxekoa izan oi dala lapurra, etxeko berri berak baidaki ongien.*<sup>39</sup>
- 1.902. Lapurrak an eta gantzeruak emen, danak beti ostuten.<sup>105</sup>

1.903. Lapurra, lapur-bildur.

*Pertsona txar bat beste batek txarkeria egingo dion ustetan dagoenean erabiltzen da.*<sup>190</sup>

1.904. Lapurra lapurrarekin ondo konpon-tzen da.<sup>39</sup>

1.905. Lapurrik txarrena, etxekoa.<sup>53</sup>

1.906. Larrak gitxia ekarten dau.<sup>92</sup>

1.907. Larraren umia, masusta.

*Zelako gurasuak, alako umiak edo-ta zelako errija alako agindarijak eta abar esan nai dausku orrek.*<sup>179</sup>

1.908. Larrazkeneko sukarra luze, ala ekartzen heriotze.<sup>133</sup>

1.909. Larre motxean aziak bizimodua aterako du.<sup>39</sup>

1.910. Larriago ta geldiago.<sup>14</sup>

1.911. Larrosa arantz gaberik ez.<sup>53</sup>

1.912. Larrun'en gerrikua, ogei ta lau orduko eurikua, lengo zarren predikua.<sup>84</sup>

1.913. Larunbat batetik bertzera harrigarriak gertatzen dira.<sup>154</sup>

1.914. Laster egiteak, laster hats-hantzen.<sup>146</sup>

1.915. Laster jausten dira guzurra ta erre-na.<sup>18</sup>

- 1.916. Lastoaren sua, ez da luzaroko sua.<sup>201</sup>
- 1.917. Lastorik gabe garirik ez.<sup>52</sup>
- 1.918. Lasto zama handiak dituena ez da garratoinik gabe.<sup>153</sup>
- 1.919. Lau ardik lau buru, ta launa anka-  
-urkulu.<sup>189</sup>
- 1.920. Lau arrosak lau begi; katu zaarrak  
bost begi.<sup>189</sup>
- 1.921. Laudatzailea, laudorio-gose.<sup>139</sup>
- 1.922. Launbeta, atso-meta.  
*Lekarotz'en entzuna dut. Launbeta, larun-  
bata da. Lekauztar guziak erraten dute.*<sup>89</sup>
- 1.923. Launbetero atratzen iruzkie, Ama-  
birgiñein lixue idortzeko.  
*Ziga'n artua.*<sup>88</sup>
- 1.924. Lazaro hotzak hil, eta Erramu urak  
eraman.<sup>196</sup>
- 1.925. Lazkau, ikusi eta nazkau; bertan  
gelditu eta gustau.<sup>58</sup>
- 1.926. Leenago zan ori Lukas; orain La-  
kats.<sup>105</sup>
- 1.927. Leen arro zana, emaztean esanetan  
otsana.<sup>189</sup>
- 1.928. Lehenengo umea Pilili, bigarrena  
Margari, hirugarrena Sobrari.

*Gabiriko esaera, gurasoen maitasuna erdi-zalantzan ipiniz.*<sup>174</sup>

1.929. Leen eta orain betiko leloa: on-egiñak orrenbeste, kalte egiñak ainbeste.<sup>123</sup>

1.930. Leengo zaarren (Lengo zarraren) esaera guztiyak, denak egiyak.<sup>198</sup>

1.931. Leengo zaarren esaerak, guziak gertaerak.<sup>64</sup>

*Antzeko: Azkue 1750.*

1.932. Lehenik barka, bigarrenik marka, hirugarrenik urka.

*Nafarroa Beherea aldetik.*<sup>174</sup>

1.933. Lehenik pratika, gero aldiz predika.<sup>144</sup>

1.934. Leen negarrez, orain parrez, xagu xarrarekin ezkondu naiez.<sup>58</sup>

1.935. Leen zena, gero zena, urtu ta beti pikea.

*Euskerazko «lengo lepotik burua»; eta erderazko «Genio y figura hasta la sepultura».*<sup>63</sup>

1.936. Legeak armi-armo saren iduriko dire.<sup>114</sup>

1.937. Legea, oituratik dator.<sup>9</sup>

1.938. Legorraldian euri ta bustialdian eguzki, eskean beti.<sup>123</sup>

1.939. Legorreko arrantzaleak, arraia gutxi saskian.<sup>123</sup>

1.940. Legorteak jota igartu edo-ta ugoldeak astinduta ito, kito.<sup>123</sup>

1.941. Lekurik geienetan bazegok zer egin.<sup>39</sup>

1.942. Leloa, berri dan artean aita.<sup>201</sup>

1.943. Leman zurra ez danak, zorra.<sup>105</sup>

1.944. Lenengo andra da emazte, bigarrena señikide, irugarrena gaitz ta kalte.<sup>201</sup>

1.945. Lehoina ez da etxe-xoriz asetzen.<sup>152</sup>

1.946. Leorte aundia len, bustite aundia aurten.<sup>7</sup>

1.947. Lepoan jo ta kaixoka, zorrik ez da ordaintzen lepoka.<sup>105</sup>

1.948. Lepoan sarna duenak buruakur (burumakur).<sup>202</sup>

1.949. Lepo ta besape jo ta jo eskuak, otza zer dan ez dakie legorrekuak.<sup>105</sup>

1.950. Lexibia zar barri da one.<sup>13</sup>

1.951. Liburuak latiñez abadeak, txalopan dauka latiña mariñelak.<sup>105</sup>

1.952. Liñoa zazpi aldiz lora, eta zazpi aldiz gora, eta gero azkorra.<sup>177</sup>

1.953. Lixa bako arotzak, zerria motza.<sup>105</sup>

1.954. Liztorra iragan den lekutik ulitxa ezin pasa.<sup>155</sup>

1.955. Lo dagoenari edozeiñek pegatzen dio.<sup>169</sup>

1.956. Logale geranean, edonun oe.<sup>189</sup>

1.957. Lo, lo, lo ta lo, ta igarri barik musturra jo.<sup>105</sup>

1.958. Lo okerra txarra izaten da.<sup>123</sup>

1.959. Lo ondo egiten duna aberatsa da.<sup>72</sup>

1.960. Lorarik ederrena, Maiatzeko antxobia.<sup>105</sup>

1.961. Loreak arantzia, ta gozuak be mingotsa.<sup>15</sup>

1.962. Loreak asko, baiña beltzik bat ere ez.<sup>53</sup>

1.963. Lore bortxatuak ez du usain onik.<sup>146</sup>

1.964. Lore ederrenak ere igartu egiten dira; itsusitu ez-ezik, ezereztu.<sup>123</sup>

1.965. Lorek saluna alegeratzen, zonbaitek haatik airea gaixtatzen.<sup>148</sup>

1.966. Loro eta tantzak, merkeak urantzat.<sup>105</sup>

1.967. Loteriarik onena, lana.<sup>9</sup>

1.968. Lotsagabientzat mundua, zintzoentzat zerua.<sup>16</sup>

*Antzeko: Azkue, 2633.*

1.969. Lotsa galdu ta dirua egin, orrelako diruak ez dauke zarata fiñik.<sup>105</sup>



- 1.970. Lotsaren lotsaz xuxenbidea hartu.<sup>158</sup>
- 1.971. Lotsatzea txarrena, bear ez den lekuan.<sup>64</sup>
- 1.972. Lotsaz dabillenak, poltsa ona.<sup>105</sup>
- 1.973. Lotsik ez eta bearrik ez.<sup>52</sup>
- 1.974. Lukainka, luzeago ta obe.<sup>189</sup>
- 1.975. Lumatu baiño len egatu nai.  
*Gazterik arroxkatua adierazten du.*<sup>52</sup>
- 1.976. Lur ontu gabea ereitea, diruaren ehortzea.<sup>144</sup>
- 1.977. Lurra ez da mozkortzen.<sup>37</sup>
- 1.978. Lurrak damaigu bizitzeko jana, lurrak azken baten atsedena.<sup>189</sup>
- 1.979. Lurrak esan zion gizonari: Emaidak eta emango dit.<sup>178</sup>
- 1.980. Lurra neguan pausatzen da, udaberrian atzartzeko.<sup>145</sup>
- 1.981. Lurreko (beeko) suak, aurea berotu eta atzea oztu.<sup>64</sup>
- 1.982. Lurretik heldu dena, lurrerat joa-ki.<sup>148</sup>
- 1.983. Luzara, luzara, egia guziak argira.<sup>135</sup>
- 1.984. Luze eta mea, itxasoko umea.<sup>63</sup>

## M

1.985. Mahain aberatsak miseria hurbil.<sup>147</sup>

1.986. Mahastiak neurrian nahi du ur eta iguzki.<sup>147</sup>

1.987. Maatsa, Aingeru Guardakoaren egu-  
nean moztu.<sup>64</sup>

1.988. Mahatsa delarik apirilean sortzen,  
presta zazu dupa handia.<sup>137</sup>

1.989. Madalena busti, busti, intzaur-gaz-  
tena guti.<sup>130</sup>

1.990. Madalena klaro, gaztaiña naro.<sup>23</sup>

*Antzeko: Inza 66, 461, 759.*

1.991. Madalenak mantalari, eltzaurrak  
ugari.<sup>129</sup>

1.992. Madalenaz bero, hagatara gero.<sup>174</sup>

*Antzeko: Inza 66, 461, 759.*

1.993. Madalenaz bero, zardaitara gero.

*Illaren ogei ta bigarrenez bero danian, gaz-  
tain asko izango dala esan nai du.*<sup>193</sup>

1.994. Madalenetan intxaurra betia, mats-  
-aleak kolorea artubak eta garixa itxia.<sup>193</sup>

1.995. Madari eldua axe gutxik erasten du  
bera.<sup>13</sup>

1.996. Maian, lan edo jan.<sup>21</sup>

1.997. Maiatza astoen ilabetea, bai eta  
bertze askorena.<sup>143</sup>

1.998. Maiatza ez da asto-aro, baino bai  
osto-aro.<sup>135</sup>

1.999. Maiatza idorte, Agorrikan lohi, uzta-  
rik batere, ez berde, ez zohi.<sup>113</sup>

2.000. Maiatza infernu, ekain-uztailak  
zeru.<sup>130</sup>

2.001. Maiatzak erdia negua.<sup>10</sup>

2.002. Maiatzak uria laket.<sup>130</sup>

2.003. Maiatza hotzarekin, nehork ez diro  
jeus egin.<sup>131</sup>

2.004. Maiatza hotz, urtea zorrotz.<sup>134</sup>

2.005. Maiatzean, alperrak bere jarlekua  
erre bear izan zuan.

*Il onen otz-ospea ta egurraren arreta izan  
bearra adierazteko.*<sup>52</sup>

2.006. Maiatzean asitako ilberrian altza  
moztu.<sup>64</sup>

2.007. Maiatzean euri, ondoan uztak jo-  
ri.<sup>134</sup>

2.008. Maiatzean kukuak kuku, atxik sake-  
lan doi diru.<sup>135</sup>

2.009. Maiatzean kukuak kuku, diruz ba-  
nitu bi zaku!<sup>143</sup>

2.010. Maiatzean lengo andriak alxia erre-  
zuan egurra(re)n paltan.

*Andoain.*<sup>11</sup>

2.011. Maiatzean, pobrientzat be lebatza  
platerean.<sup>105</sup>

2.012. Maiatzean sortuak oro ez dira segu-  
rik asto.<sup>133</sup>

2.013. Maiatzeko beroak urte guziari emai-  
ten ere balioa.<sup>137</sup>

2.014. Maiatzeko beroa, urteko balioa.<sup>133</sup>

2.015. Maiatzeko euria, azurrak aundi egi-  
tekoa.<sup>5</sup>

2.016. Maiatzeko iguzkiak hesiak pherda-  
turik ezartzen.<sup>137</sup>

2.017. Maiatzeko intzak urria baliyo du.<sup>192</sup>

2.018. Maiatzeko lenengo egunean ebiya  
egiten badu, beiak esnearen erdiya galtzen  
dute.<sup>192</sup>

2.019. Maiatzeko lorea, udaren florea.

*Gabiria aldetik.*<sup>174</sup>

2.020. Maiatzeko pinpirin botoiek soto gu-  
ziak betetzen.<sup>137</sup>

2.021. Maiatzeko sagar-lorea, utsa baiño ohea.<sup>189</sup>

2.022. Maiatzeko sugeak, urte guziko berdetea.

*Domingone'ko Juanitak, Azkarate, 1967.*<sup>171</sup>

2.023. Maiatzeko uriak, alegeratzen laborrariak.<sup>131</sup>

2.024. Maiatzeko zizea, eriotzako giltzea.

*Ustelduta ordurako. Aztiria. G.*<sup>197</sup>

2.025. Maiatz eurite, urtea ogite; hotza eta luzea, akabo gure laborea.<sup>174</sup>

2.026. Maiatz luzea, maiatz gosea, harek hil zian nere alaba gaztea.

*Nafarroako Urdiain aldetik.*<sup>174</sup>

2.027. Maietza luzia da.<sup>183</sup>

2.028. Maikoa ezta naikoa.<sup>21</sup>

2.029. Maillaz mailla igoaz, santu izatera zoaz.<sup>189</sup>

2.030. Mainaz galazu eta ase-tapa zure zakurra: ausikiko zaitu.<sup>158</sup>

2.031. Maingua zangotik, gezurtia mihitik.<sup>128</sup>

2.032. Maipoxa Martxun ikusi biño, otsua ardi tartian ikusi naio.<sup>198</sup>

2.033. Maita ezak belea, eta aterako dik begia.<sup>9</sup>

2.034. Maitasunak dena leguntzen du.<sup>64</sup>

2.035. Maite aunak, negar eragingo dauka.<sup>92</sup>

2.036. Maite duenari, apoa izar.

*Maite duenarentzat ez dago gauz itsuririk. Saldias, N.*<sup>197</sup>

2.037. Makilak hezurak zafutzen, gaixakeria ez hunkitzen.<sup>137</sup>

2.038. Makur guziak betan.<sup>152</sup>

2.039. Maliñaxiren urteak: igez ogei, aurtan emeretzi.<sup>53</sup>

2.040. Maña bear, ez indar.<sup>9</sup>

2.041. Manatzailek jakin behar lukete zertan mana, zertan ez mana.<sup>148</sup>

2.042. Mandazaia iltzean jakiten da mandoak norenak diran.<sup>9</sup>

2.043. Mandazaiak zatua saltzean, izango du autsia aurrean edo atzean.<sup>10</sup>

2.044. Mandoak umerik ez, eta bearrik ere ez.

*Guraso izateko balio ez duanarentzat esan oi da.*<sup>34</sup>

2.045. Mando merkia, sarritan nekia.

*Gauza merkiak, txarrak ixan oi diralako, garezti urten oi dirala, esaten dausku.*<sup>179</sup>

*Antzeko: Azkue 532.*

2.046. Mandoa, zoin zen hire aita? Donapaleuko behorrik ederrena ama!<sup>146</sup>

2.047. Mantarrak garbitu, ta gauza on asko loitu.

*Elantxobe.*<sup>11</sup>

2.048. Manu gureak ainka ezur bat etxean eta bestea tabernan.<sup>105</sup>

2.049. Maria gurea sukaldean; bazkaldu bearko errusaiñean.<sup>105</sup>

2.050. Mari Anton, bataren gatxa besteren on.<sup>18</sup>

*Azkue 2077 baiño osoago.*

2.051. Mariderrek eztu erlerik, eta dago ez-tiz beterik.<sup>122</sup>

2.052. Mari Joxepa tronpeta, dantza gaitetzen tarteka.<sup>189</sup>

2.053. Mariñelaren alabak, argizai-olari kontu danak.<sup>104</sup>

2.054. Maritzar hainbat Joanestzar bada munduan.<sup>185</sup>

*Antzeko: Inza 2059.*

2.055. Markiña Etxeberri'ko Joxepa Ramona, ezer ez emoteko baiña borondate ona.<sup>110</sup>

*Borondate ona bai, baiña sekula ezer emoten ez dabenei esaten jakue.*

- 2.056. Markiña'ko aizeak gona barrena aldean.<sup>104</sup>
- 2.057. Markiña'ko aizeak, lizunak.  
*Lizunak: astunak, sargoriak.*<sup>105</sup>
- 2.058. Markiñaldea gori, laster dogu euri.<sup>105</sup>
- 2.059. Markiñaldea gorri, errekaizea gori.<sup>105</sup>
- 2.060. Marmarra, jelsiak irabazleari ekartzen dion zerga.<sup>148</sup>
- 2.061. Marraixuak badabiz leorrear be.<sup>105</sup>
- 2.062. Marruma handiena egiten duen behiak ez du esne nasaiena emaiten.<sup>153</sup>
- 2.063. Martiko antxobia erdia ur eta erdia mamiña.<sup>105</sup>
- 2.064. Martiko trumoiaren gaitza, aldean dik ogetamar eguneko ekaitza.  
*Arantzazu, Oñati, G.*<sup>197</sup>
- 2.065. Martxo euritsu, miseria; Petirisants hurbil du.<sup>137</sup>
- 2.066. Martxo aizetsu, apiril euritsu, maiatza gero eguzkitsu.<sup>133</sup>
- 2.067. Martxo aizetsuba, urte sagartsuba.<sup>87</sup>
- 2.068. Martxoak atraie, Apirilek jan.<sup>89</sup>
- 2.069. Martxoak hausko edo uri asko.<sup>131</sup>



2.070. Martxoak belarra, berak indar ta berak igar.

*Izotzak-eta egiten dituelako. Goldaratz. N.<sup>197</sup>*

2.071. Martxoak beti botatzen bere eztena.<sup>137</sup>

2.072. Martxoak pozoina lehen, nun ez deraukan azken.<sup>130</sup>

2.073. Martxoan haize, sagardian lore, has-tian ezpada, finitzian.<sup>137</sup>

2.074. Martxoan haize ta apirilan busti, urtea ez da izanen neholaz zapuzti.<sup>135</sup>

2.075. Martxoan ardiak molkoan (multzoan) bildurik ikustea baino hobe otsoa arditan ikustea.<sup>185</sup>

2.076. Martxoan edurra, apirillean izotza.<sup>87</sup>

2.077. Martxoan edurra egiten badu, urte artan gari asko izango dala esan nai du.<sup>87</sup>

2.078. Martxoan iñusturi edo trumoia jotzen duenean, ardoa ta ogia nun-naitik baidatoz.<sup>87</sup>

2.079. Martxoan usu hegoa; harek baitu makurtzen gogoa.<sup>132</sup>

2.080. Martxoan zenbat izotz, Apirillan ainbeste elur eta Maiatzean ere bildur.<sup>6</sup>

- 2.081. Martxoaren asera, xaarraren piztue-  
ra.<sup>59</sup>
- 2.082. Martxo ederrak eta legorrak upelak  
betetzen ditu.<sup>87</sup>
- 2.083. Martxo eldu ta bero, ardauz lertu  
gero.<sup>180</sup>
- 2.084. Martxo jorra, urguilu jorra. Maiatz  
jorra, lasto jorra. Apiril jorra, behar jorra.<sup>77</sup>
- 2.085. Martxoko elurrak balio du iguzki-  
peko ontasun berria.<sup>137</sup>
- 2.086. Martxoko euriak eztu balio axeri  
baten... pixa!<sup>137</sup>
- 2.087. Martxoko landareak, garizuma eta  
haizegorria.<sup>185</sup>
- 2.088. Martxoko oillanda pizkorrena.<sup>64</sup>
- 2.089. Martxoko pherdegailua, lurrentzat  
marka txarra.<sup>137</sup>
- 2.090. Martxoko trumoiak, berrogei egu-  
neko ekaitza.<sup>22</sup>
- Antzeko: Inza 1950.*
- 2.091. Martxo kuerno! Ehik, eta leher egik!  
*Urdiainen.*<sup>174</sup>
- 2.092. Martxo legorra, Maiatza bustia.<sup>87</sup>
- 2.093. Martxo martxanta, larru tratanta.<sup>88</sup>
2094. Martxo txartxo, ez ardi ta ez artan-  
txo.

*Orexa aldetik.*<sup>174</sup>

2.095. Martxo, txartxo, ez ariko eta ez artxo.<sup>49</sup>

2.096. Martxo xartxo! Etxean burrunba askitxo.<sup>132</sup>

2.097. Martxuen kunkunak jotzea, idiari larrua kentzea.<sup>196</sup>

2.098. Martxu luze, Martxu gose.

*Nafarroako Iturmendin.*<sup>174</sup>

2.099. Matrallu ta ultzi, lagun on bi.<sup>105</sup>

2.100. Mee egon badezu, erosi inbiria.<sup>53</sup>

2.101. Mekanikak gizonari besoa ebas-ten.<sup>146</sup>

2.102. Memoria plakoa da batzuetan.<sup>9</sup>

2.103. Mendaro'tik aruntz gauza andiak.<sup>105</sup>

2.104. Mendebala euritan, berrogei ta zortzi ordu bustitan.<sup>105</sup>

2.105. Mendebaleko gizona euritan jaio ta euritan doana.<sup>105</sup>

2.106. Mendekioak ahالgea ez sunsitzen, baina emendatzen.<sup>151</sup>

2.107. Mendekoste-kari, zeruko dohainak ihaurri.<sup>136</sup>

2.108. Mendekoste, manamenduak munduan haste.<sup>136</sup>

2.109. Mendia gosea dek.<sup>22</sup>

2.110. Mendia jasotzeko prest, baña lezakeana ez.<sup>16</sup>

2.111. Mendiak ez dute alkar jotzen; gizonak bai.<sup>37</sup>

*Antzeko: Azkue 2651, Inza 2172.*

2.112. Mendiak ez tia be(a)rtzen ben artin, miño gu bai (beren artean, baiño gu bai).<sup>198</sup>

*Antzeko: Azkue 2651, Inza 2172.*

2.113. Mendian ikazkiñak, jateko prest agiñak.<sup>189</sup>

2.114. Mendi-kaskoan xapela, zuk har-azu parasola.<sup>153</sup>

2.115. Mendiko ardiak, mendian begiak.<sup>189</sup>

2.116. Mendiko elurra lagun eske dago beti.

*Aztiria aldetik.*<sup>174</sup>

2.117. Mendiko txoriak, mendian egats biak.<sup>189</sup>

2.118. Mezaren luzagarria, aleluia.<sup>9</sup>

2.119. Mihiko pozoina, saminena.<sup>155</sup>

2.120. Mihipeko zaina untsa egina.<sup>195</sup>

*Iztun ederra dena.*

2.121. Milla txori aidean baiño, eskuan bat obe.<sup>53</sup>

2.122. Miñ bako arrena sasijen ustelduten da.<sup>13</sup>

2.123. Mingaiñak ler egitean, barruko miñak ao-betean.<sup>189</sup>

2.124. Mingain luzea, itz-jario ezin asea.<sup>189</sup>

2.125. Mintzen nau, garanak ez, aranak bai.<sup>14</sup>

2.126. Mirabe berriak galbaiaz ura; zarrari sullaz ere lekurik eman ez gura.<sup>9</sup>

2.127. Miru zuria etorri da eta artoak ereiten hasi beharko dogu.<sup>177</sup>

2.128. Mixeria atariraiño ateratzen dugu eta barrura sartzen zaigu.<sup>58</sup>

2.129. Mizkiritz eta Olondriz, gari guti eta haur anitz.<sup>185</sup>

2.130. Modukoa modukoarengana.<sup>22</sup>

2.131. Mokadu onari deadar andi.<sup>14</sup>

2.132. Mokor zabalak, neurrira gona-aztalak.<sup>189</sup>

2.133. Moko ta ego, isatsa gero.<sup>123</sup>

2.134. Moldatu ahala gauza eman dezaigula Jainkoak.

*Gauzak nun sartu ez dakitenengatik.*<sup>187</sup>

2.135. Morroiaren eta neskamearen bildurrik ez dun belarra, uztaoa.

*Uztaoak zain luzeak ditu, alpapak baiño luzeagoak, eta lurra erruz gosetzen du.*<sup>39</sup>

2.136. Morroi barriak zestuarekin (otzara-rekin) ura.

*Berritan gauzak bizkor eta ondo egiten dirala.*<sup>190</sup>

2.137. Mozkorra geienean egarriak, eta al-perra beti nekatua.<sup>178</sup>

2.138. Mozkorraren etxean, zazpi bijili as-tean.<sup>23</sup>

2.139. Mozkorren batelean, sare orde zara-giak.<sup>105</sup>

2.140. Mozkorrik txarrena, edan gabeko mozkorra.<sup>54</sup>

2.141. Mozkorrik txarrena, urarena; bein arrapatu ezker pasatzen ez dana.

*Ito egiten dala alegia.*<sup>52</sup>

2.142. Mundua lapitzak eta paperak galduko dute.<sup>72</sup>

2.143. Munduan aberats denak, adiskide asko ta onak.<sup>189</sup>

2.144. Munduan asko lez, zakurra arto-koskorrez.<sup>189</sup>

2.145. Munduan azken ofizioa: ohointza. Azkenaren aintzinekoa: eske ibiltzea.<sup>162</sup>

2.146. Munduan jendetasuna, ate hainitzen gakoa.<sup>153</sup>

2.147. Munduaren erdiak ez daki beste erdia nola bizi dan.<sup>12</sup>

2.148. Munduko berriak aztertzeiko naikoa: eri-etxeiko gaixoa ta konbentu itxiko monjatxoa.<sup>189</sup>

2.149. Munduko gauzen zori: gaur argi, biar itzali.<sup>189</sup>

2.150. Mundu onetan bi gauza ikusten ditut alperrik: zugaitzen gaiñeko zotz igarra ta eroen indarra.<sup>12</sup>

*Antzeko: Inza, Ormazabal 47.*

2.151. Mundu ontan, denak igualak ez gintezke (gizonok), eskuko beatzak bezala.

*Alli, 1965.<sup>171</sup>*

2.152. Mundu huntako urosena, bere doiaz gogoa betetzen duena.<sup>117</sup>

2.153. Mundu zoro au badaro, zaartzerago ta zoroago.<sup>189</sup>

2.154. Mutil ondo gura, zopak jan da be logura.<sup>104</sup>

2.155. Mutriku txabillu erri bero, katillu bete salda bero.<sup>105</sup>

2.156. Muxarrak, gabean edo alban.<sup>105</sup>

## N

2.157. Nagian nagia, arraskan zaragia.<sup>189</sup>

2.158. Naguse gaizto mutil izana.

*Baita ere: Naguse gaiztoena mutil izana.*

*Erderazko: No sirvas a quien sirvió.*<sup>195</sup>

2.159. Nagusiak agintzen duan tokian lotzen da astoa.<sup>54</sup>

2.160. Nagusiak nahi duena egiten du.<sup>185</sup>

2.161. Nagusia nolako, txakurra alako.<sup>16</sup>

2.162. Nagusia supinetan, mutil zaharra supekarretan.

*Arakil aldetik esaten dutena.*<sup>174</sup>

2.163. Nagusi eroa baño, gogorra obe.<sup>201</sup>

2.164. Nahiago dut adixkidea, ezen ez eta ahidea.<sup>148</sup>

2.165. Nahiago dut Itorrotzeko mera izan, Mauleko axuant baino.<sup>142</sup>

2.166. Nai badek bizi min gabe, ez dezake-lá jan gose gabe.<sup>201</sup>



2.167. Nai badezu izan santu, frailetzara sartu.<sup>189</sup>

2.168. Nahi baduzu lauda zaitzaten, zuhauk ez lauda zure burua.<sup>153</sup>

2.169. Nahi baduzu senarrari bizia laburtu, emotzu errearoan azak jaterat.<sup>127</sup>

*Antzeko: Inza 270, 1286.*

2.170. Nai duenak aal du, nai ez duenak guzia galdu.<sup>189</sup>

2.171. Nai duenak gertatu parragarri, bere buruaz itzegin.<sup>9</sup>

2.172. Nai duenak luzaroan bizi, oilloekin oera, txoriekin jeiki.<sup>189</sup>

2.173. Nai ez badek goseak bizi, lan egiñaz zuur bizi.<sup>189</sup>

2.174. Nai eztetala, naramate nai detan tokira.<sup>9</sup>

2.175. Nahikariak edertzen ditu gauza guziak.<sup>114</sup>

2.176. Nahikatuarentzat ezinik ez.<sup>155</sup>

2.177. Nahikunde duenak indar badu.<sup>139</sup>

2.178. Nai nukez ta banukez, bazter guziak beteak daudez.<sup>9</sup>

2.179. Naiz beatzaz arria, naiz arriaz beatza, bardin.<sup>11</sup>

2.180. Naiz lurra gogorra, naiz biguña egon, San Lukasetan erein zazu.<sup>194</sup>

*San Lukas eguna: Urria, 18.*

2.181. Naparroa'ko osaba ibilliko zan.

*Ardoa, alegia.*<sup>54</sup>

2.182. Nausi asko dan ontzijan, arrain gitxi.<sup>180</sup>

2.183. Negar da barre, txitxi-burduntzi.

*Zuzu-burduntzi beste batzuk.*<sup>170</sup>

2.184. Negua berandu, uzta eraman du.<sup>53</sup>

2.185. Negua ez bada neguan gertatzen, udak ere huts eginen.<sup>132</sup>

2.186. Neguan otz eta udaran bero, orrelaxe urtero.<sup>123</sup>

2.187. Neguari zuztarra moztuko dion sagurik ez da sortu oraindik.

*Urnietako esaera zaharra.*<sup>174</sup>

2.188. Negu elurtsu, urte garitsu.<sup>16</sup>

2.189. Negu gogorra noiz? Uzta oberik iñoiz?<sup>53</sup>

2.190. Neguko aro ederrak, udako bere urak.<sup>133</sup>

2.191. Neguko ortotsa, zortzi eguneko ekaitza.<sup>174</sup>

2.192. Negu otzean, edonor ardatzean.<sup>189</sup>

2.193. Nekazaria beti ikasten ari da, ta be-  
ñere ikasi ez.<sup>12</sup>

2.194. Nekez aurki dezakegu zoriona gu-  
hauren baitan; sekulan ez bertzetan.<sup>137</sup>

2.195. Nekez bildu, aisa banatu.<sup>9</sup>

2.196. Nehoiz ez da ikusi su gabeko ke-  
rik.<sup>120</sup>

2.197. Nehor ez da orotako on.<sup>137</sup>

2.198. Nehork ez laket gorosti-pereka.<sup>155</sup>

2.199. Nere amak oiu ta oiu, baña nik ostu  
ta galdu.<sup>13</sup>

2.200. Nerea neretzat, besterena biontzat.<sup>9</sup>

2.201. Nereaz nere, doi-doia bada ere.<sup>48</sup>

2.202. Nere etxeko kea, laguneneko sua  
baño obea.<sup>201</sup>

2.203. Nere ezurrak nere txokora.

*Batez ere euskaldunok, sorterria aaztu ezi-  
ñekoa bait degu.*<sup>123</sup>

2.204. Neskatile galantaren etxean, axe  
otza goxean, atea trinbilin-tranbalan, eztago  
iñor etxean.<sup>4</sup>

2.205. Nexkatxa, emen plaza eta an  
dantza. Igandetan pesta, astegunetan presta.  
Gero ezkondu ta etxea gainera plasta!

*Aitziber aldizkaritik.*<sup>197</sup>

2.206. Nexkatxak altxatzen diren heinean jendetzea altxatzen da.<sup>148</sup>

2.207. Neure begiz ikusia, katuan ondoren odolkia.<sup>189</sup>

2.208. Neurriko zapatak billatuko ditu.<sup>12</sup>  
*Antzeko: Azkue, 846.*

2.209. Nigarra ez da beti pena handi baten froga.<sup>153</sup>

2.210. Nigarrari ez fida, tipulak ere baite-rama.<sup>147</sup>

2.211. Nik au, zuk au, zozkerak eman dau.<sup>92</sup>

2.212. Nik banetizkik talo bi ta ik zartagi-koa, burutuko genukek ortik onakoa...<sup>189</sup>

2.213. Nik ekarri, ik ekarri, ekarria ekarri.<sup>58</sup>

2.214. Nik ere banuan andre alta bat, baiñan arek ere bazuan falta bat.

*Alta itzak dorotea esan nai du emen.*<sup>12</sup>

2.215. Nik loxintxa katuari, katuak bere buztanari.<sup>189</sup>

2.216. Nik piztiak gizendu; gero berak gailendu.<sup>47</sup>

2.217. Nihork ez jakin zertarik iragan behar giren.<sup>158</sup>

2.218. Noiz arte? Beste bat arte.<sup>179</sup>

2.219. Noiz edo noiz, motzak adarrak.<sup>12</sup>

2.220. «Nola haiz?». «Hauzoak nahi baino hobeki». <sup>43</sup>

2.221. Nola apaizaren kantua, ala akollituak erantzuna. <sup>189</sup>

*Antzeko: J. Elissalde: «Atsotitz, zuhur-hitz eta erran zahar».* Gure Herria, 1936.

2.222. Nola has, hala burura. <sup>141</sup>

2.223. Nola bizi, hala hil. <sup>138</sup>

2.224. Nola entzun, ala erantzun. <sup>97</sup>

2.225. Nola irabazi, hala iragazi. <sup>177</sup>

2.226. Nolako alkatia, alako justiziya. <sup>9</sup>

2.227. Nolako asiera, alako akabera. <sup>9</sup>

2.228. Nolako biotza, alako arpegia. <sup>9</sup>

2.229. Nolako bizitza, alako eriotza. <sup>9</sup>

2.230. Nolako egite, alako pagu. <sup>7</sup>

2.231. Nolako eltzea, alako burruntzalia. <sup>9</sup>

2.232. Nolako etxeoandrea, alako mirabea. <sup>9</sup>

2.233. Nolako galtza zar, alako gona zar. <sup>83</sup>

2.234. Nolako gizona, alako itzala. <sup>70</sup>

2.235. Nolako langillia, alako erramienta. <sup>198</sup>

2.236. Nolako lapikoa, alako tapa. <sup>52</sup>

- 2.237. Nolako marmita, alako tapa, beñere ezta palta.<sup>6</sup>
- 2.238. Nolako neguba, alako erropa.<sup>9</sup>
- 2.239. Nolako tronkoa, alako ezpala.<sup>10</sup>
- 2.240. Nolako zango, halako oineko.<sup>137</sup>
- 2.241. Nola pentsa, hala egin.<sup>141</sup>
- 2.242. Non abere illa, putrek aren billa.<sup>16</sup>
- 2.243. Non dan bagea, an da zalea.<sup>7</sup>
- 2.244. Nondik lan, andik jan.<sup>7</sup>
- 2.245. Non jan duk ik aurreneko potajia?<sup>198</sup>
- 2.246. Non sua dan, kea bada an.<sup>7</sup>
- 2.247. Nora era, ara bandera.<sup>44</sup>
- 2.248. Noraezean ibilli ondoren, etxerako bidea erraz aurkitzen da.<sup>123</sup>
- 2.249. Norat haize eta harat bela.<sup>114</sup>
- 2.250. Norbaitek erregalatutako zaldiari etzaio ortzetara begiratu bear.<sup>178</sup>
- 2.251. Norbait penatua delarik, ez hari aipa zorionik.<sup>153</sup>
- 2.252. Norbe(r)ak aurreneko be(re) burua ziñatu be(a)r du.<sup>199</sup>
- 2.253. Nori nola mintza.<sup>155</sup>

2.254. Nork bere burua bortxatu gabe jendetasunik ez.<sup>139</sup>

2.255. Nork bere santuari erregutzen dio.<sup>9</sup>

2.256. Nork dakike nola bururatuko duen hasi duen lana?<sup>142</sup>

2.257. Nork nai du jolasa? Bizi danak lasa.<sup>9</sup>

2.258. Nork nori? Pazia zarrak pertzari.<sup>7</sup>

2.259. Notaria bera tronpa ditake irakurtzean.<sup>146</sup>

2.260. Nunbaiteko peria, askorentzat aitzakia.<sup>189</sup>

2.261. Nunbait sartu gabe orroit jallitzeaz.<sup>146</sup>

2.262. Nun da festa? An da xankua!<sup>123</sup>

2.263. Nun ere ez baita zuzentasunik, ez da izaiten ohorerik.<sup>152</sup>

2.264. Nun gertatu, an ostatu.<sup>189</sup>

2.265. Nun gogoa, an zankoa.<sup>189</sup>

*Antzeko: J.Elissalde: «Atsotitz, zuhur-hitz eta erran zahar», Gure Herria.1936.*

2.266. Nun iriña, an opilla.<sup>189</sup>

2.267. Nun-nai dago zerbait.<sup>18</sup>

2.268. Nun nor topatuko, zenbait beti ezkontzeko.<sup>189</sup>

2.269. Nur bera ezagutzia da jakitatia.<sup>122</sup>

## O

2.270. Oba da gitxi ixan eta kito, ez asko ixan eta zorrez ito.<sup>180</sup>

2.271. Obea da bat eskuan, ez bi auzuan.<sup>9</sup>

2.272. Obea da bat ona, bi txarrak baño.<sup>9</sup>

2.273. Obea da gutxi eta ona, asko eta txarra baño.<sup>9</sup>

2.274. Obe da alkar attu, alkar il baño.<sup>15</sup>

2.275. Hobe da ahurtara bat erle, zakutara bat uli baino.<sup>137</sup>

2.276. Hobe da batere ez pentsatzea, ez aski pentsatzea baino.<sup>145</sup>

2.277. Obe da bein gorritzea, berrogei aldiz oritzea baño.<sup>52</sup>

2.278. Obe da bein tori, eun aldiz tati baño.<sup>52</sup>

2.279. Obe da, ezer ez baño, ezer.<sup>201</sup>



- 2.280. Hobe da ixilik egoitea, erraitekorik gabe mintzatzea baino.<sup>142</sup>
- 2.281. Obe da noiz, ezen ez iñoiz.<sup>14</sup>
- 2.282. Obe da ogi utsa, ao utsa baño.<sup>201</sup>
- 2.283. Obe da trumoia, rogatiba baño.<sup>84</sup>
- 2.284. Obe dek bein to, ezen ez bi gero.<sup>7</sup>
- 2.285. Hobe dire lanak, ezen ez famak.<sup>115</sup>  
*Antzeko: Azkue 2713.*
- 2.286. Hobendunak altxa dezala erhia!<sup>155</sup>
- 2.287. Hoben-gaitzari gaztigu-gaitza darraio.<sup>142</sup>
- 2.288. Obrak dirade amore, ez itz onen kolore.<sup>7</sup>
- 2.289. Obrarik gabe, elea ele.<sup>155</sup>
- 2.290. Odolekua zein dan itandu amari; ez aitari.<sup>105</sup>
- 2.291. Odolkiak, egiten diran bezelakoak izaten dira.<sup>70</sup>
- 2.292. Odolkiak ordaiñetan, baiña apaizaren etxetik ez.<sup>39</sup>
- 2.293. Oheak gaztea azkartzen, zaharra ahultzen.<sup>139</sup>
- 2.294. Ohean k... egin duena burua gorenik mintzatzen.<sup>158</sup>

- 2.295. Oerik onena, kontzienzi garbia.<sup>64</sup>
- 2.296. Ogia nasaiean, arnoa neurrian.<sup>148</sup>
- 2.297. Ogian truke dabil maiatza su eske.<sup>129</sup>
- 2.298. Ogiaren alboan otasa beltz; bere beltzean ere lotsarik ez.<sup>189</sup>
- 2.299. Ogi trokua ezpanetan eta kandelak sudurrean, arima pielak badakie laguntzen premiña danean.<sup>105</sup>
- 2.300. Ogirik gabeko ezkontza, burruka latza.<sup>64</sup>
- 2.301. Ogi zuria jango dik Bikariok, guretzat utzita kardu ta itariok.  
*Legazpi aldetik ematen zuten esaera.*<sup>177</sup>
- 2.302. Oihal merkea kario, iraun ez baitio.<sup>146</sup>
- 2.303. Oihandarrak oihaneko berri.<sup>150</sup>
- 2.304. Oianean dabillanak, arrisku asko ta argi gutxi.<sup>123</sup>
- 2.305. Oiartzun'en artzeko ta Ernani'n zor, konpon adi or.<sup>12</sup>
- 2.306. Oien asarrea ta gure zakurraren errena, berdin-berdiñak.<sup>52</sup>
- 2.307. Oilar flakoa gainkaria.<sup>106</sup>
- 2.308. Oillarra bere lurrean sendo.<sup>201</sup>  
*Antzeko: Inza 179.*

- 2.309. Oilarra hor delarik, oiloak ez du kanturik.<sup>153</sup>
- 2.310. Oiloak arrautzea ere gaizki egiten duelakoan jartzen du.<sup>195</sup>
- 2.311. Oiloak atzaparrak behar lituzke atzera.<sup>195</sup>
- 2.312. Oilloak auts artean, ekatxa dozu atean.<sup>91</sup>
- 2.313. Oiloak oilarrari errespetu.<sup>148</sup>
- 2.314. Oillo-amak, bereak ez txito denak.<sup>189</sup>
- 2.315. Oilloaren kakarakak; arrautza bazeukak.<sup>64</sup>
- 2.316. Oילו asko, arto asko; kokotx eta lasto.<sup>189</sup>
- 2.317. Oilloa ta emakumia laster galtzen dira, etxetik urruntzen badira.<sup>181</sup>
- 2.318. Oilloa ta oillanda, kaletarrentzat purra-purra.<sup>105</sup>
- 2.319. Oילו beltzak arrautz txuria; gezurak tartean egia.<sup>189</sup>
- 2.320. Oילו beltzak arroltze xuria erruten.<sup>135</sup>
- 2.321. Oילו elbarria, arrautz-jale garbia.<sup>189</sup>
- 2.322. Oילו-kakak, ondo igortzita be kaka-  
-autsak.<sup>105</sup>

2.323. Oillo-kakaz ezpanik ez baltzitu; urteak berez gizonduko zaitu.<sup>105</sup>

2.324. Oilo kantari arroltzearen salatari.<sup>137</sup>

2.325. Oiñak luze, begia luzeago.<sup>189</sup>

2.326. Oiñak nolakoak, neurrira oiñeta-koak.<sup>189</sup>

2.327. Oiñen bete, zapata.<sup>9</sup>

2.328. Oinez aise dabila, zaldia bridatik daukana.<sup>153</sup>

2.329. Oinik busti gabe otarrainik ez.<sup>155</sup>

2.330. Oitu bai, oitu, astoa kurruperako etenarekin bezela.

*Derrigorrezko ibillera adierazteko.*<sup>52</sup>

2.331. Oitura gaiztoa, berandu aztua.<sup>201</sup>

2.332. Oitura gaiztoa, bernea autsi ta bi-joa.<sup>7</sup>

*Beste onela ere bai: Oitura gaiztoari berna-zakia autsi.*

2.333. Oiturak lege oi dakar.<sup>201</sup>

2.334. Oitura omen dek bigarren izaera.<sup>14</sup>

2.335. Oihuek ez dute triparik betetzen.<sup>146</sup>

2.336. Oihuek otsoa den baino handiago egiten.<sup>153</sup>

2.337. Okerra bada, itaia; zuzena bada, burruntzia; zabala bada, pala; jo, dana dala.

*Andoain.*<sup>11</sup>

2.338. Okerra bear danean, zuzenik ez.

*Ezbearren bat gertatutakoan esan oi dana.*<sup>123</sup>

2.339. Oker zuzenik ez.

*Berezko eño agiriko akats nabarmen dune-kin argi ibiltzeko esan nai du.*<sup>52</sup>

2.340. Hola ezpaldin bada, holatsu.<sup>152</sup>

2.341. Olagarruak amarratzari: Ea esan: zelan deitzen dautzue Ea'n? <sup>105</sup>

2.342. Ola-gizonak eta errementariak, poltsan diru gutxi ta begiak gorriak.<sup>12</sup>

*Antzeko: Azkue: 236, 868.*

2.343. Olajaun pobreak agorra, aitzaki ona.<sup>9</sup>

2.344. Olan eta olanik, bardin ez badira be, ez dira ezbardin.<sup>105</sup>

2.345. Olatu bare-barea, olatu andiaren asiera.<sup>105</sup>

2.346. Olgetan asi eta benetan amaitu.<sup>105</sup>

2.347. Olo beltzak erran zaun nausiari: Erein nazain berant, erein nazain goixtar, Martxoraino ez nauk ekusi bear.<sup>174</sup>

2.348. Omen diona ez daite engana.<sup>149</sup>

2.349. Omia Sendore, Saindu guzien oitza gure.<sup>136</sup>

2.350. Ona da errotaria, artoa(re)n lekuan emateko ogia.<sup>9</sup>

2.351. Ona izango litzake, atze aurre be-  
rriak egin ezkeru.<sup>9</sup>

2.352. Onak, famatu bearrik ez.<sup>53</sup>

2.353. Onaren berri nai duenak jakin, txarra zer dan progatu.<sup>9</sup>

2.354. On da ematea, artzea ohea.<sup>9</sup>

2.355. Ondamendiak il ez ta ondasunak  
grak.<sup>105</sup>

2.356. Ondasuna gorde gura (nai) badozu,  
zeure begiakaz begitu iozu.<sup>173</sup>

2.357. Ondasunak sartzen zazko leihotik  
limosna egiten duenari.<sup>185</sup>

2.358. Ondarrua, erri berua.<sup>105</sup>

2.359. Ondo badago, ez du mediku bea-  
rrik.<sup>12</sup>

2.360. Ondo egiñak, ondo dirudi.<sup>13</sup>

2.361. Ondo egiñen saria, sarritan da min-  
garria.<sup>66</sup>

2.362. Ondo pasea, ondo kontatu.<sup>85</sup>

2.363. Ondoren gaiztok onduko nau.

*Malo vendrá que bueno me hará.*<sup>14</sup>

2.364. Ondua joteari, il; ondora joateari  
itto. Kostan kostako lez berba egin ta kitto.<sup>105</sup>

2.365. Onean on dena, txarrean txarre-  
na.<sup>189</sup>

2.366. Onegiak galdu ei eban «Obe» eta  
biurtu probe.<sup>105</sup>

2.367. On egiña eder, gaizki egiña oker.<sup>91</sup>

2.368. On egiña, gaizki pagatu.<sup>9</sup>

2.369. On egiñak, iñon eztu lotsik.<sup>9</sup>

2.370. On egiñaren saria, esker txarra.<sup>9</sup>

2.371. On egiñari ez eragin.<sup>15</sup>

2.372. *On* ei zan gizona antziñetan; orain  
*don*.<sup>105</sup>

2.373. On erexteko Jainkoari, egiok ugari  
lagun urkoari.<sup>67</sup>

2.374. Ongi hastea ongi bururatzearen sei-  
nalea.<sup>136</sup>

2.375. Ongi azia dan alaba bakarrak, arto-  
bero usaia zeramak.<sup>189</sup>

2.376. Ongi egin bat ez da sekulan gal-  
dua.<sup>108</sup>

2.377. Ongi egin ezkerro loa, osasuna ongi  
dijoa.<sup>58</sup>

2.378. Ongi esanak goguan artu ta gaizki  
esanak barkatu.<sup>199</sup>

2.379. Ongi xagok paradisuan den atsoa.  
Hobeki xagok urteko garia etxean duena.<sup>186</sup>

2.380. Ontasuna ez dago andi-txikian.<sup>173</sup>

2.381. Ontu gabeko mahatsak arno on guti.<sup>147</sup>

2.382. Ontsa has, ontsa bururatzeko.<sup>138</sup>

2.383. Ontziak, zenbat eta utsago, ainbat eta arrabotsa andiago.<sup>173</sup>

*Antzeko: Oihenart 452, Azkue 2265.*

2.384. Ohorea su piztekoen pare: ez ditake behin baizik balia.<sup>142</sup>

2.385. Ohore zakua beti hutsa.<sup>152</sup>

2.386. Orai kintze loriosena, geroxago peto hitsena.<sup>117</sup>

2.387. Oraiñak oraiñari eldu, inguruka da-goenak keiñu.<sup>189</sup>

2.388. Orain amildu, gero altxa; olatsu doa mundu beltza.<sup>189</sup>

2.389. Oraindik ere baziok ori, belea egondako esola aiñakoa.

*Belea esolaren gaiñean ikusi omen zuan lengo gizon batek, eta ogia esola artan igortzi ta jan omen zuan. Guk, berriz, zartagia koi-pearekin ibilli ta ia agortzen zanean, ala esan oi genduan.<sup>12</sup>*

2.390. Oraingo ixilla, laster izango dek iskanbilla.<sup>9</sup>

2.391. Or bertan Bilbo!



*Arrigarrizko gauzaren bat ikustean edo inguruan jazo dala jakitean, Durangalde ta Zornotza'n beintzat.*<sup>123</sup>

2.392. Or dabil ez nora ta ez ara.<sup>52</sup>

2.393. Or dator Lazaro! Barran sartu orduko txiparra dario.<sup>105</sup>

2.394. Ordu batean ezin dana, bitan egiten da.<sup>9</sup>

2.395. Ordu onean gaitza atoz, bakarrik bazatoz.<sup>7</sup>

2.396. Ordurako iritxi nai badezu, ez azkarregi abitu.<sup>12</sup>

2.397. Ori bai dala etxeko teillatura arrika aritzea.<sup>52</sup>

2.398. Ori be astuaren adarkadatik ezta ilgo; ezta legorrean itto be.<sup>15</sup>

2.399. Ori, ori, ondarrutarrak itxasoari.<sup>103</sup>

2.400. Or konpon orain, larri intzan eurea egin arte ta.<sup>52</sup>

2.401. Oro ezin izan.<sup>152</sup>

2.402. Oroit bertzeak ere norbait direla.<sup>141</sup>

2.403. Orok badakigu mundua gure izariz gaindikoa dela, baina ez sinetsi nahi.<sup>142</sup>

2.404. Orok zerbeit eskas.<sup>43</sup>

2.405. Orotako on dena, nihorat ezin kondena.<sup>116</sup>

- 2.406. Orotarik bada mundu huntan<sup>154</sup>
- 2.407. Oro zerbeit ari.<sup>117</sup>
- 2.408. Orra lagun bi: matrallu ta ultzi.<sup>104</sup>
- 2.409. Orratzetik hari denak jakiten.<sup>158</sup>
- 2.410. Orrek badaki zein egunetan zein so-  
ñeko jantzi.<sup>25</sup>
- 2.411. Orrela izango da ori, ankaraz aurrera  
eraman arte.<sup>52</sup>
- 2.412. Orren burutik etzan sortu Erroma.  
*Jakinduri gutxikoa.*<sup>123</sup>
- 2.413. Orren lenengo andrea emaztea izan  
zan; bigarrena adiskidea; andik aurrera nar-  
raste.<sup>123</sup>
- 2.414. Orrillako intzak, urrea balio du.<sup>11</sup>
- 2.415. Orroa ez da baitezpada arrazoin  
onaren marka.<sup>152</sup>
- 2.416. Orruka ta ojuka goizean, negar-  
-uluka gabea, eguneroko kantua itxas-er-  
tzean.<sup>105</sup>
- 2.417. Ortzetik ortzera itzegiten diagu guk  
askotan; bañan gizonak, egia esateko, biotze-  
tik biotzera itzegin bear dik.<sup>1</sup>
- 2.418. Or zabiltze marra-marra, ta orain  
nik ezin amarra.<sup>21</sup>

2.419. Osagarriari eta sosari, delarik behar da kasu egin.<sup>195</sup>

2.420. Osasuna eztago lodi-argalean.<sup>200</sup>

2.421. Osasuna ta bakia, lapiko ondo betia, andra galanta ta dotia, askoren amesetia.<sup>188</sup>

2.422. Osasuna ta ondasuna, ta emon nai dozuna.<sup>105</sup>

2.423. Ospelak sendatzeko erremediorik onena, Maiatzeko intz epela.<sup>54</sup>

2.424. Ostalera ate aintzinean, ez baitu nehor barnean<sup>152</sup>

2.425. Ostikada ez beste guztiak artu bear dira.<sup>22</sup>

2.426. Hostoa ateratzean, denbora txarra.<sup>196</sup>

2.427. Ostroak lurrera, garia lurrera.<sup>53</sup>

2.428. Otoak, gerlak bezenbat jende hiltzen du.<sup>144</sup>

2.429. Oto eta otokar, bideak ixtripu dakar.<sup>134</sup>

2.430. Otoitza, Jainkoarekilako lokarri.<sup>138</sup>

2.431. Otoitza, hilek laketena duten lorea.<sup>138</sup>

2.432. Otsailak belarra berak ekar eta berak ihar (izozten zelakoz). Martxoak belarra

harri azpitik zelar (zelatari). Apirilak, larrii (zelaia) bete belar.

*Nafarroako Saldias aldetik.*<sup>174</sup>

2.433. Otsailak buha buha, xoxoa kafiran hila.<sup>130</sup>

2.434. Otsaila laburko, bena andurko (maltxur).<sup>174</sup>

2.435. Otsaila, nahiz laburrena, da ilabete txarrena.<sup>148</sup>

2.436. Otsaillean bero, negua gero.<sup>12</sup>

2.437. Otsailean gizona mauko hutsetan baino hobe da otsoa arditan ikustea.

*Arruazuko artzain zahar bati entzuna.*<sup>187</sup>

2.438. Otsailean, katuak be arrain eskean.<sup>105</sup>

2.439. Otsailean lainoa noraino, elurra gero haraino.<sup>174</sup>

*Antzeko: Azkue 173, 1775; Inza 1963, 2312, 2469.*

2.440. Otsailean olo eder, ez utz esperantxa bester.<sup>133</sup>

2.441. Otsailean tximeleta baiño, otsoa ardi tartean ikusi naiago, lengo artzaiak esana.<sup>12</sup>

2.442. Otsaileko elurrak ongarrri hoberena balio du.<sup>137</sup>

2.443. Otsaileko ilbete, elurra hi bete.<sup>174</sup>

2.444. Otsaileko ura, ongarri jusaren pare.<sup>137</sup>

2.445. Otsaileko uri, urteko ongarri.<sup>133</sup>

2.446. Otsailgo lora, ezpalitz hoba; Apirileko lora, bapez baino hoba; Maiatzeko lora, ha da flora!

*Arantzazu aldetik, udaberriz beranduago zetorrenez gero.*<sup>174</sup>

2.447. Otsail txiki hasarria, ez haiz besteak baino hobia!<sup>196</sup>

2.448. Otsailtxo laburrean, kataarrak gaulapurtean.<sup>189</sup>

2.449. Otsailtxo munduan, aldiz eguzkitan, aldiz sutondoan.<sup>189</sup>

2.450. Otsail txiki laburko, ez haiz besteak baino hobia.<sup>174</sup>

2.451. Otsoa ardi-larruz jantzita.<sup>54</sup>

2.452. Otsoa arditan bezala harrapatu.

*Gaizki esanka eta bera agertu.*<sup>196</sup>

2.453. Otsoa arguio (aitatu) eta otsoa atee-tan.<sup>64</sup>

*Antzeko: Inza 1207.*

2.454. Otsoa bakarrean orruka, bi ezkerorik korrika.<sup>189</sup>

2.455. Otsoak il, naiz artzaiak il, ardiarentzat berdin.<sup>101</sup>

*Antzekoa: «Zahar hitz, zuhur hitz» liburuan, 51 orri-aldean.*

2.456. Otsoakin ibilli ta goauta ikasi.

*Quien con lobos anda a auillar se enseña.*<sup>14</sup>

2.457. Otsoa maitegi duena ez dateke artzain ona.<sup>152</sup>

2.458. Otsoa nun aipa, han gerta.<sup>156</sup>

2.459. Otsoaren adixkidea artzain gaixto.<sup>153</sup>

2.460. Otsoaren eskutik ere, mokadu bat atsegin da.<sup>9</sup>

2.461. Otsoaren ume, otsakume.<sup>189</sup>

2.462. Otso askorentzat aragi gutxi dago emen.<sup>9</sup>

2.463. Otsoen beldur dena ez bedi joan oihanera.<sup>142</sup>

2.464. Otsoen hilabetea omen zen otsaila.<sup>136</sup>

2.465. Otsoatik ille bat bederik, ta ura betondotik.<sup>14</sup>

2.466. Hotzak, goseak baino hobeki eskolatzen du.<sup>137</sup>

## P

2.467. Pakean bizi nai duenak dagola ixilik.<sup>172</sup>

2.468. Pake batek, amaika eskandalo baiño geiago balio du.<sup>27</sup>

2.469. Pakegille sartu nai badek, ongi bu-  
rua gorde bear dek.<sup>7</sup>

2.470. Parkerik ez bada, ez lanik, ez lotsa-  
rik.<sup>123</sup>

2.471. Parkerik txarrena obe, gerrarik one-  
na baiño.<sup>37</sup>

2.472. Pake txarra ohea da, gerra ona bai-  
ño.<sup>9</sup>

2.473. Palaz edo eskuz, dabillena beti  
entzun.<sup>105</sup>

2.474. Panparroi, txikia banauk, aundia  
banauk, maiatzean burutuko nauk, i aiña ba-  
nauk.<sup>73</sup>

*Otsaillean-edo, zikirioa aundi eta garia*

*txiki oi dira; eta gariak zikirioari esandako itzak dira auek.*

*Esaera au ezaguna da. Baiñan bestetan baiño osoago ematen da emen.*

2.475. Paparduak lez: an zarealakuan emen.<sup>105</sup>

2.476. Paparra zabal-da, oilla-narru; uste gabean aizerik aski badu.<sup>189</sup>

2.477. Paperak au ta bestia; platera bedi betia; ortxe dago egia.<sup>105</sup>

2.478. Parienteak eta traste zaarrak, zenbat eta urrutiago obe.<sup>64</sup>

2.479. Parise guzia erre lezake, bere arroltzearen freitzeko.<sup>153</sup>

2.480. Partidak xerkatzen ditu xerka dabilenak.

*El que siembra vientos recoge tempestades.*<sup>185</sup>

2.481. Pasaitarrena: esan baiñon leen erantzun.<sup>9</sup>

2.482. Paseak aztu egiten dira.

*Andoain.*<sup>11</sup>

2.483. *Pater noster*, dirua laster.<sup>105</sup>

*Baita ere «kalera laster» edo «zerura laster».*

2.484. Patroi onak, erramulari faltarik ez.<sup>105</sup>



- 2.485. Patroi makalak, aitzaki ta esanlak.<sup>105</sup>
- 2.486. Patxi pitxi, salda asko ta okelagitxi.<sup>104</sup>
- 2.487. Paziaren ondoren, soka putzura.<sup>9</sup>
- 2.488. Pazia zarrak pertzari: Ken adi, ipur beltz ori!<sup>9</sup>
- 2.489. Pazientzia da zortzigarren sakramendua.<sup>153</sup>
- 2.490. Pazkoa euritsu, urte hura ogitsu.<sup>137</sup>
- 2.491. Pekatu ariña norberak egiña.<sup>16</sup>
- 2.492. Pelotaririk onenak, korretakuak.  
*Ondarrua'ko elizatik begira egon oi diranengaitik esan oi da: berak pelotarik ukuitu bage, ondoen jokutzen dute ta.*<sup>105</sup>
- 2.493. Penaren karameloa, esperantza.<sup>9</sup>
- 2.494. Pentze txar, murrutxa, ekainean deusik emaiten ez duena.<sup>137</sup>
- 2.495. Pentze txarrenak ere, ekainean badakarke.<sup>130</sup>
- 2.496. Pertolan sartuta arraina pentsaketa.<sup>155</sup>
- 2.497. Pertzak ipurdia beltza, ori dakiena etxeko gelatza.<sup>189</sup>
- 2.498. Pezoin asketan dabilana goiz edo berant leizerat erortzen.<sup>158</sup>

2.499. Pikaren umea pika, astoarena batzutan mandoa.<sup>144</sup>

2.500. Pinoa ari goiti-goiti, ezin haatik zerua hunki.<sup>137</sup>

2.501. Pinpirina pausatzean adarra hauts beldur.<sup>155</sup>

2.502. Pipariak ez du sinesten tabakoa kalte dakiokela.<sup>147</sup>

2.503. Piska bat txarrago izanda ere, eza-guna hobe.<sup>196</sup>

2.504. Pitotxa izanik ere, gatura gatu.<sup>144</sup>

2.505. Pittin-pittinka, aleak kutxatik anka.<sup>189</sup>

2.506. Pitxerra, arriagaz jota apurtu, nai beragaz arria jota apurtu, bardin-bardin da.<sup>4</sup>

2.507. Pla-pla egindako antxoak lako arraiñik ez dago.<sup>105</sup>

2.508. Platusak lako ziriña, egin eban amak gure txikiña.<sup>105</sup>

2.509. Plazako neska ederrak, eta Azaroko izarrak, azken berdin xamarrek.<sup>174</sup>

2.510. Plazer guziak ezin izan.<sup>149</sup>

2.511. Pobrearen oñean beti arantzea.<sup>18</sup>

2.512. Pobre arroa baiño txarragorik ez da.<sup>54</sup>

- 2.513. Poliki-poliki ta astiro-astiro, beti ez-tiro.<sup>123</sup>
- 2.514. Poltsan diru geiago, asmu geiago.<sup>15</sup>
- 2.515. Popako txintxurre, beti gogor.  
*Erramulari onagaitik esan oi da.*<sup>105</sup>
2516. Portaleari begiratu, erriya zer izango dan.<sup>1</sup>
- 2.517. Portugalete, *vino clarete*, edango neunke basutxu bete.<sup>21</sup>
- 2.518. Pot egiñaz lotsatzeak ez du okerrik zuzenduko.<sup>123</sup>
- 2.519. Potozorri banaz ni, andiago zeorri.<sup>105</sup>
- 2.520. Potxolindegiko Potxolo, puztu zan tokitik ustü.  
*Utsagatik zapuzten dala adierazteko.*<sup>52</sup>
- 2.521. Pozaldian irrintzi, atsekabeen negarti.<sup>189</sup>
- 2.522. Pozoinek osasuna maiz dute sendatzen.<sup>120</sup>
- 2.523. Prallearen dozenea amairu izaten da (artzeko).<sup>4</sup>
- 2.524. Prailearen dozena, amairu.<sup>53</sup>
- 2.525. Prakak ez dabe egiten gizonik.<sup>105</sup>

2.526. Prallia(re)n Abe Maria, mezia(re)n luzegarria.<sup>25</sup>

2.527. Prantzes, ingles, artua ta ogia jan gurez.<sup>5</sup>

2.528. Presatzeak dakarke ondore txar frango.<sup>120</sup>

2.529. Prestamuak aise hartzen, nekez itzultzen.<sup>148</sup>

2.530. Primantzarik hoberena, laneko go-goa.<sup>144</sup>

## R

2.531. Regularki, kala nola izaten baita bizia,  
kala izaten duzu ilzea.

*Saraizuko prediku zahar batean datorren  
esaera.*<sup>195</sup>

## S

2.532. Sabaia lastoz dabena, subaren bildur.<sup>182</sup>

2.533. Sabela ez da elez asetzen.<sup>146</sup>

2.534. Sabelak eta subak, zenbat eman ainbeste eraman.<sup>26</sup>

*Antzeko: Azkue 2781.*

2.535. Sabel beteak atsegin, sabel hutsak gosea.<sup>154</sup>

2.536. Sabel utsa zorri-toki, sabel betea si-maurtegi.<sup>189</sup>

2.537. Sagarra ederrenari, arrosa zentzu hoberenari.<sup>155</sup>

2.538. Sagustan'en lentoiak, Abra'n ka-brak.<sup>105</sup>

2.539. Saiatu ezkerro zerbait da espero.<sup>60</sup>

2.540. Saiatzen danak billatzen du.<sup>72</sup>

2.541. Saingak ez du baitezpada zakurra ontzen.<sup>142</sup>

2.542. Sakristauak abadeari: Koroia bizar-  
giñak egiten dau.<sup>105</sup>

2.543. Sakristauari oilloa ta abadeari oi-  
llanda; noiz joko dabe kanpaiak gure txan-  
da? <sup>105</sup>

2.544. Salvatore, zerurako bidea gure.<sup>136</sup>

2.545. Salda eta ezkontza, berotan.<sup>10</sup>

2.546. San Agustiñek, esku batean aizea ta  
bestean eurie.

*Azkarate, 1965.*<sup>171</sup>

*San Agustin eguna: Abuztua, 28.*

2.547. San Agustin, larrin busti.

*Euria izaten zelako, edo euri negarra. Nere  
amaren esaera; aretxabaletarra.*<sup>197</sup>

*Antzeko: Azkue 61.*

2.548. San Agustin zirrikiton, larrainean  
haize on.

*Baita ere: ...eultzian haize on.*<sup>196</sup>

2.549. San Andres buru-kapela, gure bei  
zarra berez etxe(r)a.<sup>92</sup>

*San Andres eguna: Azaroa, 30.*

2.550. San Andreseko elurra, neguaren  
abiadura.<sup>133</sup>

2.551. San Antonio egun ederra, bai eta  
barrika guzien betetzeko segurtamena.<sup>137</sup>

*Urtarrilaren 17'ko San Antonio, alegia.*

2.552. San Arxen, hotza heldu da xuxen.<sup>136</sup>

2.553. San Bartolome ezkerro, mendi txikiak itzal aundie.

*Azkarate, 1965.*<sup>171</sup>

*San Bartolome eguna: abuztua, 24.*

2.554. San Bartolometatik aurrera elbiak buruz behera.

*Gabiria'tik.*<sup>174</sup>

2.555. San Bartoloz uhar guziak sobera.<sup>137</sup>

2.556. San Benito, primadera, ganaduak larrera.

*Nafarroan, Iturmendin.*<sup>174</sup>

*San Benito eguna: Martxoa, 21.*

2.557. San Blas, doministikuka itto bear naz.<sup>105</sup>

*San Blas eguna: Otsaila, 3.*

2.558. San Denis, erakar hunat urtzo gris.<sup>136</sup>

*San Denis eguna: Urria, 9.*

2.559. San Frantses egunean ereina den ogi bihia pizu ta nasai etortzen.<sup>137</sup>

*San Frantzes edo San Frantzisko eguna: Urria 4.*

2.560. San Gregorio, botilla bete orio.<sup>105</sup>

2.561. San Gregorio, elurra dario; San Josek lagunduko dio.

*Astigarreta.*<sup>11</sup>

*San Gregorio eguna: martxoa, 12; San Jose eguna: martxoa, 19.*



2.562. San Gregoriotan, antxoa bere sasoi onetan.<sup>105</sup>

2.563. San Jeolimo, aragia piper andixakin jateko.<sup>105</sup>

*San Jeronimo eguna: Irailla, 30.*

2.564. San Jil, iratzeak baki trankil.<sup>88</sup>

*Antzekoa: Azkue 72, Inza 1916.*

*San Jil eguna: Irailla, 1.*

2.565. San Joan goizeko intzak, kentzen ditu gaitzak.<sup>189</sup>

2.566. San Jose inguruan, aurretik edo atzetik, konpitak.

*Kazkabarra egingo duala, alegia.<sup>39</sup>*

2.567. San Josek, aurretik edo atzetik, «florek» ekarriko itik.

*Elurra egingo dula. Elgorriaga, N.<sup>197</sup>*

2.568. San Josek ituk, elurrak ituk.

*Arakil, N.<sup>197</sup>*

2.569. San Josek loriik (loreak), aurretik edo atzetik.

*Nafarroan, Saldias aldetik.<sup>174</sup>*

2.570. San Jose loreak, atzetik baño aurretik obeak.<sup>12</sup>

*Antzeko: Inza, 914.*

2.571. San Josen konpittik, atzetik baño aurretik obik.<sup>198</sup>

2.572. San Josepe eguzkitsu, uzta ogitsu.<sup>136</sup>

2.573. San Juan eta barikua, saldu idi zuria eta ekarri artua.

*Arto-urte txarra izango dela. Arantzazu, G.*<sup>197</sup>

2.574. San Juanetan artoak belea tapatzen badu eta sagarrari iru ale ikusten bazaizkio, urte artan naiko arto sagar izango da.<sup>169</sup>

*Antzeko: Inza 1792, 1793.*

2.575. San Juanetan belea tapatu, andik aurrera bidea libre.

*Artoagatik esan oi da.*<sup>70</sup>

*Inza 1792 baiño osoago.*

2.576. San Juanetan sagar penpitik ikusten bada, bada naikoa.<sup>70</sup>

*Antzeko: Inza 1793.*

2.577. San Juan euri gabea, urtea ogi gabea.<sup>45</sup>

2.578. San Juan, nekez etorri ta arin jua.<sup>105</sup>

2.579. San Juan su, bazter guztiak mamitsu.<sup>94</sup>

2580. San Klement pasatu da, ezta balio ogiaren ereitea.<sup>137</sup>

*San Klemente eguna: Azaroa, 23.*

2.581. San Linoz begira hadi marranta edo mafrundi.<sup>135</sup>

*San Lino eguna: Irailla, 23.*

2.582. San Markek uri, gereziak ihaurri.<sup>131</sup>

*San Mark edo San Markos eguna: Apirilla, 25.*

2.583. San Markez uri bizi, bazterra dena gerezi.<sup>130</sup>

*Antzeko: «Zahar hitz, zuhur hitz», 45'gn orri-aldean.*

2.584. San Marko, artoak eraiteko goiz asko; eta a pasau ezkeru, berandu asko.<sup>4</sup>

*Azkue 84 baiño osoago.*

2.585. San Mark hor da, jorraiak gorda!<sup>137</sup>

2.586. San Markos eguna arteraino, txintzarria bete lasto gordetzeko berarentzat, eskatu omen zuen larrabehiak.<sup>174</sup>

2.587. San Markos eguna txarra danean, intxaurrik eta urrik ezta izaten.<sup>191</sup>

2.588. San Markos euri bizi, urte dena gerezi.

*Nafarroako Saldias aldetik.<sup>174</sup>*

2.589. San Martin, elurra gertu din.<sup>53</sup>

*San Martin eguna: Azaroa, 11.*

2.590. San Matias, beia larrera bide. San Gregorio noz da? Aurten e goiz da.

*Astigarreta.<sup>11</sup>*

*San Matias eguna: Otsailla, 24 edo 25; San Gregorio eguna: Martxoa, 12.*

2.591. San Medarrez euria, uztaren laueta-rik bat galdia.<sup>137</sup>

*San Medard eguna: Ekaina, 8.*

2.592. San Mederrek ur ixuri, jendea kexu ezarri.<sup>133</sup>

2.593. San Miel Urriko, liñoa orri biko.

*Azpeitia aldeko Aratzerrekan.*<sup>174</sup>

2.594. San Migel, hemen hel.<sup>129</sup>

*San Migel eguna: Irailla, 29.*

2.595. San Migel maiatzeko, gure soroa laiatzeko.<sup>196</sup>

*San Migelen agerpena: Maiatza, 8.*

2.596. San Mikael, afal ordua goizik hel.<sup>136</sup>

2.597. San Pantaleon, uria ezti eta on.<sup>136</sup>

*San Pantaleon eguna: Uztailla, 27.*

2.598. San Paterno joan-eta, landa zazue patata.<sup>140</sup>

*San Paterno eguna: Apirilla, 12.*

2.599. San Paternotik hara, landa zak lur-sagarra.<sup>135</sup>

2.600. San Pedro Beronan iruzki bada, San Pedroak arte euririk ez.<sup>196</sup>

*San Pedro Verona'ko: Apirilla, 29.*

2.601. San Pedro, gizonak ardaua edateko.<sup>104</sup>

*San Pedro eguna: Ekaina, 29.*

2.602. San Pedrotan belea tapatzen bazun, arto ona.<sup>70</sup>

*Antzeko: Inza 1792.*

2.603. San Pedro kuku, San Martzialez mutu.

*Kukuak kantu hots batian jarduten dabe eta halako batez, egun batetik bestera, mututu. San Pedro egunian, kantuan; eta hurrengo egunian, San Martzialez, mutututa.<sup>110</sup>*

2.604. San Prantziskoren egunean ereiten badezu, andik ateratzen diran aleak astunak (pisuak) izango dira.<sup>194</sup>

*Iturriak Prantzisko deunaren zion; baiña ori erriaren aotik ez datorrelakoan, San Prantziskoren idatzi degu.*

2.605. San Ramon, ume bat nai dot eta egin niri jaramon.<sup>105</sup>

2.606. San Roke, edango leuke, nok emon baleuke.<sup>104</sup>

2.607. Santa Ana, San Joakin'ek pazientzia galdu eragin eutsana.<sup>105</sup>

2.608. Santa Kataliña nox da? Exa garijenzat otz da, beseguteko gox da.<sup>70</sup>

*Santa Katalina, Zemendiaren (Azaroaren) 25'ean da. Exa, Mujika'k dionez, arado de una púa omen da.*

*'Azkue 105 baiño osoago.*

2.609. Santa Kataliñetan, txalupak errosetan.<sup>9</sup>

2.610. Santa Katalin garbia, gaztain-urte aundia.<sup>189</sup>

2.611. Santa Katarina jitean, erroak hartzen lurrean.<sup>131</sup>

2.612. Santa Katarina, larrazkenaren azkena.<sup>134</sup>

2.613. Santa Klara euritsu, handik laster argitsu.<sup>140</sup>

*Santa Klara eguna: abuztua 12.*

2.614. Santa Klarak euria igortzen, bainan zerua klartzen.<sup>135</sup>

2615. Santa Krutzetan, arbi-jorrocketan.<sup>64</sup>

*Santa Krutz Iraillekoa: Illaren 14'ean.*

2.616. Santa Krutzetan erein zazu babarruna, zuretzako baño geiago bilduko dezu ta.<sup>192</sup>

*Santa Krutz maiatzekoa: Illaren 3'an.*

2.617. Santa Kurutze, udazkenaren abiatze.<sup>136</sup>

2.618. San Lukas egunean ibarrean egiten duen ebiya, mendi-tontorrean elurra izaten da.<sup>194</sup>

*San Lukas eguna: Urria, 18.*

2.619. Santa Luzia euneko, olluaren arraluzatzen (o)men da euna.<sup>198</sup>

*Santa Luzia eguna: Abendua, 13. Egunik laburrena bera omen da urtean. Orregatik, luzatzen itz ori alperrik dago, bearbada, esaera ontan.*

2.620. Santa Luzia, ollaxkun arra luzia.

*Baita ere: Santa Luzia, olluan arra.*<sup>198</sup>

2.621. Santa Luzietan galtzen dan astoa, San Blasetan erosten da gazteagoa.<sup>112</sup>

*San Blas eguna: Otsailla, 3.*

2.622. Santa Madalena, gu hurbil Jainkoa gana.<sup>136</sup>

*Santa Madalena eguna: Uztailla, 22.*

2.623. Santa Madalenako euriak intzaur gaztenak usteltzen.<sup>137</sup>

2.624. Santa Madalenaz intzaurra beterik eta ogia barnean sarturik.<sup>137</sup>

2.625. Santa Madalen eguna horeatue (hodeitua) baldin bada, gaztaina-hagaik egin beharrik ez; oskarbi bada, berriz, gaztaina hagar(a).

*Gabiri aldetik.*<sup>174</sup>

2.626. Santander, aberatsak ondo ta po-break lander.<sup>105</sup>

2.627. Santiago, gizonak baiño andrak ordiago.<sup>104</sup>

2.628. Santio-Santanak euritsu, urte ura artotsu.<sup>6</sup>

*Santiago eguna: Uztaila, 25. Santa Ana, biaramonean.*

2.629. Santiyotako eul-asiak artoak zuzentzen ditu.

*Ezkio.*<sup>11</sup>

2.630. San Tomas, egunik laburrena.<sup>70</sup>

*Santo Tomas eguna: Abendua, 21.*

2.631. Santoña Ameriketan, zimarroï ta atunetan.

*Santoña Ameriketa esan oi deutse arraintzaleak Santoña'ri, bearbada urrin dagolako eta garai batean bela eta erramuz joan ei ziralako.*<sup>104</sup>

2.632. Santo Tomaseko feriyak, etxe askotan komeriyak.

*Urteko alogera Donosti'ra eraman bearrak baserri askotan komeriyak ateratzen ditu.*<sup>47</sup>

2.633. Santu bat buluzi, beste bat jazteko.<sup>195</sup>

2.634. Santu guzietan, dominu santuru tururu.<sup>105</sup>

*Santu guztien eguna: Azaroa, 1.*

2.635. Santu guzietan, elurra mendietan.<sup>64</sup>

2.636. Santu guztien bezperetan dabillan aizea, urte guztian ere, lautatik irutan beintzat, ura bera ibilliko da.<sup>194</sup>



2.637. Santu ogijalea, gertu baiño urruti obea.<sup>52</sup>

2.638. Santutasun eta diru, amarretik iru.<sup>16</sup>

2.639. San Xerbatxok iguzki, uzta ere hobeki.<sup>133</sup>

*San Xerbatxo edo San Jerbasio eguna: Ekaina 19.*

2.640. San Xipirine kari, adios ats-askari.<sup>135</sup>

*San Xipirine edo San Zipriano eguna: Iraila, 16.*

2.641. Sarea dena xorien, dirua gizonen.<sup>152</sup>

2.642. Sartu-urtenak egin, an zarealakuan emen.<sup>105</sup>

2.643. Sasiak be begiak eta belarriak daukez.<sup>66</sup>

2.644. Sasiak belarriak sorail, onek jaso aizeak darabil.<sup>189</sup>

2.645. Sasiak entzuna, bitik bat gezurra.<sup>189</sup>

2.646. Sasikuak ere sasin bizi nai izaten du.<sup>11</sup>

*Antzeko: Inza: 788, 844, 1531.*

2.647. Sasoian sasoiko, San Antonez ospelak belarritako.<sup>105</sup>

*San Anton eguna: Ilbeltza, 17.*

- 2.648. Sasoi dan arte zentzu gutxi; zentzua irixtean sasoiak utzi.<sup>52</sup>
- 2.649. Segura, iltzen dana zerura.<sup>54</sup>
- 2.650. Seguru denak be(re) igualik ez.<sup>198</sup>
- 2.651. Semea etena ta ase, alaba jantzia baiña gosea.<sup>189</sup>  
*Antzeko: Azkue 1466.*
- 2.652. Semea laudatzen duenak, bere buruaz espantu; aita laidostatzen duenak, bere burua histen du.<sup>152</sup>
- 2.653. Semeen etorkizuna amaren eskue-tan dago.<sup>148</sup>
- 2.654. Senar-emazteen artean ez sartu atzik; egon bakean.<sup>18</sup>
- 2.655. Senar-emazteen arteko aharretan Jainkoa juje bakar.<sup>146</sup>
- 2.656. Senarra txingarra, emaztea ezpala; beti etxean sua piztua.<sup>201</sup>
- 2.657. Senarrik eztuena maluros, eta duena ez beti uros.<sup>185</sup>
- 2.658. Sendo atxiki badituztu begiak, heterat ez hurbil erriak.<sup>146</sup>
- 2.659. Sendo eta indartsuena makurtzen du oiñazeak.<sup>64</sup>
- 2.660. Serorentzako buruak eta abadien-tzako egatak.<sup>105</sup>

2.661. Sierrako haizia, elurre atariraino.  
*Erronkariko Izaban.*<sup>174</sup>

2.662. Sikatu plana, *querida* Santa Ana; sikatu papel, *querido* San Miguel.<sup>105</sup>

2.663. Soberakina beti kalte.<sup>137</sup>

2.664. Solasak labur eta finak.<sup>117</sup>

2.665. Solas goxo batek ezitzen eta ematzen du bihotz gogorrena.<sup>153</sup>

2.666. Soldadoa, gobernarien ihiziko xakurra.<sup>144</sup>

2.667. Soroak zor du larrea.

*M. Lekuona'renetik artua.*<sup>174</sup>

2.668. Soro txikia bazter huts, gizon txikia tripa uts.<sup>58</sup>

2.669. Sortzea, hiltzen hastea.<sup>148</sup>

2.670. Sortzearen eta hiltzearen kontra ez da erremediorik, bien artekoa ongi baliatzea baizik.<sup>142</sup>

2.671. Sortzetik du azeriak maltzurkeria.<sup>155</sup>

2.672. Sosa moltsan bakarrik unatzen.<sup>146</sup>

2.673. Sos batek bestea erakarki.<sup>147</sup>

2.674. Sozio, andrearekin bakarrik, ona baldin bada.<sup>22</sup>

2.675. Sua! Gabonetan txapan eta San Juanetan plazan.<sup>174</sup>

2.676. Suak pizten du ikatza, garrak egurra, lipiztakeri aharrak auzia.<sup>156</sup>

2.677. Suak sua dakarki, sugeak sugakuma noski.<sup>189</sup>

2.678. Suari kea, egiari mixterioa.<sup>139</sup>

2.679. Sudurrik ez daukanari, mokoak (muskiriñak).<sup>190</sup>

2.680. Sugeak, zapoak, otsoak eta zaldiak itxasoan? Amaika lantzoi badabil Ondarru aldean.<sup>105</sup>

2.681. Sui joaten dana ezkontzan, bizi guzia morrontzan.<sup>16</sup>

2.682. Suiña nausi etxian, alabaren dotia aidian.<sup>105</sup>

2.683. Sukaldean emakume bat gutxiegi ta bi geiegi.<sup>39</sup>

2.684. Sukalde batean bi emakume eta zaku batean iru botilla berdintsuak dira: ez dira ixilik egongo.<sup>178</sup>

2.685. Sukalde beltzean gazta ona.<sup>53</sup>

2.686. Surra ebagi ezkerro, odola abora.<sup>15</sup>

*Antzeko: Oihenart 414, Azkue 1104.*

2.687. Surtan jarrita probatutzen da nola-koa dan eltzea.<sup>70</sup>

*Xenpelarren bertso batek ere bukaera berdiña du. Ikus: Auspoa, 88.89-90, 264 orrialdean.*

2.688. Sutan eman dautzuten etxerat hur-  
bil zaite berotzeko.<sup>142</sup>

## T

2.689. Tabakoaren mesederik aundiena, kalterik ez egitea.<sup>54</sup>

2.690. Talaierurik onena, andre alarguna: beti itxasoari begira.<sup>105</sup>

2.691. Taloa jateko koipegarririk gozoena, taloa bera exkax.<sup>52</sup>

2.692. Talo beroak gazta du jaki. Ori edozeiñek badaki.<sup>64</sup>

2.693. Talo onak jan nai badituzu, astia artu erretzeko.<sup>64</sup>

2.694. Tamaña Billabona'n omen zan.

*Gauza guztiak beren neurria badutela, baiñan asmatzen ez dala errez.*<sup>34</sup>

2.695. Tantaka-tantaka upela bete.<sup>201</sup>

2.696. Tantoka-tantoka, arria zulatu.<sup>39</sup>

2.697. Tantza onak loro biguna eskatzen dau.<sup>104</sup>

*Tantza: zurda, erderazko pita: loro: alambre ori bat, tantza baiño gogorragoa.*

2.698. Teilla autsiak ordezko berria eskatzen du.<sup>123</sup>

2.699. Teillatuan jario ta sukaldean maxio.<sup>123</sup>

2.700. Teillatu bizkarra, ura botatzen bitarra.<sup>189</sup>

2.701. Tenoretsua, denbora-irabazle.<sup>144</sup>

2.702. Terralarentzat kapia, kamaña azpia.<sup>105</sup>

2.703. Titili eta tatala, kantu guzien amona.<sup>64</sup>

2.704. Titulua izengoiti, izengoitia titulu.<sup>151</sup>

2.705. Tokatzen jakok astoari mantea.<sup>70</sup>

*Antzeko: Azkue 622.*

2.706. Tokian tokiko gisa.<sup>142</sup>

2.707. Toki guztitan izaten dira santu artuk.

*Andoain.*<sup>11</sup>

2.708. Tomak zer dau señalet? Berak esan eta berak barre.<sup>25</sup>

2.709. Tontoa izateko, ezta ezer ikasi bearrrik.<sup>12</sup>

2.710. Topiña gelatzean, da esnea per-tzean, otordua dator ostean.<sup>189</sup>

2.711. Tortxo bat haize-pean, horra bizia munduan.<sup>139</sup>

2.712. Tosta gaiñean popako txintxurrak urten arte bear dau erramulariak.<sup>105</sup>

2.713. To zarra ta ekatzen berria.<sup>22</sup>

2.714. Tresna, gure indarren luzagarri.<sup>145</sup>

2.715. Tresna izan bedi gizonaren laguna eta ez etsaia.<sup>148</sup>

2.716. Tripak egitean gur-gur, bartko apa-ria agur.<sup>9</sup>

2.717. Tripak mugierazten ditu anakak.<sup>9</sup>

2.718. Tripa luzeak zazpi izpiritu.<sup>116</sup>

2.719. Tripa utsak, entendimentu argia.<sup>9</sup>

2.720. Tripa hutsari ez da emaiten kontsei-lu.<sup>120</sup>

2.721. Trumoiaren soñua baiño urrutirago joaten dek fama txarra.<sup>64</sup>

2.722. Trumoi-ira ta eriñotzak, baserrian lez itxasoan trumoiari lotsa.<sup>104</sup>

2.723. Ttiki guztia polita; ta polita, utsaren urrengoa!<sup>123</sup>

2.724. Ttipiak, handien zimino.<sup>139</sup>

2.725. Ttipian ikusia, betikotz ikasia.<sup>128</sup>



2.726. Tu etxatia zelian gora, begitartera derora.<sup>122</sup>

2.727. Turmoiak aditzean, Santa Barbara.<sup>9</sup>

2.728. Tutulu-mutulu mutilla, badatorkia maite-miña.<sup>189</sup>

2.729. Txakur haundiari okela; txakur txikiari makilla.

*Aberatsari harrera ona, pobreari ez. Oñati, G.*<sup>197</sup>

2.730. Txakur gosea beti erne.<sup>64</sup>

2.731. Txakurra katean ez dago pakean.<sup>64</sup>

2.732. Txakurrak zanga badegit, ordean ozkarik ez begit.<sup>14</sup>

2.733. Txakurra librean, usoa aidean.<sup>64</sup>

2.734. Txakurraren sudurra eta emakumearen ipurdia beti otzak.<sup>64</sup>

2.735. Txakurrari egindako ortzkada, txakurraren illeaz sendatzen da.<sup>9</sup>

2.736. Txakurrari tiratzeko sosik ezta.<sup>12</sup>

2.737. Txakur zarra ez da engañakorra.<sup>7</sup>

2.738. Txakur zaunkarijak aginka gitxi.<sup>25</sup>

*Antzeko: Inza 183, 917, 2401.*

2.739. Txakur zaunkariak nekez elduko dizu.<sup>12</sup>

2.740. Txalupa-jaube izateak ez dau beteten kaskarrik.<sup>105</sup>

2.741. Txalupan nagusi asko, arrain gitxi ta zorra asko.<sup>104</sup>

*Antzeko: Azkue 262.*

2.742. Txalupatxu bat, txalupatxu bi, gure andreak begi bi.<sup>105</sup>

2.743. Txalupa zarragaz sutako arraiñik be ez.<sup>105</sup>

2.744. Txalupa zarrak ur egarri.<sup>105</sup>

2.745. Txalupa zarrak, zorrak.<sup>105</sup>

2.746. Txalupa zarrean baiño errezago igerian mollatik mollara.<sup>105</sup>

2.747. Txamar, ezpañen kazkanabar.

*Ultzama'n entzuna. «Txamar» San Markos da, eta aunitz aldiz San Markos egunean ere euria eta kazkabarra egiten baitu. Hortik datorchio esaera, San Markos ezpañan kazkabarra adierazten duela.<sup>89</sup>*

2.748. Txamarra tintil, atorra zirpil.<sup>189</sup>

2.749. Txantxangorria txantxate, birigarroa alkate.<sup>12</sup>

2.750. Txapelak eztau buru utsik betetzen.

*Onek esan gura dausku, txapel andi ederra buruban eruan arren, gixona ixan datekela garun gutxikua.<sup>179</sup>*

2.751. Txapel batekin bi buru estaltzen dituena.<sup>195</sup>

*Bi arpegi dituena.*

2.752. Txar guztija kendu ezkerro, danok onak.<sup>15</sup>

2.753. Txar nai duanak, kalte egin dezake.  
*Aia'ko Arbestain-txiki'ko etxekoandreak esana.*<sup>123</sup>

2.754. Txarraren ondotik denbora ona.<sup>185</sup>

2.755. Txarrari barre ta onari arre, astuari arre.<sup>15</sup>

2.756. Txarrik ez da zerbait onik ez dunik.<sup>37</sup>

*Antzekoa: J. Elissalde: Zuhur-hitz eta Erran-zahar, Gure Herria, 1938.*

2.757. Txarrik pasa gabe, onik ez da etortzen.<sup>38</sup>

2.758. Txar sortu ta txar azi, txar izango da beti.<sup>7</sup>

2.759. Txartzat utzitakoa izan leike onena.<sup>64</sup>

2.760. Txatxua beti txaxu.<sup>52</sup>

2.761. Tximatsuentzat orrazia ez-ezik, jaboia ere bai.<sup>123</sup>

2.762. Txikien maitien, familiyan.<sup>9</sup>

2.763. Txikien naaste, aundien irabazle.<sup>189</sup>

- 2.764. Txikitan buru ariña, aundi egin da berdiña.<sup>16</sup>
- 2.765. Txil atara arte ibili.<sup>105</sup>
- 2.766. Tximist haundi eta euri guti.  
*Erderazko: Mucho ruido y pocas nueces.*<sup>195</sup>
- 2.767. Tximua sedaz jantzia, tximua da.<sup>14</sup>
- 2.768. Txirlarik karuenak, gonadunak.<sup>105</sup>
- 2.769. Txopan eta popan, orixotarrak arraunetan ta ondarrutarrak erramutan.<sup>104</sup>
- 2.770. Txoria ariña da, emakumiaren gogua ariñago.<sup>181</sup>
- 2.771. Txoria, gaztetan ez badek egiten kabia, zartzaro gaiztokoa izango dek ire bizia.<sup>201</sup>
- 2.772. Txoriak lumatik zer dan ezagun dik.<sup>9</sup>
- 2.773. Txori bakoitzak bere kabia, bestee-na baiño obia.<sup>16</sup>
- 2.774. Txori bakoitzak kabia ezberdin.<sup>189</sup>
- 2.775. Txori bakotxa bere adarrera.<sup>92</sup>
- 2.776. Txori bat obe eskuan, aidean bi baiño.<sup>178</sup>
- 2.777. Txori buru, uts buru.<sup>9</sup>
- 2.778. Txori danak eguak, batzuk obak kantuak.<sup>18</sup>

2.779. Txori gosea kantari, neska ase  
dantzari.

*Astigarreta.*<sup>11</sup>

2.780. Txori guztiak mokodunak.

*Azpeiti.*<sup>11</sup>

2.781. Txori-izugarria, soro-galgarria.<sup>53</sup>

2.782. Txori-lepotik, txori-burua beti.<sup>52</sup>

2.783. Txoroak bere burua beti jauntzat.<sup>52</sup>

2.784. Txoroak oker edozein aier.<sup>14</sup>

*Aier, Azkue'ren iztegian: propensión, incli-  
nación.*

2.785. Txoroari ez dio iñork eramaten,  
txorakeriak egiten.<sup>52</sup>

2.786. Txoroen itz, belarria itx.<sup>7</sup>

2.787. Txorrotxiorik entzun nai ez duna,  
bakuna.<sup>123</sup>

2.788. Txurрут bat, txurрут bi; konturatze-  
ke zilipurdi.<sup>189</sup>

2.789. Txurру txurру eurixe, euki, Jauna,  
miserikordixe.<sup>104</sup>

## U

2.790. Uhainen hasarrea arrestatzen duenak badaki nola geldi-araz gaixtaginen azpilanak.<sup>148</sup>

2.791. Udaberriko legortea, urte guztiko gosetea.<sup>81</sup>

2.792. Udan negurako, neguban udarako, gogorik ez lanerako.<sup>181</sup>

2.793. Udatiarrak ez larru eta ez kolpa.<sup>136</sup>

2.794. Udazkenean uso-pasea izateko, aurrena txoriak pasa bear.<sup>39</sup>

2.795. Udazkeneko zuzia, ase egitteko gauzia.

*Udazkeneko zuzak, itxuria; ez tie udaberrikuak bezin fiñak.*<sup>110</sup>

2.796. Ugariari, dirua ta osasuna kantari.<sup>105</sup>

2.797. Ugarixuak kantari, argia indarra emoten egunari.<sup>105</sup>

- 2.798. Ugaz ama, deabru ama.<sup>9</sup>
- 2.799. Ugelik ez dau bear mariñelak, lapak jateko eguna dabenean.<sup>105</sup>
- 2.800. Ugolde aundienak ere itxasoan baretzen dira.<sup>123</sup>
- 2.801. Ujola etorran eta bildurrez itxasoan kabiduko ete zan.<sup>105</sup>
- 2.802. Uka asko Manuk bestiei guzurka, baiña lagunak beti aurka.<sup>105</sup>
- 2.803. Ukabilka egiñarren itxasoari, itxasoak dar-dar mariñelari.<sup>105</sup>
- 2.804. Ukalondoaz neurtzen iñoren begiko zakarrak; geureak neurtzean, oztopo dagigu sudurrak.<sup>189</sup>
- 2.805. Ukondua luzatu ta mozkorra artu, Patxi gurea tabernan ezin sartu.<sup>105</sup>
- 2.806. Ulertu egizu lenengo eta itz egizu gero.<sup>109</sup>
- 2.807. Ulitxek lehoina ero-arazten.<sup>142</sup>
- 2.808. Umea geldirik ez eduki; besterik ez bada, soro barreneko zokorra gora igotzen ibili.<sup>22</sup>
- 2.809. Umeak dauzkan ama, beti lertzen.<sup>118</sup>
- 2.810. Umeak zamarik eztabe jasoten, baña entzunikua bai.<sup>15</sup>

- 2.811. Umeak zeira (merkatura) badoaz, saltzalleak ongi.<sup>201</sup>
- 2.812. Umeak, zer ikusi axe ikasi.<sup>13</sup>  
*Antzeko: Azkue, 2895.*
- 2.813. Ume ao-bigunak, ama biren bularrak.<sup>189</sup>
- 2.814. Ume askok, au asko.<sup>105</sup>
- 2.815. Ume asko ta lo gitxi, andren kurutzzi.<sup>105</sup>
- 2.816. Ume, egin zazu lan, nai baduzu jan.<sup>9</sup>
- 2.817. Umetan gizon, gizonetan ume.<sup>74</sup>
- 2.818. Ume txikiek lan txikie; ume aundiek lan aundie.  
*Ormaiztegi.<sup>11</sup>*
- 2.819. Umia egin zon, kaka egin zon.  
*Umia dagon lekuan, kaka be bai.<sup>110</sup>*
- 2.820. Umia-Sainduruz, fruitu guziak sartuak.<sup>137</sup>
- 2.821. Umore onak eleak goxatzen ditu.<sup>148</sup>
- 2.822. Untzi ttipietan gantzu onak.<sup>146</sup>
- 2.823. Untzi hutsak ez du gaindi egiten.<sup>167</sup>
- 2.824. Ura bada geldi, artatik begira adi.<sup>7</sup>
- 2.825. Ura joan da gero potzugiñan.  
*Gauza egokija zanian biarreko gauzea ga-*



*rai txarrean egin gura daunari esaten yako ori.*<sup>182</sup>

*Antzeko: Inza 1651, 1830.*

2.826. Ura joan ta gero, zertarako presa?<sup>64</sup>

*Antzeko: Inza 1651, 1830.*

2.827. Urak basaz, aingirak kakaz.<sup>103</sup>

2.828. Urak bere bideak bear ditu.<sup>64</sup>

2.829. Urak dakarrena, urak darama; lur-  
rak eman duena, lurrean gelditzen da.<sup>64</sup>

2.830. Urak eta egiak beti beren bidea segi-  
tzen.<sup>114</sup>

2.831. Urak zirrimarran, errekako basak  
dantzan.<sup>105</sup>

2.832. Ur andiko arraiña zalakuan, bate-  
lean be mariatu sartuaz batian.<sup>105</sup>

2.833. Ur andiko txirlak, beti be leo-  
rrean.<sup>105</sup>

2.834. Ura ta sua, auzorako.<sup>3</sup>

2.835. Ura zan gizona, ura! Ta itxasuan  
galdu eban gizon-itxura.<sup>105</sup>

2.836. Urdai-azpia osorik, etxean ez da go-  
serik.<sup>189</sup>

2.837. Urak, suek eta gorputzek, emoten  
jaken beste irusten dabe.<sup>13</sup>

*Antzeko: Azkue, 2781.*

2.838. Ur eman ta uts egin, orixe ez dek atsegin.<sup>7</sup>

2.839. Uretatik surtara salto egin du.

*Zerbait gaizki ateratzean esan oi da.*<sup>52</sup>

2.840. Ur gezako mariñelak, suestan ordeztapela.<sup>104</sup>

2.841. Uriaren ondotik heldu ateria.<sup>120</sup>

2.842. Urgunari etzaio faltako laguntari.

*Erderaz: No falta un roto para un descosido.*<sup>14</sup>

2.843. Uri guti urtarrilean, ogia eder uztaillean.<sup>131</sup>

2.844. Urik ezean alperrik errota, ikusiaz gero edozein profeta.<sup>189</sup>

2.845. Urik ez itxasoan, ala esan eben Laruskain'en, eta sinistu ei eben angoak. Urarenak ordeztardauzkoak ziran euren tragoak.<sup>105</sup>

2.846. Urik karuena, uriol-ura: berez etorri eta dana darua.<sup>105</sup>

*Uriol: ujol, ugölde.*

2.847. Ur illetan, txalupak andiago errekarren bidean.<sup>105</sup>

2.848. Ur joanak ez du errotarik erabiltzen.<sup>52</sup>

2.849. Ur irakinean eztu uliak pausatzen.<sup>11</sup>

- 2.850. Urkoaren maitasuna, erriaren osasuna.<sup>53</sup>
- 2.851. Ur meietan galtzen dana, ur andietan itto.<sup>105</sup>
- 2.852. Urraburu, ori be jausi da mollaburun.<sup>105</sup>
- 2.853. Urra, urra, urra kanta, ta auzokoari apurra laga.<sup>105</sup>
- 2.854. Urrea esan ta urria eman.<sup>7</sup>  
*Antzeko: Azkue 1821.*
- 2.855. Urrea ez da Jaungoikoa; baiña beti dago urrean eta urrean be bai.<sup>105</sup>
- 2.856. Urrea lanaren lorea da.<sup>176</sup>
- 2.857. Urrezko giltzak ate guziak idekitzen.<sup>146</sup>
- 2.858. Urrian artoak burutzen eta hainarak buztantzen.<sup>132</sup>
- 2.859. Urrian asitako ilberrian urritza moztu.<sup>64</sup>
- 2.860. Urrian ihiztaria, goizean goiz atzarria.<sup>135</sup>
- 2.861. Urriaren ilberrin, urtero elurra Aizkorri'n.<sup>32</sup>
- 2.862. Urria, usoen galgarria.<sup>131</sup>
- 2.863. Urri, baña ongi.<sup>201</sup>

2.864. Urri erdi-euri, laborariak irri.<sup>133</sup>

2.865. Urrietan arno berri dupetan limurtzen ari.<sup>135</sup>

2.866. Urriko ilberrian elurra ageri bada, zazpi ilberritan ikusiko dezu.<sup>12</sup>

*Azkue 1223 ta 1882 baiño osoago.*

2.867. Urriko San Denisetan aizea ezkontzen gauerditan.<sup>133</sup>

*San Denis edo San Dionisio eguna: Urria, 9.*

2.868. Urriko tenporetan zer haize, neguzian halaxe.<sup>196</sup>

2.869. Urrilla urri, illunabarretan igarri.<sup>124</sup>

2.870. Urrian bota ongarri, araberan uzta berri.<sup>130</sup>

2.871. Urrikitz, gure burua jujatzen dugu.<sup>151</sup>

2.872. Urrin doana, aldatzen da lekuz, baña ez buruz.<sup>92</sup>

2.873. Urriñeko intxaurrak ots andiak dabez; bertara jua eta billatu baperez.<sup>19</sup>

*Antzeko: Azkue, 2853; ta Azkue 2845 baiño osoago.*

2.874. Urrin huna bada nonbaitik hedatu, Biarnesak hara beriala zilatu.<sup>113</sup>

2.875. Urruneko senidia baño, auzo ona oba da.<sup>14</sup>

2.876. Urrun nahi duenak heldu, ez du behar zaldia lehertu.<sup>142</sup>

2.877. Urrun nai ta be, Jainkoa beti urrean.<sup>105</sup>

2.878. Urrutiko intxaurrak amar; bertan lau; aietatik bi utsak.<sup>64</sup>

2.879. Urrutiko intxaurrak asko ta andiak.<sup>18</sup>

2.880. Urrutiko kanpaiak otsa piñe.

*Itxaso.*<sup>11</sup>

2.881. Urrutiko kanpaiak, soñu aundiak.<sup>9</sup>

2.882. Urrutiko notiziak, gezur izugarriak.<sup>42</sup>

2.883. Urrutiko senideakin asarre obe, auzokoakin baiño.<sup>70</sup>

2.884. Urrutirago ta soriago oillar kukurukua.<sup>189</sup>

2.885. Ur-sugeak ikutu, aragia zolitu.<sup>105</sup>

2.886. Urta, basatzetan sartuta lapurka.<sup>105</sup>

2.887. Urtarrila bero, zinkurinak gero.<sup>130</sup>

2.888. Urtarrila euririk gabe, erreberri zazu zure selaurua.<sup>137</sup>

2.889. Urtarrila idorra denean, laborarien molts'ondo jori.<sup>137</sup>

2.890. Urtarrilako elur, burdinazko elur.<sup>135</sup>

- 2.891. Urtarrila urik gabe, urtea ogi-jabe.<sup>133</sup>
- 2.892. Urtarrila uritsu, urtea dirutsu.<sup>130</sup>
- 2.893. Urtarrilean pinpirina ikusi baino, otsoa ardi jaten hik ikusi nahiago.<sup>129</sup>
- 2.894. Urta ta urraburua dabilzan tokian, murtxilloirik ez inguruan.<sup>105</sup>
- 2.895. Urtats, urteko lehen urrats; bururatu nahi bezala dugun has.<sup>132</sup>
- 2.896. Urteak badoatza eta bakotxak bageramatza.<sup>135</sup>
- 2.897. Urteak badoatzi, eta gu heiekin.<sup>144</sup>
- 2.898. Urteak etorri urteak joan, urak pirlatzen itxasoan.<sup>189</sup>
- 2.899. Urteak zintzurra luze.<sup>128</sup>
- 2.900. Urte asko izatea ta asko bizi izana ez da berdin.<sup>123</sup>
- 2.901. Urte askoren buruan, burua soil.<sup>123</sup>
- 2.902. Urte askotan nai badek bizi, oillokin oera, txoriekin jaiki.<sup>189</sup>
- 2.903. Urte batek ikusi gaitu sortzen; zoi-nek ikusiko hiltzen?<sup>136</sup>
- 2.904. Urte joanak ongi daude.<sup>9</sup>
- 2.905. Urte legorreko uzta, galbaetzean utsa.<sup>189</sup>

2.906. Urte txarra igerika sartzen da.<sup>137</sup>

2.907. Urten bakio ekatxari, sendakike eguzkiari.

*Au da: Ekatxa danian makurtzen baaz, eguzkija danian sendotuko az.*<sup>92</sup>

2.908. Urte zarra bukatzean, sagu-zaarra burduntzian.<sup>189</sup>

2.909. Urtez astunduriko oiñak, ez dabizki txori ariñak.<sup>189</sup>

2.910. Urtiarekila, igaran datiano, kexa ez adila.<sup>122</sup>

2.911. Ur-ttantta askok arria ere zula dezakete.<sup>123</sup>

2.912. Usaiñik onena, artzen ez dana.<sup>105</sup>

*Antzeko: Azkue 2856.*

2.913. Usoak bere tegian kurruka, andik kanpora izuka.<sup>189</sup>

2.914. Uste etzuan zakurrak zaunka egin dio.<sup>9</sup>

2.915. Uste ezten tokian kausitzen da apo dauztekaria.<sup>153</sup>

2.916. Usterik gutxienean, gurutzea atal-aurrean.<sup>9</sup>

2.917. Ustez eziña zana, bultza ta bultza egin da dana.<sup>123</sup>

- 2.918. Usuil berria dagola-ta, zarra ez jaurti.<sup>201</sup>
- 2.919. Ut ortik, arraiñak mariñelari.<sup>105</sup>
- 2.920. Utsa ezta pesta.<sup>54</sup>
- 2.921. Utsak bi beldur ditu: beria ta bestearena.<sup>198</sup>
- 2.922. Uts ala bete, erramuak beti bear estrapu eta tolete.<sup>105</sup>
- 2.923. Utsegiñaz, utsegiteak zuzentzen dira.<sup>201</sup>
- 2.924. Utz aizea teilen gainetik doala kurri!<sup>146</sup>
- 2.925. Utzi zak ona obeagatik.<sup>201</sup>
- 2.926. Uzkarra ezkontzen asi ta kakagaz parra.<sup>105</sup>
- 2.927. Uzkarrek bota zitun uzkartiak eta puzkarrek puzkartiak; baiña atsa bardiña zan.<sup>105</sup>
- 2.928. Uzta, ereintzaren saria.<sup>138</sup>
- 2.929. Uztailari ohore, balinbadu ogi urre.<sup>131</sup>
- 2.930. Uztailean, itaia eskuban.<sup>193</sup>
- 2.931. Uztailean ihurtzuri, mahats nasai guri.<sup>140</sup>
- 2.932. Uztaileko aro onak manatzen dupaginak.<sup>133</sup>



2.933. Uztaileko arrabotsak laket ditu mahatsak.<sup>135</sup>

2.934. Uztaileko burrunbunbun, ez beti goxo bainan hun.<sup>131</sup>

2.935. Uztaileko iguzkiak ondoko arnoari indar.<sup>134</sup>

2.936. Uztail ilargi betez uztak behar du ontua; orduan ontu eskasez, segur daite miseria.<sup>130</sup>

## X

2.937. Xahalaren larrutzailearen bete da atxikitzailea.<sup>153</sup>

2.938. Xaharrak kapa, lurak horma jauntzi.<sup>133</sup>

2.939. Xaguak erregearen salan ere paseatu egiten du.

*Zeraindarrak esan oi dute, izengoitiz xaguak baitira.*<sup>54</sup>

2.940. Xapata zenak itsaso guzia iragan zuen etxeko putzuan itotzeko.<sup>146</sup>

2.941. Xapelak usu buru-eskasa gordetzen.<sup>144</sup>

2.942. Xapel ederrak buru hutsa estal dezake.<sup>155</sup>

2.943. Xerriari emana ez da galdua.<sup>155</sup>

2.944. Xerri buztanez esteka onik ez.<sup>162</sup>

2.945. Xerri-mihirik ez eros erbia hartu gabe.<sup>155</sup>

2.946. Xertorik hoberena, Martxoan eiten dena.<sup>131</sup>

2.947. Ximaorra naasago, lurriña kiratsa-  
go.<sup>189</sup>

2.948. Ximinoa arbolan gorago, haren  
ipurdia ageriago.<sup>146</sup>

2.949. Ximistak zelia dialarik urratzen,  
Biarnesa kanpuan ihurk ez leherkatzen.<sup>113</sup>

2.950. Xinaurrien gainean jartzen bezare,  
ez harri xistatzen bazaituzte.<sup>153</sup>

2.951. Xinaurrientzat ihintza uholde.<sup>151</sup>

2.952. Xingilika josta ditake, baina ez  
urrun joan.<sup>146</sup>

2.953. Xipa galdu behar izokinaren hartze-  
ko.<sup>153</sup>

2.954. Xipirine jin orduko, segur uda aka-  
bo.<sup>140</sup>

2.955. Xirulatik jiten dena, atabalerat  
itzultzen.<sup>142</sup>

2.956. Xoria ezagun da lumatik, idia ada-  
rretik, gizona eletik.<sup>116</sup>

*Antzeko: Azkue 620.*

2.957. Xoria lur-arras, uria laster has.<sup>131</sup>

2.958. Xori zaharrak ez dira bihi-korbu-  
tzez atxemaiten.<sup>155</sup>

2.959. Xoxoak sasia kirkirri, eiztaria  
urrean dirudi.<sup>189</sup>

## Z

- 2.960. Zaarra, bearrerako txarra.<sup>9</sup>
- 2.961. Zaharrago eta uzkurrago.<sup>153</sup>
- 2.962. Zaarra, izen txarra.<sup>39</sup>
- 2.963. Zaarraren umea, gazterik zurtz.<sup>52</sup>
- 2.964. Zaharrek pausuan emaiten dute zoriona; zorigaitzez, nahiago dute ezin-egona.<sup>148</sup>
- 2.965. Zaarren itzak, zentzudun itzak.<sup>109</sup>
- 2.966. Zahartzeak deus onik eztu.<sup>117</sup>
- 2.967. Zaartzean, zakua atzean, eta Jaungoikoak lagun dekizula atean sartzean.<sup>9</sup>
- 2.968. Zabuaren aldera erortzen da arbolak.<sup>189</sup>
- 2.969. Zafrana, oinkatuago eta loretuago.<sup>142</sup>
- 2.970. Zahian begiratu eta irinean eralgi.<sup>195</sup>
- 2.971. Zai dagoenarentzat, ordu luzeak.<sup>64</sup>

2.972. Zaietan begiratu ta urunetan eralgi.<sup>25</sup>

*Antzeko: Azkue, 2866, 2867; Inza, 93, 719, 852, 1083.*

2.973. Zaietan txintxo, iriñetan zoro, oker egiña ikusiko gero.<sup>189</sup>1

*Bestetan baiño osoago.*

2.974. Zakatza ori ta begiak illun, arrain freskua ez deitu edonun.<sup>105</sup>

2.975. Zakatzean dago arraiñaren izatea.<sup>105</sup>

2.976. Zakua betatxuaren alde.<sup>128</sup>

2.977. Zakua esteka arras bete gabe.<sup>146</sup>

2.978. Zakuaren atxikitzaile, ohoina bezain ebasle.<sup>154</sup>

2.979. Zakur aulak, arkakoso asko.<sup>10</sup>

*Antzeko: Inza: 1850.*

2.980. Zakur bortitza ezta ukaldika lausengatzen.<sup>114</sup>

2.981. Zakur gaixtoari soka labur.<sup>146</sup>

2.982. Zakurra eta arria, mandoa makillarekin antzera.<sup>53</sup>

2.983. Zakurrak, bere atarian indarra.<sup>10</sup>

2.984. Zakurrak elgarrekin gataskan ari dirrelarik, otsoak ardia jaten.<sup>155</sup>

2.985. Zakurrari ezurrak eta emazteari gezurrak.<sup>52</sup>

- 2.986. Zakurrari hezurra laket karruskatze-ko zerbait dueno.<sup>153</sup>
- 2.987. Zakurrek saingatzen diotenak ez dira oro ohoinak.<sup>159</sup>
- 2.988. Zakurrik onena, etxekoa; emaztea, auzokoa.<sup>52</sup>
- 2.989. Zakur saingariak ausiki guti.<sup>146</sup>  
*Antzeko: Inza 917, 2401.*
- 2.990. Zakur ttipiek erbia kausitzen, handiek arrapatzen.<sup>153</sup>
- 2.991. Zakur zaharrak sainga alferrik ez.<sup>153</sup>
- 2.992. Zakur zarra, ez da engañakorra.<sup>9</sup>
- 2.993. Zakutik edo zorrotik ateratzen du.  
*Persona eficaz.*<sup>185</sup>
- 2.994. Zaldiak gida dezake zalduna, otoak ez du gidatzen otozaina.<sup>145</sup>
- 2.995. Zaldi itsuaren saltzaileak haren zangoez espantu.<sup>139</sup>
- 2.996. Zaldi ona ukulluan saltzen da.<sup>64</sup>
- 2.997. Zanbalantran, gaur emen biar an.<sup>189</sup>
- 2.998. Zapa-lanean dabillena, bera jausiko da lenena.<sup>105</sup>
- 2.999. Zapata barriak, goizean onak, illuntzean estuak.<sup>105</sup>

3.000. Zaragi berrian, ardo zaarra neurri-  
an.<sup>189</sup>

3.001. Zarata aundia danean, zarata bera  
bakarrik aundi.<sup>123</sup>

3.002. Zarautz, txara uts.

*Garai batean, erria egin baiño leen, gaur  
Zarautz dagoan tokian txara ta sasia beste-  
rik etzala diote, eta izena ere ortik artu omen  
zuan.*<sup>50</sup>

3.003. Zarra eziñ mugiarazo, eta gaztea  
eziñ iruki geldi.<sup>9</sup>

3.004. Zarrak jun ta gazteak nun? <sup>105</sup>

3.005. Zarrantz, astoak ganbelan arrantz.  
*Goserik. Goldaratz, N.*<sup>197</sup>

3.006. Zarraren sistema seta ta tema.<sup>26</sup>

3.007. Zarraren umea martzuka.<sup>9</sup>

3.008. Zarren zarrez, bizirik ezin eten.<sup>105</sup>

3.009. Zartadetara egin ezkerro, miñik sen-  
tidu ez.<sup>15</sup>

3.010. Zaurien gañean pikua.

*Batek badu naigabe bat, edo gaixtakeri  
aundi bat egina diote, eta norbaitek hori ai-  
patzen badio, orduan bere naigabea berritzen  
baitio eta tristeago ezartzen. Hortaz erraten  
da «Zaurien gañean pikua».*<sup>89</sup>

3.011. Zauri guzien goxagailu, pazien-  
tzia.<sup>155</sup>

3.012. Zazpi-mezea, lapur-mezea.

*Eguna argitu baino lehenago. Aztiria, G.*<sup>197</sup>

3.013. Zedorrek nai ez dezunik, ez besteri opa.<sup>53</sup>

3.014. Zegama zuloko jostaiak, berrogei eguneko ekaitza.<sup>196</sup>

3.015. Zegoan zegoan, txitxak jan zuan.<sup>189</sup>

3.016. Zein aski ta zein guti, illea ille da berdin.<sup>14</sup>

3.017. Zekena beti on-gose; gosebera izaki, zeken ez-eze.<sup>189</sup>

*Ohihenart 426 baiño osoago.*

3.018. Zekenak hunik eztu, barreiazaliak eztuke.<sup>122</sup>

3.019. Zekena lanean ari da ohoinentzat eta gobernamentuarentzat.<sup>137</sup>

3.020. Zekenaren sakelan bi zilo.<sup>155</sup>

3.021. Zelaian lanin ai (lanean ari) den alperrenai, eroitzen yo (erortzen zaio) aurreneko ebi-tantua.<sup>198</sup>

3.022. Zelako zakatza, alako lebatza.<sup>105</sup>

3.023. Zelateka andrea, joan zan aren ba-kea.<sup>105</sup>

3.024. Zeletan dagoenak, beretzat aditzen du.<sup>64</sup>



3.025. Zemendien erein garie, idien apatxera be.<sup>4</sup>

3.026. Zenbaiten esker guziak, gabonetan gereziak.<sup>189</sup>

3.027. Zenbat ataka, ainbat matraka.<sup>189</sup>

3.028. Zenbat ate, ainbat maratilla, mutillaren ondoren neskatilla.<sup>189</sup>

*Bestetan baiño osoago.*

3.029. Zenbat auzotan, odolkiak ordeko-tan.<sup>189</sup>

3.030. Zenbat eman, hainbat jan.

*Ardiak, adibidez. Gabiria, G.<sup>197</sup>*

3.031. Zenbat eta atea zabalago, orduan eta lapur gutxiago.<sup>64</sup>

3.032. Zenbat eta burua makurrago, orduan da ipurdia altuago.<sup>54</sup>

*Antzeko: Inza 1088, Ormazabal 48.*

3.033. Zenbat eta eguna luzeago, gaba laburrago.<sup>123</sup>

3.034. Zenbat eta geiago izan, gero ta geiago nai.<sup>123</sup>

3.035. Zenbat eta geiago, orduan ta naia-go.<sup>9</sup>

3.036. Ze(i)nbat eta lurra bigunago, arra barruago.<sup>20</sup>

3.037. Zenbat eta obia, ordun ta okerro.<sup>198</sup>

3.038. Zenbat eta zarro, ordun ta berro (zaarrago, orduan ta bearrago).<sup>198</sup>

3.039. Zenbat gizon, ainbeste buru; zenbat buru, ainbeste iritzi.<sup>10</sup>

3.040. Zenbat ikusi, ainbat ikasi.<sup>105</sup>

3.041. Zenbat irabazi, ainbeste gastatu.<sup>9</sup>

3.042. Zentzuduna argi bilatzale, zoroa emaile.<sup>142</sup>

3.043. Zentzunak zurrun, aalmenak iztun, maite jarioz diraugin.<sup>189</sup>

3.044. Zentzunik ez daukanak, miñik be ez.<sup>105</sup>

3.045. Zentzuz itzegitea bearrezko bada, ondo entzutea ere berdintsu noski.<sup>123</sup>

3.046. Zerbait dala uste eta ezer izan ez.<sup>54</sup>

3.047. Zerbaitetarako ez danik, iñor ez.<sup>52</sup>

3.048. Zerbaiti lotu gabe beha ondorioeri.<sup>147</sup>

3.049. Zer berri? Zarrak berri, gazteen goangarri.<sup>93</sup>

*Antzeko: Azkue 933, 2883.*

3.050. Zer da au olako uxaluma?

*Geiegizko apaintzalea dala adierazteko.*<sup>52</sup>

3.051. Zer da fedia? Bakoitzak in dezala beria.<sup>196</sup>

3.052. Zer da: gezurrik ez erraiten eta ez Jainkoa?

*Ixilik dagoena.*<sup>195</sup>

3.053. Zer da zartzea? Bi aldiz aurtzea.<sup>9</sup>

3.054. Zer degu? Jaio giñan eta eriotza zor degu.<sup>70</sup>

3.055. Zer egingo degu ba, Jaungoikoa il dan zaratarik ez da ta? <sup>6</sup>

3.056. Zer eman, zer uka, biotz zatituaren bi puxka.<sup>189</sup>

3.057. Zergatik ez da emakumea meza la-guntzera joaten? Galdetu baiño leen erantzuten duelako.<sup>64</sup>

3.058. Zerk ekarri ark eraman, aizeak eka-rria aizeak eraman.<sup>189</sup>

3.059. Zer merezi, ura etorri.<sup>9</sup>

3.060. Zer merezi, ura iritxi.<sup>9</sup>

3.061. Zerraittia, olgaittia; harilketia, nekaittia.<sup>177</sup>

3.062. Zerramak arrosa baino nahiago lohia.<sup>164</sup>

3.063. Zerria azi etxean eta ill auzoan.<sup>9</sup>

3.064. Zerria ildako astea ta ezkondu-tako urteak, onenak.<sup>37</sup>

3.065. Zerria ill eta kurrinka bizi.<sup>9</sup>

3.066. Zerri goseak ezkurra, zakur izuak isats makurra.<sup>189</sup>

3.067. Zerririk ez bada tegian, koiperik ez zartagian.<sup>189</sup>

3.068. Zeru zolan papo urdina (laino beltza), hirugarren eguneko euria.<sup>185</sup>

3.069. Zeurekin badezu, nerekin jango dezu.<sup>9</sup>

3.070. Zezena adarretik, gazta usaiñetik.<sup>189</sup>

3.071. Zezena ere, il aurretik belauniko.<sup>39</sup>

3.072. Zigor gabeko legea? Mingain gabeko txiliña.<sup>201</sup>

3.073. Zikoitzak dio kasu egile dela. Bel-durtiak dio zuhurra dela.<sup>167</sup>

3.074. Zillarrezko abilidadea, eta urrezko tripa.<sup>9</sup>

3.075. Zintzarria dunguluz badago, urruti-rago ta soriago.<sup>189</sup>

3.076. Zintzur estuan pirrinka, zintzur na-saian amilka.<sup>189</sup>

3.077. Zipotza bein kendu, ta orduan liak agertu.<sup>7</sup>

3.078. Ziria ezta gai, eta eriya bai.

Erderaz: *Donde no valen cuñas aprovechan uñas.*<sup>14</sup>

3.079. Zirikatzaliak abua bero, ta gauza ona gero.<sup>15</sup>

- 3.080. Zirin-zirin amama, oiala gertu, ama.<sup>105</sup>
- 3.081. Zirko guzietan pailazoak.<sup>39</sup>
- 3.082. Zirriketa marraketa kitarria, botikaixuan alabia.<sup>105</sup>
- 3.083. Zirri-marran olatuak, katean ondo lotu txalupak.<sup>105</sup>
- 3.084. Zirri-marran urak, errixuko basak olguran.<sup>105</sup>
- 3.085. Zizkili-bazkili egitekotan, oba geldirik egon.<sup>200</sup>
- 3.086. Zoin da pollitena? Bihotzak maite duena.<sup>146</sup>
- 3.087. Zolia danari goixetan, Jaungoikoak deutsa lagunketan.<sup>18</sup>
- 3.088. Zonbeiten hitza ala ahuntzaren gauerdiko eztula berdintsu dire.<sup>158</sup>
- 3.089. Zopeaz bein, azeaz birritan, andik aurrera sarritan.<sup>2</sup>
- Ardo-tragoxkak ola egiten dirala otorduetan.*
- 3.090. Zorionean den gizona ez zaio zorionari ohartzen.<sup>142</sup>
- 3.091. Zoroa bere hartarik ez da behin ere kantitzen.<sup>148</sup>
- 3.092. Zoro-aize larregi, negarra dator atzeti.<sup>105</sup>

3.093. Zoroak zer dau sinifikantza? Berak  
soiñu eta berak dantza.<sup>190</sup>

3.094. Zoro-zoro Antonio, laster euria da-  
rio.<sup>105</sup>

3.095. Zorra ezin eiñe, oi duk gizonentzat  
makurrena.

*Grazian Zuloeta*'k 1948.<sup>171</sup>

3.096. Zorrai erantzuteko txalupa saldu?  
Txalupa galdu ta zorra garbitzeko.<sup>104</sup>

3.097. Zorrak zor eta lorrak lor, Ondarru  
ta Berritu sekula ez kittu.<sup>104</sup>

3.098. Zorrak zor, lepondoa lodi; bada ez  
bada, mokau goxoak sarri.

*Bestetan baiño osoago.*

3.099. Zorra, nirea baiño arena obe.<sup>105</sup>

3.100. Zorra pagatzen duanak, artzekoa  
egiten du.<sup>52</sup>

3.101. Zorriketa ari denarentzat kukusoa  
ere ihizi on.<sup>153</sup>

3.102. Zorrik onena baño, arturenik txa-  
rrena oba da.<sup>134</sup>

3.103. Zorri piztua okerreña.<sup>174</sup>

*Antzeko: Azkue 668, Inza 688, 1096, 1713;*  
*ta Elissalde: «Zuhur-hitz eta Erran-zahar,*  
*Gure Herria,aldizkaria, 1938.*

3.104. Zor zaionari, edo pagua edo pala-  
gua.<sup>1</sup>

3.105. Zor zarra, kaka zarra, beti usai txarra.<sup>105</sup>

3.106. Zor zarrak, atze txarra.<sup>105</sup>

*Antzeko: Azkue, 2907.*

3.107. Zozoa, irri-egile handi.<sup>151</sup>

3.108. Zozoak, bere buruaz harturik, ez du ikusten bertzeren dohainik.<sup>152</sup>

3.109. Zozoaren abantaila da bere buruaz beti kontent izaitea.<sup>145</sup>

3.110. Zozoa sasi tartean ari bada kantuan, gaberako euria.<sup>174</sup>

3.111. Zozo aseak gingak iguin.<sup>9</sup>

3.112. Zozuen astien jaiua.<sup>187</sup>

*Leloa dena.*

3.113. Zuhaitz orok adar eihar.<sup>150</sup>

3.114. Zuhartzeari ez galda sagarrik.<sup>163</sup>

3.115. Zu etxerako, garirik ez dan urterako.<sup>23</sup>

3.116. Zuk aideak alde, baña zerori zere talde.<sup>14</sup>

3.117. Zuk ere badituzu utsegiñak, bizi-lagunaren berdiñak.<sup>189</sup>

3.118. Zuk zeretzat nai ez dezuna, ez beste iñori opa.<sup>123</sup>

3.119. Zulo bakoitzari, petatxua.<sup>9</sup>

- 3.120. Zu Maikux eta ni Praxku, ondoren-  
goak Kuxku.<sup>123</sup>
- 3.121. Zurda hoberena beti tinkatuz, nahi-  
-t-ez trenkatzen da.<sup>155</sup>
- 3.122. Zure eskueri kontu gehiago zangoeri  
baino.<sup>155</sup>
- 3.123. Zure naia biz zure gaia; zeurea zan  
gura, areago ardura.<sup>14</sup>
